# Goienkaria

2009ko apirilaren 30a > Eguena > IX. urtea > 374. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Hainbeste buru egon barik, organizazio horizontalagoak nola egin, landu dut"



**Manu Egaña** Coaching-en aditua > 09

**G2a** **GOITBko 'Ilunpean' saioak 200 programa** > 37

**ARRASATE** **Natale Landa aske utzi zuten martitzen iluntzean** > 15

**BERGARA** **Udalbatzak 30.229.452 euroko aurrekontua onartu du** > 19

**KIROLA** **Euskadiko mendiko bizikleta lasterketa domekan Aramaion** > 34




**SINDIKATUAK** UGTko Maite Aliste, LABeko Leire Ormazabal, ESK-ko Marian Conde eta ELAko Aitor Iturriaran Maiatzaren Lehenerako atera dituzten kartelak erakusten, Arrasaten. MONIKA BELASTEGI

**LANA** > LANGILEAREN EGUNA, BIHAR, EGUBAKOITZA

# "Maiatzaren Lehen berezia" izango dela diote sindikatuek

**DEIALDIAK** Sindikatu gehienak hiriburuetan mobilizatuko dira; ESK, STEE-EILAS eta beste gizarte-talde batzuk, Arrasaten

**ALDAKETA** Krisiari aurre egiteko, langabeari babesa eta eredu aldaketa eskatzen dute langileen ordezkariek

**INPLIKAZIOA** Batzuek sumatu dute inplikazio handiagoa; beste batzuk, beldur dira ez ote den opor eguna izango > 02-03

**POLITIKA** > LEGEBILTZARRA

## Paco Gartzia sozialista, legebiltzarkide

Ofizialki konfirmatu ez duten arren, Paco Gartzia Arrasateko PSE-EEko zinegotzia Gasteizko legebiltzarkide izango da. Iñaki Arriola edo Gemma Zabaleta sailburu izendatuz gero, bi horietako baten lekua hartuko luke Gartziak. > 06

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Zerbitzuak** > 44
**Berri-zakua** > 45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47

**ETXEBIZITZA** > ZOZKETA

## Aretxabaletako etxe tasatuak, denen eskura

Aretxabaletako Udalak eta Bruesa enpresak eraikitzen diharduten etxebizitza tasatuak bigarrenez zozkatzekoak dira. Deialdi horretarako baldintzak aldatu egin dituzte eta aurkeztu ahalko dira herrikoak ez ezik, Debagoien osoko bizilagunak ere. > 05



Tasatutako 190 etxebizitza eraikitzen dihardute 2-B sektorean. MIRARI ALTUBE

**OSASUNA** > TXERRI-GRIPEA

## Txerri-gripe zantzurik ez gurean

Mexikotik gripe sintomekin etorri den Debagoieneko bikoteak ez du txerri-griperik > 06




Jurgi Duque (Arrasateko Gaztetxea), Arrate Landa (STEE-EILAS), Pablo Miguel (Ahots Kooperatibistak), Jose Ramon Sebal (Komite Internazionalistak) eta Felix Irizar (ESK). MIREN ARREGI

**LANA** > LANGILEAREN EGUNA

# Maiatzaren Lehena: aldaketa eskatuko dute sindikatuek

**EKINTZAK** Sindikatu gehienek hirietan egingo dituzte ekintzok; ESK, STEE-EILAS eta beste talde batzuek, Arrasaten

**KRISIA** Sindikatu gehienen deialdien ardatzetako bat da krisia "langileok ordaintzen" dabiltzala, errurik izan gabe

**MAIATZAK 21** Hilaren 21eko greba orokorra babesten duten taldeek horren aurrekari gisa ikusten dute biharkoa

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Lanaren Egunak, bihar, egubakoitza, esanahi berezia du, krisiaren eraginez; hala uste dute bailarako sindikatuek. Denen deialdietan, krisiari erantzun beharra azpimarratzen dute; gehienek aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoak eskatzen dituzte. Bat datoz esaten mundumailako krisia patronalen eta banketxeen errua dela, eta administrazioei permisibitatea leporatzen diete. Hori dela eta, maiatzaren 21ean greba deitu duten sindikatuek (ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta Hiru dira) "berotze" borroka egun gisa ikusten dute biharkoa.

Deialdi gehienak Debagoienetik kanporako dira; bakarrik talde batek –ESK, STEE-EILAS, Komite Internazionalistak, Ahots Kooperatibista, eta Arrasate eta Bergarako Gazte Batzarrak– egingo ditu ekintzok Debagoienean.

Batearen zein bestearen deialdiarekin bat egin, maiatzaren 1a ospatu zein ez, krisiaren errealitatea, Euskal Herriko bailararik aberatsenetakoa izan den honetan, datuek erakusten dute: hala, martxoa 11,19ko langabezia tasarekin bukatu dugu (3.469 langabe), 2008ko martxoan 6,32koa (1.959 langabe) zenean. Gainera, abenduaz geroztik, 25 eta 44 urte arteko lanik gabeko gizonezkoak adin tarte horretako emakumezkoak baino gehiago dira: 955 eta 906, hurrenez hurren, otsaileko datuen arabera. Hori bat dator enplegu-suntsipena handien izan den sektoreekin: industria (1.669 langabe otsailean) eta zerbitzuak (1.414).

**ELA: "DEIALDI BEREZIA DA"**

ELA sindikatuak Bilbora deitu du, *Maiatzaren 1a, borroka bidean* leloarekin. Kale Nagusian hitzaldia izango da, 11:30ean; gero, agerraldia egingo dute Plaza Biribileraino; eta BECen bazkalduko dute 14:30ean. Debagoienetik joateko autobusak antolatu dituzte.

Debagoieneko ordezkari Aitor Goenagaren esanetan, "aurtengo deialdia oso berezia da; Euskal Herriko gehiengo sindikalak deitu duen grebarako giroa berotuko dugu bihar". ELAren iritziz, "krisian gauden honetan, patronalak oraindik bere irabaziak nahi ditu, eta enplegua suntsitzen dabil. Guk dioguna da krisia ez dela soldatak, langileek ordaindu beharrekoa". Horri aurre egiteko proposatzen dute "langileen aldeko politika publikoak, diru publikoa banketxeei eman beharrean".

Goenagaren esanetan, "Debagoiena ez da salbuespena; eskualde guztietan antzeko egoera dago".

**LAB: "ERASOKOR IZAN BEHARRA"**

LAB sindikatuak euskal hiriburuetan egingo ditu mobilizazioak, Langileon borrokaz Euskal Herriak aldaketa leloarekin. Besteak beste, Gasteizko Bilbo plazan eta Donostiako Bulebarrean batuko dira 12:30ean, eta ordu erdi lehenago Bilboko Zabalburu plazan. Horren berri eman zuten astelehenean hainbat lekutan, tartean, Arrasaten.

Eurek ere "langileok ordaintzen ari garen sistemaren krisiaren" testuinguruan kokatu dute deialdia, eta "eredu sindikal bakarra sindikalismo erasokorra" dela azpimarratu dute. "Patronalak krisiaren pilota gure teilatuan jarri nahi du eta administrazioen erabakiek botere ekonomikoaren interesak besterik ez ditu kontuan hartzen", dio LABek.

Debagoieneko ordezkari Jose Ramon Kortabarriaren esanetan, "beldurra eta ezjakintasuna" dute langileek, eta "egoera larria" da. "Sistemak berak egin du porrot; denarekin espekulatzen jarraitu dute, eta pot egin du", gaineratzen du. "Eurek behin-behineko soluzioak planteatzen dituzte, baina, finean, lehengo sistemara bueltatzea. Guk diogu egoera aprobetxatu behar dela aldaketak lortzeko, eta horretarako, indarrak batu behar ditugu". Grebari dagokionez, "inflexio puntua" izango dela dio Kortabarriak.

**ESK, STEE-EILAS ETA BESTE BATZUK: "BESTE MUNDU BAT"**

ESK, STEE-EILAS, Ahots Kooperatibista, Komite Internazionalistak eta Arrasateko eta Bergarako Gazte Batzarrek Arrasaten egin zuten euren deialdia. Eurak dira ekintzak ibarrean egingo dituzten bakarrak: kale-agerraldia Seber Altubetik hasita,

## Kontratuak Debagoienean

| | NEKAZARITZA | INDUSTRIA | ERAIKUNTZA | ZERBITZUAK |
|---|---|---|---|---|
| 2008 urtarrila | 4 | 298 | 99 | 1.300 |
| otsaila | 1 | 410 | 119 | 1.236 |
| martxoa | 0 | 173 | 65 | 1.020 |
| apirila | 0 | 245 | 124 | 1.205 |
| maiatza | 4 | 324 | 102 | 1.193 |
| ekaina | 4 | 318 | 72 | 1.296 |
| uztaila | 5 | 456 | 114 | 1.336 |
| abuztua | 1 | 389 | 103 | 928 |
| iraila | 3 | 268 | 136 | 1.367 |
| urria | 5 | 331 | 127 | 1.364 |
| azaroa | 1 | 190 | 76 | 954 |
| abendua | 3 | 180 | 85 | 928 |
| 2009 urtarrila | 0 | 118 | 109 | 771 |
| otsaila | 1 | 115 | 119 | 643 |

ITURRIA: DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

## Langabeak Debagoienean




ITURRIA: DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA, INEM-EKO DATUEKIN

## Langabezia tasa, 11,19koa martxoan

Martxoa bukatutakoan, INEMen 3.469 debagoiendar zeuden izena emanda, %11,19ko langabezia tasa; egoera txarrena Arrasatek (%12,96ko tasa, 1.500 langabe) eta Eskoriatzak (%12,84ko tasa, 267 langabe) zeukaten. Estatuko martxoko langabezia tasa %17,36koa zen, 4.010.700 langabe.

## Langabeak, herrika

| | 2008 MARTXOA | | 2009 MARTXOA | |
|---|---|---|---|---|
| **Antzuola** | 52 | %5,71 | 97 | %10,66 |
| **Aretxabaleta** | 242 | %7,50 | 368 | %11,40 |
| **Arrasate** | 808 | %6,98 | 1.500 | %12,96 |
| **Bergara** | 450 | %6,27 | 707 | %9,85 |
| **Elgeta** | 17 | %3,46 | 47 | %9,55 |
| **Eskoriatza** | 148 | %7,12 | 267 | %12,84 |
| **Leintz Gatzaga** | 6 | %4,51 | 14 | %10,53 |
| **Oñati** | 236 | %4,37 | 469 | %8,68 |
| **GUZTIRA** | **1.959** | **%6,32** | **3.469** | **%11,19** |

ITURRIA: INEM




LABek hiriburuetara joateko deitu zuen Arrasaten. TXOMIN MADINA

DATUA

# 955

GIZONEZKO LANGABEZIAN

Otsailean, Debagoienean 25 eta 44 urte arteko 955 gizonezko zeuden langabezian, eta adin horretatik beherako 332; aurreko urteko otsailean, 390 eta 141 ziren kopuruak, hurrenez hurren. Datu esanguratsua da, azken hilabeteotan gizonezko langabeen kopurua emakumezkoena baino handiagoa delako: otsailean, 25-44 urte arteko 906 emakume zeuden lanik gabe, eta hortik azpiko 149.

**UGT: "INPLIKAZIOA FALTA DA"**

Ohi bezala, UGT eta CCOO sindikatuek batera ospatuko dute Maiatzaren 1a, hiriburuetan: Bilbon, 11:30ean abiatuko dira ageraldian Jesusen Bihotzetik; Gasteizen, Ama Birjina Zurian batuko dira, 12:00etan; eta ordu berean Donostiako Alderdi Ederren. *Enpleguaren alde* leloan laburtzen dute euren deialdia: langabezian daudenei babesa emateko premia.

Hala, UGTko Debagoieneko ordezkari Maite Alistek hauxe dio: "Debagoienean, ERE gehienak kontratuak suntsitzekoak dira. Luzapenek kezkatzen naute. Horrez gain, krisia dagoenean, kooperatibek azpikontratatuak baztertzen dituzte".

UGTko ordezkaria da deialdiaren erantzunaren gainean ezkor agertzen den bakarra: "Zoritxarrez, ez dauka beharko lukeen erantzuna, inplikazio falta igartzen dut. Egubakoitza da, eta beldur naiz jende askok ez ote den oporretara joango".

12:00etan; gero, bazkaria eta kontzertuak gaztetxean; atzo, eguaztena, Iñaki Uribarri ekonomialariaren hitzaldia zeukaten Bergaran. *Ante la crisis otro mundo es posible y urgente - Krisiaren aurkako mobilizazioa* da euren leloa.

Bistan dago gazte kutsu handia duela deialdi horrek, eta hala da: "Adreiluan oinarritutako ekonomiak gazteei etxebizitza eskubidea ukatu izan dio; prekarietatean oinarritutako lan baldintzek arazo larriak sortzen dizkiete gazte, emakume zein etorkinei; obra faraonikoak eraikitzen saiatzen dira gizarte borondatearen gainetik…", diote euren deialdian. Horrez gain, beste sindikatuek dioten moduan, enpresak ixteak, EREak eta bestelako arazoak salatzen dituzte. Irtenbidea, euren esanetan, "eredu ekonomikoa aldatzea" da: "errekurtso naturalak zuzenbidez eta elkartasunez banaturik" eta "kapitalismoaren aurkako borrokan tinko jarraituz".



errenta 2008 zure zerbitzura

gipuzkoako ogasuna

errenta mekanizaturako hitzordua: apirilaren 20tik ekainaren 12ra

Modalitate mekanizatuaren bidez aurkeztu nahi baduzu aitorpena, gogoan izan hitzordua eskatu behar duzula apirilaren 20a eta ekainaren 12a bitartean.

**AHOLKUAK:**

- Ahal baduzu, eska ezazu hitzordua Internet bidez, azkarragoa eta errazagoa da eta.
- Telefonoz egiten baduzu, izan ezazu pazientzia lehen egunetan, gure lineak gainezka izan ditzakegu eta. Jakin ezazu hitzordua eguneko edozein ordutan eska daitekeela.

www.gipuzkoa.net
APIRILAREN 21ETIK EKAINAREN 25ERA
902 100 040
ZERGADUNARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA
Autolikidazio proposamenak onartzea, errenta mekanizaturako hitzordua eta informazioa.





**BATXILERGOAK**

**AURRE MATRIKULAZIOA: maiatzaren 4tik 8ra**

# guztiona, guztion artean

goieskola@euskalnet.net | 605 773992 | www.goieskola.net

## OÑATIKO INSTITUTUA

Batxilergoa: 943 781268

Lanbide Heziketa: 943 782150

**Bilera informatiboa :**
- **Batxilergoak: maiatzak 6**
  **Ordua eta lekua: 18:30, Zuazola Institutuan**
- **Lanbide Heziketa: maiatzak 7**
  **Ordua eta lekua: 18:30, Larraña Institutuan**

- Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
- Lanbide Heziketa: Heziketa Zikloak
  - -Mekanizazioa
  - -Linea Eroanbideen eta Makinen Mantenua
  - -Natur Ingurunean Kirol Ekintzen Gidaritza
  - -Langile eta Langabetuentzat ikastaroak

*Informazio gehiago:* www.onati.net

## ARRASATEKO INSTITUTUA

Santa Teresa 25
Tel.: 943 794447 – 943 798300

**Bilera informatiboa eta ate irekiak:**
**maiatzak 5**
**Ordua eta lekua: 18:00, Institutuan**

- Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
- Giza eta Gizarte-Zientzietako Batxilergoa
- Arte Batxilergoa

## BERGARAKO IPINTZA INSTITUTUA

Boni Laskurain 19
Tel.: 943 763142

**Bilera informatiboa eta ate irekiak:**
**maiatzak 5**
**Ordua eta lekua: 18:30, Institutuan**

- Batxilergo Zientifiko-Teknikoa
- Giza eta Gizarte-Zientzietako Batxilergoa

goieskola
debagoieneko euskal
eskola publikoa

**ETXEBIZITZAK** > ZOZKETA BERRIA

# Aretxabaletako etxe tasatuak, ibarrekoen eskura

Errekaren atzean II-B sektorean saldu barik dauden etxe tasatuen bigarren zozketan Debagoieneko bizilagunek parte har dezakete

**MIREIA BIKUÑA** > ARETXABALETA

Apirilaren 2an egindako osoko bilkuran, Aretxabaletako Udalak eta etxeak eraikitzen diharduen Bruesa enpresak hirugarren zozketa egiteko hitzarmena berritu zuten. "2004ko abenduan lehen zozketa egin zuten, eta iazko uztailean, bigarrena. Bietan, etxe guztiak esleitu zituzten, baina batzuk atzera egin dute. Horregatik, erabaki dugu beste zozketa bat egitea", esan digu Udaleko idazkari Xabier Mendizabalek.

Etxe guztiak saltzeko asmoz, zozketa berrirako baldintzak aldatu egin dituzte, eta deialdia Aretxabaletatik kanpo bizi direnei zabalduko diete. "Aretxabaletarrek izango dute lehentasuna zozketan, baina herrikoen eskaerekin etxe guztiak saltzen ez baditugu, Debagoieneko edozein herritarrek eta ibarretik kanpo bizi direnek erosi ahal izango dute etxea", esan digu.

**LAU TALDE**

Deba ibaiaren beste aldean egiten diharduten etxeen zozketa ekain erdialdean egingo dute, eta lau talde egingo dituzte. Lehenengo taldean aretxabaletarrak sartuko dituzte; alegia, etxerik ez duten eta 22.000 eta 51.000 euro arteko diru sarrerak dituzten aretxabaletarrak. Bigarrenean, baldintza berberak betetzen dituzten Debagoieneko gainerako herrietako bizilagunak sartuko dituzte. Baina, derrigorrean, 2008ko abenduaren aurretik erroldatuta egon beharko dute.

Hirugarren taldean baldintzak bete eta edozein egunetan erroldatu diren debagoiendarrak sartuko dituzte; eta laugarrenean, gainerako guztiak sartuko dituzte, baita beste etxe bat dutenak ere.

Ekaineko zozketaren ondoren saltzen ez diren etxeak sustatzailearen esku geratuko dira.




Bruesa enpresak dihardu Aretxabaletako etxe tasatuak egiten. MIRARI ALTUBE

### Izenematea zabalik maiatzaren 29ra arte

Deba ibaiaren beste aldean egiten diharduten etxe tasatuak erosi nahi dituztenendako izenemate epea zabalik dute maiatzaren 29ra arte. Interesatuak Aretxabaletako Udaleko Hirigintza Departamentura joan daitezke informazioa eskatzeko, edo 943 71 18 62 telefonora dei dezakete. Besteak beste, NAren fotokopia, datu pertsonalak eta erroldako datuak eroan beharko dituzte. Gainera, lehen hiru taldeetako zozketan parte hartu gura dutenek aurreko urteko errenta aitorpena aurkeztu beharko dute. Ekainaren erdialdean zozketa irekia egingo dute eta saldu barik dauden etxe tasatuak erosleen esku jarriko dituzte.

**HEZKUNTZA** > MOBILIZAZIOAK

# Ikasle Abertzaleek baterajotze nazionala deitu dute gaurko

Euskal Eskola Nazionala aldarrikatzeko mobilizazioak egingo dituzte ibarrean

**M.B.** > ARRASATE

Ikasle Abertzaleak taldeak baterajotze nazionala deitu du gaurko Euskal Herri osoan. Horren harira, mobilizazioak egingo dituzte Arrasaten. Besteak beste, manifestazioa egingo dute 11:00etan, unibertsitatetik irtenda. Bukaeran, 11:30ean ekitaldia egingo dute herriko plazan.

Mondragon Unibertsitatean eta Eskoriatzako Huhezin lanuzteak deitu dituzte, ikasleek ekitaldietan parte har dezaten.

**ALDARRIKAPENAK**

Plazan egingo duten ekitaldian Euskal Eskola Nazionalaren aldeko manifestua irakurriko dute. Testuan salatzen dute ikasleei hezkuntza sistema espainiarra eta frantsesa "inposatzen" zaizkiela. Ondorioz, ikasle mugimenduek egoera latza "sufritzen" dutela diote.

Hizkuntza sistema arrotzen kontra egiteko Euskal Eskola Nazionala beharrezkoa dela diote: "Euskal curriculuma, hezkuntza hezitzailea eta egutegi propioak behar ditugu".

**AHT**

# Diru kontuak argitzea eskatu du AHT Gelditu! Elkarlanak

**M. B.** > BERGARA

AHT Gelditu! Elkarlanak prentsaurrekoa egin zuen martitzenean, eta AHTaren "benetako diru kontuak" kaleratzeko erronka egin zion Eusko Jaurlaritzari. Elkarlanak azaldu zuen 10.000 milioi euro beharko direla AHTa egiteko. Hortaz, ekonomia suspertzen lagunduko duela esatea "iruzurra" dela salatu zuten.

Bestalde, aurreko aste bukaeran bidalitako 800.000 gutunekin "izutu diren guztiei" barkamena eskatu zieten. Gutunean zioten EAEko adin nagusiko herritar orok 4.859 euro ordaindu beharko duela AHTa finantzatzeko. Baina, aldi berean, esan zuten inork ez dituela salatu gutunean ematen zituzten datuak. Gainera, Eusko Jaurlaritzak egindako kritikak "lotsagarritzat" jo zituen. AHT Gelditu! Elkarlanaren jarrera gogor kritikatu zuen Jaurlaritzak.

> ZERBITZUAK

### Oñatiko turismo bulegoa eta gatz museoa zabalik zubian

Maiatzeko zubia dela-eta, ibarrera datozen turistek izango dute non aukeratu; izan ere, Oñatiko turismo bulegoa eta Gatzagako gatz museoa zabalik egongo dira gaurtik domekara arte.

Oñatiko bulegoan 10:00etatik 14:00etara arte zabalduko dute egunero. Arratsaldeetan ordutegi ezberdina izango dute: bihar, 15:30etik 19:30era; etzi, 16:30etik 18:30era; eta domekan itxita egongo da.

Bestalde, Leintz Gatzagako gatz museoa egunero zabalduko dute 10:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 21:00etara.

Txuntxurunberde
Umeen jantzi eta oinetako denda
Oñatiko denda itxi egin behar dugu
LIKIDAZIO OSOA!
%50 arteko deskontuak
Kale Barria 20 – Tel.: 943 71 62 03 – OÑATI

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa
### Apirileko zozketa

Sariak irabazteko
**HARPIDETU!**
**Tel.: 943 08 10 50**
***harpidetza@goiena.com***
**Kuota: 40 euro**

**SARRERAK**
Bruesa-Ricoh Manresa partidurako sarrerak.
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra

**KAMISETA+DVD**
DANBAKA

Danbakako kamiseta eta DVD bat.
BIDALI AG DANBAKA 5533 zkra

**KAMISETA**
skunkfunk

Skunkfunk kamiseta bat.
BIDALI AG KAMISETA 5533 zkra.

**PEN-DRIVE**

Goienako Pent-Drive bat.
BIDALI AG PENDRIVE 5533 zkra.

## SARI NAGUSIA
**PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA**

**BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK**

J.L Abuinen eskutik
**J.L ABUIN / PUY BIDEBURU**
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14
S. Josepe, 10 943 77 01 33
Kiroldegia 943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

**OSASUNA** > TXERRI-GRIPEA

# Ibarreko bikoteak ez du txerri-griperik

Protokoloa aplikatu eta bikotea Txagorritxuko ospitalera eraman zuten han aztertzeko

**U. MADERA/ A. EZKIBEL** > ARRASATE
Osakidetzak emandako informazioaren arabera, domeka arratsaldean gripe sintomekin Eskualdeko Ospitalera joan zen gure ibarreko bikoteak ez duka txerri-griperik. Jose Luis Barreiro prentsa arduradunak jakinarazi du Bilboko kasuaz gainera ez dutela, oraingoz, besterik atzeman Euskal Autonomia Erkidegoan.

Barreirok gaineratu du katarro sinple batekin ospitalera oso kezkatuta doazenen kasu gehiagoren berri entzungo dugula datozen egunotan.

**SINTOMAK**
Eztula eta bestelako sintoma batzuk zituen bikoteak, eta, horren aurrean, ospitaleak Osasun Sailak ezarritako protokoloa aplikatu eta bikotea Txagorritxuko ospitalera bidali zuen. Han, Osakidetzako epidemiologo batek aztertu zituen.

Edozelan ere, Eskualdeko Ospitaleko larrialdi zerbitzuetatik nabarmendu zuten bikoteak ez zuela kalenturarik (sintoma garrantzitsua txerri-gripearen kasuan). Hortaz, ezarritako neurriak badaezpadakoak izan ziren.

**ARRISKU TXIKIA**
Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailetik hauxe adierazi dute: "Herritarrok kutsatzeko arriskua oso txikia da". Hala ere, izurriaren zabaltze azkarra dela eta, alerta egoera handitu du OMEk.

**BIDAIAK**
Euskal Herriko Kontsumitzaileen Elkartetik, berriz, zera esan dute: "Mexikora bidaia erosi duenak bertan behera utz dezake, abonurik ordaindu barik". Ezinbesteko kasua dela diote.

ESANAK

**"Ezinbesteko kasua denez, bertan behera utz daiteke bidaia; dirua itzuli behar dute ezer abonatu barik"**

**Jose Luis Segura** > EKA

**JARDUNALDIAK** > BERRIKUNTZA ETA SORMENA

## Europako 100 gazte sortzaileren artean egon da Manu Egaña oñatiarra Bruselan

**A. E.** > OÑATI
2009a berrikuntza eta sormenaren urtea da Europan. Horren harira, hainbat ekitaldi eta jardunaldi antolatu ditu Europako Batzordeak. Horietako bat da apirilaren 20an eta 21ean egin zutena: Europako 100 gazte sortzaile elkartu ziren Bruselan. Haien artean zegoen Manu Egaña oñatiarra. Guztira 27 herrialdetako gazteak batu ziren, eta Euskal Herritik bi joan ziren.

"Innobasquetik animatu ninduten jardunaldietan parte hartzera", dio Egañak. "Artikulu bat idatzi behar izan nuen, eta nire curriculuma aurkeztu", gaineratu du Egañak.


Manu Egaña. GOIENKARIA

**ORGANIZAZIO HORIZONTALAK**
*Ekintzaile lidergoa eta erakundeetan aldaketa* proiektua aurkeztu zuen Egañak. "Hainbeste buru egon barik, organizazioak horizontalagoak zelan egin landu dut", azaldu du Egañak.

Manu Egañak dio zerbait berritzailea planteatzen denean "oso zaila" dela aurrera ateratzea. Gaineratu du esperientzia oso polita izan dela, batez ere elkarren artean ezagutzeko aukera izan dutelako.

**POLITIKA** > LEGEBILTZAR BERRIA

## Legebiltzarkide izango da Paco Gartzia Gasteizen

Gipuzkoako zortzi legebiltzarkideetako batek dimisioa aurkeztu beharko du horretarako

**A. E.** > ARRASATE
Oraindik ofizialki konfirmatu ez duten arren, Paco Gartzia Arrasateko PSE-EEko zinegotzia Gasteizko legebiltzarkide izango da legegintzaldi berrian.

Patxi Lopez gobernua osatzen ari da eta ofizialki sailburuak zeintzuk izango diren esan ez badu ere, izen batzuk agertu dira hedabideetan. Izen horietako batzuk dira Iñaki Arriola eta Genma Zabaleta gipuzkoarrak. Sozialisten barne araudiaren arabera, sailburu izateko dimisioa eman behar dute legebiltzarkide moduan.

**ZERRENDAN BEDERATZIGARREN**
Sozialistek zortzi legebiltzarkide lortu zituzten Gasteizen Gipuzkoatik hauteskundeetan; eta, Gartzia zerrendan bederatzigarrena da. Gartziak ez digu baieztatu ezta ukatu ere Legebiltzar berrian egongo denik.

> ATE IREKIAK

### Gipuzkoako Batzar Nagusietako autobusa Arrasaten egongo da

Batzar Nagusietako gela didaktikoa Arrasaten egongo da datorren astean; astelehenetik zapatura egongo da, Seber Altube plazan, goizez eta arratsaldez. Ordutegia hauxe izango da: 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era.

Helburua da herritarrak Diputazioaren zereginen partaide eginaraztea eta, oro har, erakundea gizarteari gerturatzea. 25 pertsonari harrera egiteko 40 metro koadroko gela didaktikoa da autobusa. Gelan, talde bakoitzari moldatutako 50 minutuko iraupena izango duten saioak emango dira. Parte hartzeko 902 109 156 telefonora deitu behar da.

KRISIA > AZBE

# Azbe lantegia itxi eta lanik gabe utziko dituzte 31 lagun

Egoera behin betikoa da, eta orain, langileen irteera akordatu dute zuzendaritzak eta Aretxabaletako lantaldeak



Aretxabaletako Azbe Assa Abloy enpresako sarrera. GOIENKARIA

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA
Aretxabaletako Azbe sarrailagintza enpresa ezaguna itxi egingo dute, eta 31 lagun lanik gabe geratuko dira. Gaur egun, 46 lagunek dihardute Azben, eta horietatik eskulan zuzenean dabiltzan guztiak geratuko dira langabezian; bakarrik administrazio edo zeharkako eskulan postuek jarraituko dute.

Zenbait urte kolokan eta hiru berregituraketa pasa ondoren, azkenean Assa-Abloy multinazional suediarrak Aretxabaletako lantegia ixtea erabaki du. Assa-Abloyk beste lantegi bat dauka Debagoienean: Eskoriatzako Tesa.

Martitzenean, langileen irteera negoziatzen hasi ziren. Enpresa-batzordearen esanetan, "diruari dagokiona negoziatuko dugu; hori da gure aukera bakarra". Egoera, beraz, behin betikoa da eta ez dago atzera bueltarik.

Enpresa-batzordearen balorazioa hauxe da: "Lana badaukagu eta, beste urte batzuetan baino gutxiago bada ere, irabaziak produzitzen ditugu; baina multinazionala krisiaz baliatu da lantegia ixteko".

Bestalde, Assa-Abloyko zuzendaritzarekin harremanetan jarri ondoren, hauxe da esan diguna: "martitzenean batzartu ginen langileekin eta lagun arteko akordiora iritsi ginen, lehen saioan". Hortaz, erraza izan da negoziazioa.

**SARRAILAGINTZA, LARRI**
Debagoieneko sarrailagintza sektoreak beste zauri larri bat jasotzen du Azbe ixtearekin. Aurten oraindik, Oñatiko Ceur lantegia itxi zuten, eta Arrasateko Union Cerrajera (UCEM) lege konkurtsalaren eraginpean eta enplegu-erregulazioan dago: 70 laguneko lantalde osoari eragiten dio ERE horrek, eta, horren bidez, aurten lanorduen %50 egiten dabiltza, txandaka. Sarrailagintzan zuzenean ez, baina UCEMen magalean sortutako Roneo ere likidazioan dago. Krisia bete-betean jasaten dabil bailaran hain garrantzitsu izan den sektore hori.

Sektorea ezagutzen duten adituek esaten dutenez, "sarrailagintza eraikuntzatik bizi delako" gertatzen dabil krisi sakon hori. Aditu horien esanetan ere, "irtenbide posible bat izango litzateke arazoari aurre egitea Debagoien osoan batera, baina, zoritxarrez, gaur egun ez da hori egiten".

etxeko leihotik



Goiatz Arana > 'goarana@goiena.com'

## Kultura sailburu berriak zer egingo

Blanca Urgell euskaltzalea izango da Kultura sailburu berria. Urgell Gasteizen jaio zen, 1962an. Euskal Filologian doktorea da eta irakaslea, EHUn; azken urteotan, euskararen historiaren inguruko ikasgaiak irakatsi ditu, batik bat. Koldo Mitxelenaren Orotariko Euskal Hiztegia erredaktatzeko lanetan jardun zuen bederatzi urtetan, eta Euskaltzaindian Henrike Knörren lekua betetzeko hautagaia izan zen. Euskaldun-berria da, Knörr zena moduan. Eta azkenean Patxi Uribarren aramaioarra hautatu bazuten ere, Urgellek Euskaltzaindian euskaldunberriak egotearen garrantzia azpimarratu zuen, hiru arrazoiengatik: euskal gizartearen zati handi bat ordezkatzen dutelako, euskararen etorkizuna ziurtatzeko eta galduta dagoen lurraldeetan berreskuratzeko. Umeek euskaraz hitz egin gura dezaten lortzen ez badugu, soilik ikastetxean erabiltzen badute, arazoak izango ditugula dio. Fernando Savater eta konpainiak sinatu eta bultzatutako Hizkuntza Komunaren aldeko Manifestu famoso hura barregarritzat jo du, eta gaztelera arriskuan dagoela dioenak ez dakiela zertaz ari den, gaineratu.

**"Barregarritzat jo du Hizkuntza Komunaren aldeko Manifestua"**

Patxi Lopezen Gobernuak ekar dezakeenak beldurra ematen didala aitortu beharrean nago, baina apur bat lasaitzen nau Kultura Sailburu izango denak esandakoak entzuteak. Ea ondo nabilen. Ikusiko dugu zer egiten duen.

**> Maiatzaren 5ean**
**hautatuko dute Eusko Jaurlaritzako lehendakari berria. Patxi lopez eta Juan Jose Ibarretxeren artean izango da lehia berriz ere, baina, ezustekorik ezean, sozialistak egingo du aurrera oraingoan.**

**> Izango dute lana**
**ekonomia kontuez arduratuko direnek. Egoera buelta hartzen hasi dela erakusten duten zantzuak aipatzen dituzte batzuk; atzera garamatzatenak ikusten ditut nik. Konponbidea urrun dagoela uste dut.**



LEIRE KORTABARRIA

### Krisiaren osasun-kostua salatu zuen LAB sindikatuak

Langileen osasuna "gastu" moduan ikusten dela eta krisiak hori okertzen duela salatu zuen LAB sindikatuak Oñatin. Herri hori aukeratu zuten, azken bi lan-heriotzak han izan direlako. Martitzenean, apirilak 28, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunean, egin zuten. Lurrean hildakoak errepresentatzeko lan-jantziak ipini zituzten; EAEn, dagoeneko 21 dira.

KRISIA > ARCELOR-MITTAL

# Udalbatzak babesa agertu die Arcelorreko langileei

Udala enpresarekin egongo da lantegia behin-behinekoz ixtearen harira

GOIENKARIA > BERGARA
Bergarako Udalbatzak aho batez onartu zuen astelehenean Arcelor lantegiko enpresa-batzordeak aurkeztutako mozioa. Hor, langileek eskatzen zuten, enpresako arduradunek "euren jarrera azter dezaten", udal gobernuak "egoki iritziko dion kudeaketa" egitea; Arcelor ixtearen aurkako iritzia ager zezala; eta Udalak ez ditzala lantokiaren orubeak birkalifikatu sindikatuen iritzia aintzat hartu gabe.

Bergarako alkateak erantzun zien Udal Gobernua egon dela enpresaburuekin eta berriz ere egongo dela.

Arcelorreko zuzendaritzak erabaki du Bergarako lantegia "behin-behinekoz" ixtea eta ekoizpena Zumarragakora eramatea. Arcelor Mittal enpresako zuzendaritzak Estatuko lanorduak %40 jaitsiko ditu.



zabalik

Manu Arregi

# Guriako Espe

Batek inoiz idatzi nahiko ez zuen testu horietakoa tokatzen zait idaztea gaurkoan, aurreko astean Oñatiko Guria tabernako Espe hil zitzaigun eta. Tia Espe niretzat.

Herri baten historia idazten denean pertsonaia batzuk agertzen dira, baina herri bat benetan handia egiten dutenak Espe bezalakoak dira, liburuetan ez agertu arren. Ez da Atzeko kalea inoiz bera izango. Arraroa egiten zaigu oraindik Naparrenako kantoian Margarita ez ikustea, eta arraroa egingo zaigu Atzeko kaleko edozein izkinatan Espe norbaitekin hizketan ez aurkitzea. Mundu osoa zuelako lagun Espek.

Gazteegi geratu zen alargun, baina gai izan zen bere familia aurrera ateratzeko, beti indartsu, beti umoretsu. Dena emateko zuen eta horren adierazle hiletaren ostean kontatu zidaten anekdota. Atzeko kaleko jai batzuetan titiritero batzuek non aldatu ez zutela eta, bere etxera eraman zituen. Aldatu eta margotzeaz gain, tripa ere ondo bete zuten titiriteroek eta etxetik zehar zebiltzan bandurria eta gitarra bat ere eraman zuten, Espen opari. Han joan ziren titiriteroak poz-pozik.

**"Herri bat benetan handia egiten dutenak Guria tabernako Espe bezalakoak dira"**

Zulo handia uzten du Oñatiko Ezker Abertzalean ere, plazako enkarteladan inoiz kale egiten ez zuen horietakoa zelako. Bere azken orduan hainbeste defendatu zituen presoekin ere gogoratu da, errespetuz detaile gehiago ematen ez badut ere. Ez zuen inoiz inor molestatu nahi eta horrela joan nahi zuen, bere hileta lanegun bateko goizeko bederatzietan izatea nahi zuelako. Baina askok eman nahi zioten azken agurra eta ezin bere lagun mordoei hori ukatu. Benetan hunkigarria izan zen hilkutxa elizatik irten zeneko unea. Txalo zaparrada batean zeharkatu zuen jendeak egindako pasilloa, lore petaloak kutxa gainera eta negar malkoak zahar eta gazteen aurpegietan.

Espe, agur eta ohore. Gogoan izango zaitugu.

usteak uste

Jasone Zabala

# Lehendakaria ala presidentea?

Bihar hiru eguneko zubia hasiko dugu; horren ostean demokrazian lehen aldiz gertatuko den gertakizuna Euskal Autonomia Erkidegoan: Eusko Legebiltzarrean sozialista bat lehendakari; edo agian presidentea ote?

Egia esan hori bakoitzaren gustuen araberakoa izango da. Beharbada Lopezi berari galdetu behar nola sentitzen den gusturen: Lopez lehendakari jauna edo Lopez presidente jauna deituta. Hori ikusiko dugu datorren astean.

marrazkiz

Alex Ugalde




blog-top

# Aurreskua guardia zibilari

Asier Azpilikueta
www.berria.info/blogak/azpilikueta

Omenaldi bitxia izan zen larunbatean, Iruñean. Ohiko euskal omenaldia izan zen; aurreskua, lore sorta eta hitz batzuk. Omenduaren profila, ordea, ez zen euskal omenaldietako ohikoa.

Jose Rodriguez-Medel guardia zibila omendu zuen Ahaztuak 1937-1977 elkarteak. Rodriguez-Medel Iruñeko Guardia Zibilaren komandantea zen, 1936ko uztailean, faxistak gobernu errepublikarraren kontra altxatu zirelarik. Rodriguez-Medelek ez zuen bat egin faxisten asmoekin, eta, hori dela eta, bere agintera zeuden guardia zibilek hil zuten.

Ahaztuak: "Altxamendu faxistaren aitzinean, herri borondatea ordezkatzen zuen legaltasun errepublikarra azken ondorioetaraino defenditu zuen gizon honen memoria omendu eta aldarrikatu nahi dugu".

Baina ez erran arraroa egiten ez denik. Guardia zibila zen, Espainiatik Euskal Herrira Espainiako legaltasunaren alde lan egitera etorri zena. Areago, omenaldian, bi militar ohi espainiarrek hartu zuten parte: Antonio Maira eta Jose Luis Pitarch, (Espainiako) Batasun Militar Demokratikoko kideak. Elkarte hori frankismo garaian sortu zen.

# Horrek bai atzekaldeak

Marijo Deogracias
www.goiena.net/blogak/marijo

Wayomig poz-pozik dago! Azkenean lortu du Bruni anderea bisitan etortzea. Eta, egunkari guztietako zuzendari eta editoreak zoratu egin dira! Frantzia eta Espainiako agintari nagusien bileratik aipagarriena Leti eta Bruniren ipurtaldeak dira! Gora kazetaritza informatiboa! Noizko agintari "ederrak" egunkarietako azaletan? Non daude gure begiak alaitzeko "bikote" ederrak? Ikaragarria.

koplak

Enaitz Alustiza

# AP-1 autobidea

Elkarrengana hurbildu dira
Gasteiz ta Debagoiena
Lehen ordubete behar genuen
Ta orain ordu laurdena.

Autopista horrek "Dragon
/ Kan" edo
"Montaña Rusa" dirudi
Beti lurpean edo airean
Tunel-zubi, tunel-zubi.

Nahiz zubi, tunel ta egiturak
Diren itsusi, zatarrak,
Berriz kalera irten daitezke
Gatzagako herritarrak.

Baina alde txarrak ere badaude
Dena ezin da ontzat saldu
Berriz pertsonak irabazi du
Ta ingurumenak galdu.

Zementupean desagertuak
Zelai eta baserriak
Ikusten nago, itoko gaitu
Azkartasun egarriak.

Makro-proiektu hauek
/ ugaltzen
Joango dira seguru
Gizartearen egunero
Txipa aldatzen ez badugu.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Pablo Ibarrek 15 urte daramatza AEBetan kartzelan, horietako bederatzi heriotzaren korridorean. Asteon, baina, Ibarren auzia iraul dezakeen erabakia hartu du Jeffrey R. Levenson epaileak: abokatuak lekuko anonimo baten testigantza aurkeztu dio epaileari eta lekukoak dio beste Willian Ortizek aitortu ziola bera izan zela Ibarri egozten dioten hilketa egin zuena.

**Pilare Pereda Ibar** > Pablo Ibarren familiako kidea

# "Baieztatzen bada Ortiz dela hiltzailea, Pablo epaiketa barik gera daiteke libre"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Pablo Ibarren familiak itxaropentsu hartu du epaileak Ibarren kasua errepasatzeko hartu duen erabakia. Astelehenean egindako bista judizialean kontuan izan zuen abokatuak aurkeztutako testigantza, eta onartu egin zuen susmagarri berriari DNA, hatz marka eta ile azterketak egitea. Ibarren familiako kide Pilare Pereda arrasatearrak adierazi dio GOIENKARIAri froga horiek egiteko bi hilabete beharko dituztela.**

**Jeffrey R. Levenson epaileak onartu egin du heriotzaren korridorean dagoen Pablo Ibarren kasuan susmagarri den beste preso bati, William Ortizi, DNA, hatz marka eta ile azterketak egitea. Zelan hartu duzue albiste hori?**

Poztasun handiarekin. Orain, pare bat hilabete itxaron beharko ditugu froga guztiak egin eta emaitzak ikusteko. Gainera, William Ortizek baimena eman behar du froga horiek egiteko.

**Eta baimena emango duela uste duzue?**

Baietz uste dugu, gutxi dauka-eta galtzeko. Nik dakidanez, gizon horrek bizi guztiko kartzela-zigorra dauka, eta uste dugu emango duela froga horiek egiteko baimena.

**Defentsako abokatuaren esanetan, William Ortizek beste lagun bati aitortu zion Ibarri egozten dizkioten hilketak egin zituela. Zenbaterainoko sinesgarritasuna ematen diozue lagun horrek esandakoari?**

Sinesgarritasun osoa ematen diogu, jendea ez delako horrelako saltsetan beste barik sartzen. Kontua da Pablo Ibarren aita eta emaztea AEBetako telebista saio batera joan zirela Ibarren kasuaren gainean berba egitera, eta hirugarren pertsona hori, saioa ikusita, saioko zuzendariarekin jarri zen harremanetan.

Orduan kontatu zuen lagun horrek lehenago Ortizek aitortutakoa; hau da, Ortiz zela hilketa horien egilea. Oraingo asteko albistea da epaileak onartu egin duela Ortizi probak egitea.

**Dena dela, ilusio faltsurik egitea ere ez da komeniko; izan ere, urteak daramatzazue Pablo Ibarren askatasunaren alde, eta lan horretan kolpe gogorrak jaso dituzue.**

Bai, badakigu prozesu berri hau poliki-poliki joango dela, eta kontu handiz ibili behar dugula. Baina esperantza ezin dugu galdu, eta orain egingo dituzten azterketek baieztatzen badute Ortiz dela hilketa horien egilea, Ibar epaiketarik egin barik irten ahal izango litzateke kalera.

**Hilketaren tokian jasotako hatz markak William Ortizenarekin alderatuko dituzte lehenengo, eta ondoren etorriko dira beste probak. Horrek esan gura du hatz markak Ortizenak ez badira, bertan behera utziko dituztela gainontzeko probak?**

Ez, ez, nahiz eta hatz marken probek emaitzik ez eman, gainontzeko proba guztiak egingo dizkiote Ortizi. Hilketaren unean hiltzaileak kamiseta bat utzi zuen bertan, eta kamiseta horretan DNA eta ile beltzak aurkitu zituzten, eta hori Ortizen DNA eta ilearekin ere alderatuko dute.

**Familiak eta abokatu defentsariak beti adierazi duzue Ibarren epaiketa prozesuan irregulartasun handiak izan zirela.**

Bai, orduko abokatu defentsariak onartu egin zuen ez zuela Pablo Ibar ondo defendatu, momentu hartan arazo pertsonalekin zebilelako. Horrekin batera, taldeko identifikazio-saio bat abokaturik gabe egin zuten, eta esanguratsua da hilketaren lekuan jasotako hatz markak, DNA probak eta han aurkitutako ileak ez datozela bat Pablo Ibarren ile, hatz marka eta DNAarekin.

Eta hori gutxi balitz, Ibarren emazte Taniak beti esan izan du hilketak izan ziren gauean elkarrekin zeudela, baina ez zioten utzi epaiketan adierazpenik egiten.

**Pablo Ibar errudun jotzeko proba nagusia bideokameratik hartutako kalitate oso txarreko erretratu bat da, eta, itxuraz, manipulatuta dagoena. Zelan da posible froga horrekin gizon bat heriotzaren korridorera eramatea?**

Azken batean, AEBetan horrelako kasuak itxi egin behar dituztelako, hori da-eta gizarteak eskatzen duena. Zalantzak badaude edo erruduna zarela erabat frogatuta ez badago ere, kartzelaratu egiten zaituzte, eta ondoren norbaitek frogatzen badu errugabea zarela, bada, hobeto.

**Errudun bat behar dute orduan.**

Bai, errudun bat aurkitu behar dute. Gainera, oker ez banabil, han epaileak bozketa bidez aukeratzen dituzte, eta inork ez du gura izaten epaiketak ixten ez dituen epailerik.

**Ibarrek adierazi du konfiantza handiarekin dagoela eta kosta ahala kosta askatasuna lortuko duela. Gertuago dago orain aukera hori?**

Bai, duda barik. Gainera, jaso ditugun haren azken eskutitzetan bistan dago askoz ere baikorrago dagoela.

**Urte hauetan guztietan Ibarrendako haren emaztea sostengu handia izango zen.**

Halaxe da. Kartzelan zegoela ezkondu ziren, eta baita familia izan ere. Taniak hamabost urte hauetan izan duen jarrera ikustea nahikoa da sinisteko Pablo errugabea dela.



Pilare Pereda Ibar arrasatearra, Pablo Ibarren lehengusina. GOIENKARIA

TESTIGANTZA

**"Testigu batek dio preso bati entzun ziola esaten Ibarri egozten dizkioten hilketen erantzule dela"**

BISTA JUDIZIALA

**"Epaileak preso dagoen susmagarri berriari DNA eta bestelako probak egitea onartu berri du"**

BI HILABETE

**"Bi hilabete behar dira Ortizi probak egin eta emaitzak ikusteko; itxaropenez gaude"**

# Joxe Lizaso

**Paulo Anduaga**
Oñati

Joxe Lizasoren heriotzak hunkituta utzi gaitu. Dagoeneko asko dira, eta toki askotan, gure bertsolari handi honen irudi sendoa bezain hurbila goraipatu dutenak. Eta ez zaie, ez, arrazoirik falta. Joxe Lizaso Euskal Herri osoan ezaguna, herrikoia eta herrizalea genuen; euskaltzalea, herriarekiko maitasuna bere bizitzan militantzia bihurtu zuena. Adibideak amai ezinak lirateke. Euskaldun zabala, unibertsala, esango genuke.

Joan zaigu. Baina ez bere lanak egin edo bete gabe. Bere etxean uzta ederra utzi baitu, beste bi belaunaldi, bertsolaritza tinko eutsi eta bultzatuko dutenak.

Esker ona erakutsi nahiko nioke lerro hauen bidez, duela 30 urte baino gehiago, Oñatiko Ikastolaren alde egin zituenak eskertzeko. Ikastolen ibilbidea hasi berria zen. Baina hasiera horretako pausuak dardartiak ziren, zalantzaz beteak ere bai, zenbait alorretan. Gauza bat genuen behin betiko buruan eta bihotzean sartua: euskara, euskal kultura salbatu, lozorroan zegoena esnarazi eta kalera atera.

Horretarako, Ikastolako arduradunok, Migel Galdos eta bere taldea buru zela, Oñatin, orduko Urbil taberna izandakoan, herriarentzat zerbitzu berezi bat antolatu genuen udan, opor sasoian, bide batez sortu berria zen Ikastolaren alde sos batzuk irabazteko. Taberna hartan denek parte hartu zuten, sentiberatasun kulturala zeukaten guztiak, nahiz gizakume nola emakume, egitasmoa aurrera eraman nahian. Herritar haien izenak oraindik bizi-bizi ditugu gogoan.

Taberna hartan, ilunabarretan, oso giro atsegina izaten zen, zerbitzari bezala aurpegi desberdinak, ezohikoak, edarien izenak ikasten ere nahiko lan bazutenak. Hori bai: borondatea, gainezka. Taberna hori urte batzuetan martxan egon zen. Gero, handik urte gutxitara, erakundeetan giroa aldatu zelako, arazoak beste soluzio bide batzuk hartu zituen.

Uda-aro hori amaitzean, han bertan, halako parrape batean, ekitaldiari amaiera emateko herriko jubilatuei halako omenaldi xume bat eskaintzen zitzaien. Meza ere ematen genuen. Neronek eman nuen inoiz, eta ondoren jai eder bat, *lunch* eta bertsolariekin. Hemen ere azaldu zen Joxe Lizaso. Behin, bere seme Sebastianekin. Hantxe, beraz, Joxe, bere gizatasun handia erakutsiaz eta mahaien inguruan geunden guztion irri eta gozamena sorrarazten.

Joxe Lizaso Oñatin sarri abestu zuen bertsolaria zen. Sarritan, Joxe Agirre lagun zuela. Bestetan, Imanol Lazkano ere bai. Larrain Gain elkarteak ere bere omenaldia eskaini zion. Merezitako omenaldia, inondik ere.

Joxe, askoren adiskide, askoren laguntzaile. Orain bertsorik sakonena abestu duzu, Xabier Letek Xalbadorri eskainitako poeman esan eta abestu zuen bezala.

# Jesus Garmendiari, adeitasunez

**Joxe Aranzabal**
Elorrio

Eskertzen dizkizut, Jesus, joan den astean egin zenizkidan zehaztapenak, nik jatorriz *Faroa*-n Korrikaz idatzitako artikuluaren gainean. Bertan, nire tesi nagusia da hanka sartzea iruditzen zaidala aldarrikapen politikoak sartzea Korrikan, alde batekoak zein bestekoak, zeren identifikatzen bada euskara joera politiko baten agendarekin, horrek zaildu egingo du euskararen onespen zabala.

Artikuluaren bigarren paragrafoan esan nahi nuen euskal presoek baldin badituzte hizkuntza eskubideak —eta badituzte, eskubide horiek eta beste batzuk—, berdin zituztela Inazio Uriak eta Isaias Carrascok, biak ETAk hildakoak, eta horienak ere aldarrika zitezkeela Korrikan, baina batzuena zein besteena lekuz kanpo iruditzen zitzaizkidala euskararen aldeko festan. Inondik inora ez dut esan —ez eta esan nahi izan ere— "euskal presoek ez dute(la) hizkuntza eskubiderik aldarrikatzeko zilegitasunik, ETAk eskubide hori ebaki zielako Isaias Carrasco eta Inazio Uriari", zuk ulertu duzun moduan.

Hori argituta, ados nago zurekin, diozunean "giza eskubideak denak dir(el)a errespetatu beharrekoak, bizitza eskubidetik hasita, eta denak dir(el)a defendatu eta borrokatu beharrekoak". Beharbada ez dugu ikuspegi bera erabakitzeko orduan Korrika ote den lekurik egokiena defentsa hori egiteko. Gorago esandakoagatik, nik uste dut ezetz.

Estimatzen dut zure erantzuna, Jesus, bertan izan duzun tonua, eta aukera eman izana jatorrizko mezua argitzeko. Besarkada bat.

# Arcelor-eko altzairutegia ez itxi

**Jose Ramon Kortabarria**
(Arcelor Mittal Bergara SAko Enpresa Batzordearen izenean)
Bergara

XX. mende hasieratik jardunean dagoen lantegi bati bi hanka (labea eta isurketa jarraitua) moztea erabaki dute ez dakigu zein bulegotan. Erabaki horren berri ematera etorri direnek esan digute ez daukala zentzurik hain kilometro gutxitan bi altzairutegi zabalik mantentzea, bien ekoizpena lehengo erdira etorrita dagoenean.

Guk, aldiz, ikusten dugu Bergarako lantegia oso errentagarria dela, bere jabeek azken bi urteetan 80 milioi euro garbi irabazi dutela eta halako instalazio bat ixteak sekulako arriskua dakarrela; abandonaturik gelditzen diren baserri zaharren antzera, hemengo hodiek ere, baserriko teilatua eusten duten egurrek bezala, ezin izango dutelako usteldu barik luzaroan iraun.

Hau dela-eta, zuzendaritzari Bergarako lantegiaren etorkizuna ziurtatuko duen industria-plana aurkez diezagula eskatu diogu. Oraindik gure eskakizun honek ez duenez erantzunik izan, datorren maiatzaren 8an, arratsaldeko 7etan Bergarako kaleetan manifestazioa antolatzea erabaki dugu. Bertan parte hartzera gonbidatuta zaudete bergarar guztiak.

# Untza: zerbait dago atzetik?

**Joseba Ugalde Mendieta eta Juan Ramon Garai Bengoa**
Arrasate

Joseba Ugalde eta Juan Ramon Garai, zuendako, Iturbide egoitzako udal langileendako, nahikoa ezagunak garela uste dugu, zuen lan baldintzak, aspalditik, hobetzearen alde egin dugulako. Udaletik, zinegotzi bezala, biak; baita sindikalista bezala ere.

Zuen jarrera ez dugu ulertzen. Batetik, apirilaren 7an, Iturbide egoitza uztearen berri Udalean ahoz eman zenutenean, eta gero, entzun genuenean langileen batzordekoekin ez zinetela berriz bilduko. Zer pasatu da hori erabakitzeko? Ordutik buelta asko eman diogu galdera honi, eta ez dugu erantzunik jasotzen:

- Langileak bai greban baita gero ere, zuekin ez dira sartu. Hortaz, greba egiteak ekarri du zuen haserrea? Grebara joatea langileen eskubidea da. %70eko gutxienezko zerbitzuak ez dira bete?

- Ez duzue nahi langileen eta zuen lan baldintzak, langileak ere zaretelako, hobeak izatea?

- Kanpoko enpresaren bat sartu da eszenatokian eta harremanetan zaudete?

- Edo beste arrazoiren bat dago? Guk, behintzat, ez dugu ikusten. Horrela baldin bada, erantzun bat merezi dugula uste dugu, zuen alde aspalditik izan dugun jarreragatik.

Domekan 18 egun pasa dira langileek greba bertan behera utzi zutela, eta 20 egun Iturbide egoitzako lana uztearen proposamena ahoz egin zenutela, baina guk dakigunez, zuen ustezko erabakia formalki, hau da idatziz, ez duzue udaletxean aurkeztu. Ez dakigu aurkezteko asmorik baduzuen ere. Garbi utzi nahi dugu erabaki hau ez dela bidezkoa guretako. Langileek Udalaren proposamena onartzerakoan, ez zaudete zuek ere behartuta onartzera? Ez duzue nahi lan baldintzak, zuenak barne, hobetzea?

- Soldata eta osagarrien igoera: %30,65ekoa, 2009ko urtarriletik lau igoeratan aplikatuko da.

- Gaixotasun bajetan: Errenteriako akordioa %100 aplikatzea, 2010eko urtarriletik.

- Lan arriskuen prebentzioari buruzko azterlana, langile guztientzat 2009an egingo da.

- Langile guztiek egutegi bera egingo dute 2010eko urtarriletik aurrera.

- Epe laburrean, Iturbideko Batzorde Erretkorearen bileretan parte hartuko dute langile eta senideen ordezkari bana.

Honetaz guztiaz hitz egiteko eta argitzeko bilera bat egitea proposatu dizuegu. Ez etortzeko arrazoirik ez dugu ulertzen; horregatik, karta hau publiko egitea erabaki dugu.

# Trikitixa Eguna Antzuolan

**Jabier Etxaniz**
(Debagoieneko 2009ko Trikitixa Egunaren Antolakuntza Batzordearen izenean)
Antzuola

Orain dela urtebete Antzuolako herriak Trikitixa Eguna ospatzeko lekukoa hartu zuen Oñati herriaren eskutik eta hainbat hilabetetan hor aritu gara egun hau antolatzen. Ez zen erronka makala!

Inguruko herrietako antolatzaileekin egon eta 300-400… lagun biltzen omen zelaeta, gure kezka egun honetan nola erantzun behar genuen jakitea izan zen (azpiegiturak, diru-iturriak, lanerako jendea…). Baina bai, domekan berriz ere, Antzuolako herritarrok daukagun kemena erakutsi genuen.

Uda ostean lehen bilera ofiziala egin, taldetxo bat osatu genuen eta hor aritu gara batzuk kamiseten ardurarekin, besteak boletoak, logoa, komunikabideak...; besteak musika eskolakoekin harremanak, bazkaria, beterakoekin zerbait egiteko nahia, eta abar, eta abar.

Inguruko herrietakoak etortzeko izena ematen hasi zirenean, hor hasi ziren batik bat kezka nagusienak, 200 lagun, 230, 300, azkenik 330 lagun kanpotik bazkaltzeko. Baina zer da hau! Herrian bertan musika eskolatik 17 trikitilari, gero beteranoak beste 30, trikitilarien familiakoak… hau da, guztira 500 lagun bazkarirako. Eguraldiaren aurreikuspena txarra baino okerragoa. Baina batzordekoak etsi gabe, "dena ondo aterako da!".

Trikitixa Eguna ospatu dugu eta balorazioa egin ondoren eguraldiak lagundu ez zigun arren, batzordeko kideok hunkituta sentitu gara. Zurrategiko plazan elkartu ginen guztiok, herri bakoitzak egindako ahalegina erakusten, herriko trikitilari beteranoak Balentini prestatutakoa… Izugarria izan zen eguerdiko ordu biak iritsi eta herriko frontoian elkartu ginen jende multzoa lanerako. Denok prest, gogotsu, irribarretsu bazkaltzera etortzekoak ziren 500 lagunei harrera egiteko. Eta ez zen hor amaitu; bazkaltzen eman, eta gero domekako partidutarako frontoi guztia jasota lagatzeko berriz ere jendea nola lanean aritu zen. Egunean bertan 52 lagun aritu ginen, ez da marka makala Antzuolaren tamainako herri batentzako!

Ba horixe, Trikitixa Batzordetik eskerrik asko eta zorionak Antzuolako trikitilari guztion guraso, musika eskolako guraso, herriko hainbat boluntariori, hurbildu, laguntza eskaini eta eman diguzuenoi, inguruko herrietako irakasleei, bertako irakasleari emandako babes eta aholkuengatik, beterano taldeari, udaleko teknikariei, okindegiei prestatutako karapaixoengatik, DYAri, Gaztetxeari, babesleei eta egunean bertan parte hartu duzuen herritar orori.

Berriz ere, horrelako ekitaldi baterako prest egon gaitezen herritarrok elkartu eta egun eder bat antolatzeko eta gozatzeko.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


Furia
Gogoratzen?
Zatoz kutxara.
Une egokia duzu zeure
Kutxa Aurreikuspen Planaz
pentsatzeko.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

Xabier Gesalaga | LKSko ingeniaria

# "Etxebizitza berrien mailan ipini nahi ditugu 40-80ko hamarkadakoak"

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Xabier Gesalaga LKSko ingeniari industriala da, eta parte hartzen dabil LKSk eta Mondragon Taldeak batera garatu duten Atarian zerbitzuan. Egunotan dabiltza Debagoienean zerbitzua ezagutarazten.



Xabier Gesalaga, LKSko Arrasateko egoitzaren aurrean. LEIRE KORTABARRIA

**LKS Atarian garatzen dabil, bereoneratzean espezializatutako produktu berri bat. Zergatik?**

Etxebizitzen bereoneratze osoan espezializatutako zerbitzu hori garatzen gabiltza, datozen urteotan hiriak eraikiko diren moduan aurreikusten ditugun aldaketei erantzuteko. Bereoneratze kultura berri bat etorri behar da, eraikitakoa errespetatu, mantendu eta hobetzearena. Ez du zentzurik etengabe auzo berriak egiteak, daudenen egoera eta hobekuntzaren gainean gogoeta egin gabe.

**Ze zerikusi du jasangarritasunak horrekin?**

Gure planteamenduaren funts bat da. 1979 aurretik egindako eraikinek –urte horretan egin zen Eraikinen Baldintza Termikoen lehenengo araua– ia ez dute fatxadetan eta estalduretan isolamendurik, eta beroa alperrik galtzen dute. Bereoneratutz gero, berogailuan gastatzen den %70 aurrez dezakegu. Bizilagunek berehala igarriko dute elektraindar edo gas fakturan murrizketa.

Bestalde, beti izango da jasangarriagoa eraikin bat bereoneratzea, hura bota eta beste bat eraikitzea baino.

**Zertan datza Atarian zerbitzuak?**

Bereoneratzean espezializatutako proiektu eta obra zerbitzu bat da. Etxebizitzaren elementu komunen egokitzea eskaintzen dugu, eta ekintza nagusiak dira elementu inguratzaileak berritzea eta irisgarriago egitea. Hau da, beste fatxada bat ipiniko diegu eraikinei, isolamendu maila handitzeko; ez dituztenei igogailuak ipiniko dizkiegu; eta, ahal denean, terraza eta azalera erabilgarri gehiago. Eraikin horiek gaurko estandarretara egokitu nahi ditugu, irudia aldatu, eta erosoago egin. Hitz gutxitan, 40-80 hamarkada bitartean egindako etxebizitzak gaur egungoen maila berean ipini nahi ditugu, kostu askoz murritzago baten.




ETXERIK ETXE BANATUKO DUTEN TRIPTIKOA

Eraikuntza obrek –bizilagunek ordaundutakoak baina dirulaguntzekin– lortutako onura handiagoa izango litzateke gune publikoetan ekintza txikiagoekin batera etorriko balira.

**Zein da Mondragon Taldearen papera?**

LKSk proposatu eta Mondragon Taldean garatutako Ikerketa + Garapen ekintza batetik dator Atarian. Taldeko beste kooperatiba batzuk inplikatzeko ahaleginetan gabiltza, ekintza horrek garai zail hauetan aberastasuna sor dezakeela uste baitugu.

**"Bizilagunek berehala igarriko dute elektraindar edo gas fakturan murrizketa"**

**"Etxebizitzaren elementu komunen egokitze orokorra eskaintzen dugu"**

**Ze egoeratan dago Debagoiena?**

Euskadin, 40ko eta 80ko hamarkada artean eraikitako 600.000 etxebizitza daude. Debagoienean, 17.000 bat daude, baina gehienak 60-80 hamarkada artekoak dira. Etxebizitza horiek oso isolamendu termiko eskasa dute eta hezetasun arazoak dituzte. Horrela da Elgeta edo Antzuolan; Arrasateko Makatzena, San Andres, Santa Teresa edo Santa Marina auzoetan; Aretxabaletako Bedarretako San Migelen; Eskoriatzako San Pedron; Bergarako Martokua eta Zabalotegin…

Ez eraikinak bakarrik; kasu batzuetan, horiek dauden auzoak kalteak eta populazioaren zahartze aztarnak agertzen hasi dira. Bereoneratze politikak erdiguneetan egin izan dira, baina gerraondoko auzo horiek ia ez dira egitu, eta administrazioek babestutako ekintza berritzaileen premia larria dute. Debagoienak, zorionez, Bereoneratze Elkarte bat dauka, Suradesa, eta bizilagun komunitateei aholkularitza ematen die lanak zelan egin eta dirulaguntzak zelan eskatu, azken horiek badaudelako baina askotan ez direlako aski ezagunak.

Gure kasuan, Atarian zerbitzua informazio kanpaina batekin ezagutarazi nahi dugu: informazio-orriak postontzietan banatuko ditugu, eta informazio telefonoa (**902 68 68 77**) eta webgunea (***www.atarian.es***) ditugu.

## Eraikina eta inguruneak bereoneratu

**Berria izan arren Atarian zerbitzua, dagoeneko badago egin dezakeenaren eredu bat: Gasteizen, eraikin bat goitik behera bereoneratu dute, eta, horri esker, bertan behera utzitako zaharren egoitza bat zena, gaur egun, etxebizitza bloke bat da. Fatxada eta elementu komunak egokitzeaz gain, irisgarriago egin dute eta ingurunea txukundu dute, bizi izateko hobetuz.**






Arrasate > 14-18 Bergara >19-24 Aretxabaleta > 25-26 Oñati > 27
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Leintz Gatzaga > 33






**> ARRASATE** Baserritarren hileroko azokak San Isidro egunean hasiko dira **> 14**

**> ARETXABALETA** Kirol etxe berria egiteko lehiaketa deialdia egin du Udalak **> 25**

**> OÑATI** Postetxe inguruko zirkulazioa eten egingo dute astelehenean **> 27**

**> ELGETA** Herriko jaietarako amaituko dituzte udaletxeko teilatuko lanak **> 31**

**LEINTZ GATZAGA** > ZERBITZUAK

# "Gatzagako turismo zerbitzuari bultzada handiagoa eman gura diot"

**ARDURA** Aitziber Gorosabelek jarraituko du Labidea, turismo bulegoa eta museoa kudeatzen

**TURISMOA** Bere asmoa da herriko turismoa indartzea, dagoeneko bisitariak badatoz-eta

**ZABALDU** Santa Kolunba ermitan beste harrera-gela bat ipintzeko aukera ikertzen dabil Udala

**LEIRE KORTABARRIA** > LEINTZ GATZAGA

Labidea dendak eta turismo bulego eta gatz museoak herriko bizitzari gatza eta piperra gehitzen diote, inauguratu zirenetik, orain sei urte. Gatzagarrei eta hara inguratzen diren bisitari guztiei harrera eta zerbitzua eskaintzen jardun du urte guztiotan Aitziber Gorosabel Gatzagan finkatutako arrasatearrak. Lehen bazkide bat zuen ardura hori eramateko, baina aldaketa batzuk egon dira; ondorioz, Gatzagako Udalak lehiaketara atera zuen dendaren, turismo bulegoaren eta museoaren ardura eta kudeaketa, eta Gorosabelek irabazi du. Hortaz –hasieran, datozen bi urteotan– berak jarraituko du arduradun lanetan; oraingoan, arduradun bakar gisa, baina laguntzarekin.

Gorosabelek helburuak eta ideiak dauzka kudeaketa-epe berri honetarako: "Orain arte egin dudana egiten jarraitu gura dut, baina turismoari bultzada eman gura diot", esaten du. Hortaz, aldaketak, batik bat, turismo bulegoan eta gatz museoan igarriko dira.

### ESKAINTZA ZABALAGOA

Zerbitzu horiek udal zerbitzuak direnez, aurrekontua (3.600 euro urteko) eta ardatz nagusiak ere Udalak finkatzen ditu; baina sei urteko lana eta esperientzia ez dira alferrikakoak, eta Aitziber Gorosabelek ondo baino hobeto ezagutzen ditu zerbitzuok, jendea, bisitariek zer eskatzen duten... Sei urte horietan ikusitakoak lagundu dio helburu berriak mamitzen: "Jende nahikok hartzen du alojamendua hemen; hortik bideratuta bultzatu dezakegu turismoa", esaten du. Bere esanetan, "zerbitzuan aldaketak eman daitezke; eskaintza zabalago bat posible da". Horren adibide bat jartzen du: "Udalaren asmoa da orain Santa Kolunbako ermita berritzea, eta baliteke harrera-gela berri bat jartzea han; horrela bada, gela hori ere museo-eremu barruan sartuko da eta gauza berriak eskain diezaiokegu bisitariari".

Izan ere, arduradun horren iritziz, "Gatzagan badago aukera gai asko aztertzeko". Hala, gatz museoa ardatzetako bat da, jakina, baina, hortik abiatuta, bisitari batzuek natura inguruneekiko interesa dute; Gatzagaren historia ezagutzeko aukera ere badago; Jakionen egoitza ere bisita daiteke; horrez gain, turismo bulegoan bertan gomendatzen dituzte beste leku interesgarri batzuk Gatzaga barruan: Dorletako santutegia, Bengoerreka parkea eta beste parke batzuk... eta natura ibilbideak egin daitezke, beste aukera batzuen artean. Gorosabelek esaten duen moduan, "jendeak eskatzen du zer ikusi nahi duen, eta horren araberako bisita gidatua eskaintzen saiatzen gara". Bera da ere gidaria.

### AUTOBIDEA

Eibar-Gasteiz autobideak, oraingoz, "eraginik ez" duela Labidearen eta turismo bulego zein gatz museoan, hori diosku Aitziber Gorosabelek. Izan ere, "Gatzagara datozen gehienak badakite nora eta zertara datozen", eta ez dira pasadizoan iristen. "Hemendik urte batera, ez dakit, baina oraingoz, ez digu eragiten".




**ONGI ETORRI!** Aitziber Gorosabel, gatz museo eta turismo bulegoko atean. LEIRE KORTABARRIA

## Denda, bulegoa eta museoa, oporrik hartzen ez duen ardura

Turismo bulegoa, gatz museoa baina, batik bat, Labidea denda zabaldu zenetik, orain sei urte, gauzarik garrantzitsuena "zerbitzu horiek egotea" izan da, hori argi dauka Aitziber Gorosabelek: "Herritarrok egoteko, lan egiteko, harremanerako... gune bihurtu da; zerbitzu sozial bat ere bada", diosku. Horretan ez da aldaketa handirik izango, eta herriko denda, kafetegi eta topaguneak berdin jarraituko du aste osoan zabalik –bakarrik domeka arratsaldeetan ixten dute, baina turismo bulegoak eta gatz museoak ezin dute orduan itxi, jakina.

Dudarik ez dago, beraz, lan handia duela Aitziber Gorosabelek, zerbitzu horietan lan egiten, baina azkenaldian, "herriko gazte batzuk inplikatu dira bulegoan", eta haien eta beste pertsona batzuen laguntza dauka eta izango du aurrerantzean ere.



Argazkiak erakusten du 2008ko azaroan egindako baserritarren azoka. U.M.

**MERKATARITZA** > BASERRITARREN AZOKA

# Baserritarren azoka, hilean behin Seberren

San Isidro egunean egingo dute aurreneko azoka, 09:00etan hasi eta 13:30ak bitartean

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Maiatzaren 16an, San Isidro egunean, edo bestela esanda, baserritarren zaindariaren egunean hasiko dira Arrasateko baserriko produktuen azoka berria egiten. Hortik aurrera, hileko hirugarren zapatuan (abuztuan eta abenduan kenduta) hitzordua dute baserritarrek Seberren.

Oraingoz, Arrasateko zazpi baserritarrek eman dute izena: Ikutixok, Enuzketa Aldekoak, Gorostizak, Arangurenek, Bidasorok, Etxebarrik eta Askasibarrek. Leintz Gatzagako Jakion enpresako produktuak ere ekarriko dituzte azokara, eta "ortuarako landare saltzaileren bat eta beste postu bereziren bat, ekologikoa-edo, ekartzeko kontaktuak" egiten dabiltzala ere kontatu du Marga Garmendiak, azokaren antolaketan diharduen udal teknikariak. "Lehentasuna emango diegu hemengo baserritarrei, baina ez dugu baztertu ekimena inguruko baserritarrei zabaltzeko aukera", gaineratu du.

**BASERRITARREN EKIMENEZ**

Azaroan izaten den baserritarren azoka oinarri hartuta, herriko baserritarrek eurek bultzatutako ekimena da maiatzaren 16an abiaraziko duten azoka berria. Labur esanda, "erosle potentzialen artean baserriko produktuen salmenta errazteko, promozionatzeko" helburuarekin antolatu dute, "horrek dakarren guztiarekin: produkzio sistema tradizionalak, produkzio azkarrak ez direnak, garraiatu bako produktuak, bertan bertakoak", horixe da azokaren filosofia. Horrexegatik aukeratu dute Seber Altube saltoki moduan: "Azoka kalera ateratzeak ematen dio beste presentzia, balio eta erakartasuna" baserriko produktuei, aipatu du Garmendiak.

**AURTEN ESPERIMENTUA**

Esperimentu moduan abiaraziko dute azoka aurten. "Aurten saiakera egingo dugu eta gorpuzten bada jarraitzeko asmoa dugu". Udal teknikariak kontatu du, baita ere, estreinaldi horretarako poltsa bereziak dabiltzala prestatzen Ingurumen Sailekoak: poltsa ekologikoak, berrerabilpena bultzatzeko.

**ZERBITZUAK** > OLIO-EDUKIONTZIAK

# Olio-edukiontzi gehienak arazoak ematen hasi dira

Edukiontzi horiek sei hilerako prototipoak ziren eta dagoeneko bi urte daramatzate

**U.M.** > ARRASATE

Hainbat kexu izan dira olioak batzeko edukiontziekin lotuta, edukiontzi batzuek ez dutelako behar bezala funtzionatzen eta, besteak beste, Uribarriko edukiontzia kenduta dagoelako.

Bada, kontu horren gainean argibideak eskatuta, Udaleko Ingurumen Saileko iturriek jakinarazi dute kexatu direnek "arrazoia" dutela, azken boladan olioak batzeko edukiontziak ez dabiltza-eta behar bezala.

Batetik, Inazio Zuloaga kaleko edukiontzia kateatu egiten da, nahiz eta udal langileek bi egunean behin, eta batzuetan egunero, errebisatu. Eta bestetik, Udala plazako edukiontzia otsailean eraman egin behar izan zuten, apurtuta zegoelako.

Horren harira, udal iturriek azpimarratu dute laster ekarriko dutela berria.

Horrez gain, beste gune batzuetako edukiontzi gehienek arazoak ematen dituztela ere onartu dute. Arrazoia ere argitu dute: edukiontzi horiek prototipoak dira eta, berez, sei hilabetean erabiltzeko egindakoak. Baina dagoeneko bi urte badira Arrasaten edukiontzi horiek ipini zituztela.

Kontuak kontu, Udaletik azpimarratu dute etxeko olioa batzen segituko dutela. Oraingoz, dauden edukiontziak erabilita. Beraz, herritarrei pazientzia eskatu gura diete. Horrez gainera, poteak ondo zaintzeko ere eskatu dute, Udalean gutxi geratzen zaizkielako.




Inazio Zuloagako edukiontzia sarri trabatzen da. U.M.

**JAIAK** > SAN ANDRES AUZOA

# Langileen Egunaren harira, San Andresko jaiak asteburuan

Gaztetxoendako eta erretiratuendako ekimen bereziak antolatu dituzte; poker txapelketa ere jokatuko dute

**U.M.** > ARRASATE

Denetik apur bat. Horixe da San Andresko alkatetzak jaietarako prestatu duena, auzoko 3.060 bizilagunei eta, jakina, inguruko guztiei zuzenduta. Gaur, eguena, hasiko dituzte jaiak, domekara arte. Eta egunik egun begiratu eta zerbait nabarmentzekotan, adibidez, bihar, auzoko nagusiendako bazkaria egingo dute, 13:30ean, Corazon de Encina elkartean. 80 urtetik gorako 47 pertsonak eman du izena eta azpimarragarria da tartean izango dela 101 urte dituen Marina Sanchez amama.

Eta bihar, berriz, gaztetxoen artean horrenbesteko arrakasta duten Gorritiren animaliak izango dira San Andresen.

**GAZTETXOENDAKOA, BETE-BETETA**

Bestalde, gaztetxoendako egitarau zabala prestatu dute egunero. Esaterako, haur parkea egingo dute bihar eta etzi Bedoñaben; jolas tailerrak, balance-bike zirkuitua eta hankapaluak bihar, eta goiz eta arratsaldeko ekimenak etzi. Hori guztia, Txatxilipurdi elkartearen eskutik.

**BESTE ZENBAIT EKIMEN**

> Txistulariak faltan, Bilboko gaitarien doinuek alaituko dituzte San Andresko kaleak.

> Texas Holdem Poker I. Txapelketa jokatuko dute Urmay kafetegian, bihar, 16:00etan.

> Zapatuko auzo bazkarirako 120k eman dute izena. 14:30ean da.

> Txikitxu taldeak dantza saioa egingo du bihar, 18:30ean.

arbolapeta
arrasate
beinke

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Monte
taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

PUB HAIZEA


**OSASUNA** > ELIKADURA

# "Kontua ez da litxarreriarik ez jatea, baina kantitatea zaindu behar da"

Arantxa Hernandezek bi berbaldi egin zituen martitzenean Arizmendin, litxarrerien gainean

Litxarreriek dituzten osagaien eta sortzen dituzten gaixotasunen gainean egin zuen berba bergararrak

**X.U./ARRASATE IRRATIA** > ARRASATE
Arantxa Hernandez mediku eta Lanbide Heziketako irakasle bergararrak bi berbaldi egin zituen martitzenean Arizmendin, elikadura programaren barruan. Berbaldiok, baina, ez ziren bakarrik ikastolako ikasleei zuzendutakoak izan, baita guraso edota edozein herritarri zuzendutakoa ere: "Berbaldion helburua izan da litxarreriak bertatik bertara aztertu ahal izatea".

Horretarako, mahai gainean hainbat litxarreria pakete izan zituzten: "Aztertu genuen zenbat kaloria dituzten, zenbat karbohidrato, zenbat gatz... Horrekin batera, ordezko litxarreria batzuk ere proposatu genituen, osasunarendako horren kaltegarriak ez direnak, eta baita hainbat gomendio eman ere".


Kolore, zapore eta forma guztietako litxarreriak daude. GOIENKARIA

### LITXARRERIAK JATEA EZ DA ONA
Litxarreriak jatea ez da ona, hori da kontuan izan behar dugun lehenengo gauza. Eta kaltegarriak direla onartuta, jaten dugun kantitatea gehiago zaindu beharko genukeela aitortu zuen Hernandezek: "Orain arte litxarreriak loditasunarekin lotu izan ditugu, horraino egiten zuten kalte. Baina horren gainean azterketa mordoa egin dira, eta emaitzek diote litxarreriak minbiziarekin, bihotzeko arazoekin, alergiekin, asmarekin, agresibitatearekin, hiperaktibitatearekin... lotu behar ditugula. Azken bi gaitz horiei dagokienez, nagusien artean ez dago frogatuta litxarreria asko jateak agresibitaterik sor dezakeenik, baina umeen artean bai, eta baita hiperaktibitatea ere".


Arantxa Hernandez. GOIENKARIA

ESANAK

**"Azken urteotan litxarrerien kontsumoa %600 igo da: lehen, domeketan jaten genituen eta orain, egunero"**

**Arantxa Hernandez** > Medikua

Ondorio latzak dira horiek, kontuan hartzeko moduko gaixotasunak: "Kantitatea da zaindu beharrekoa, kontua ez da litxarreriarik ez jatea, guk ere txikitan jaten genituelako. Baina ohiturak aldatu egin dira, eta azken 20 urteotan litxarrerien kontsumoak %600 egin du gora: lehen, domeketan jaten genituen litxarreriak, baina orain, haurrak egunero sartzen dira gozoki dendetara, eta sekulako poltsekin irteten dira. Hori da zaindu beharrekoa".

### SARI MODUAN ERABILTZEN DA
Litxarreriak jateko ohitura oso hedatua dago, neurri handian gaztetatik sari moduan jaso izan ditugulako: "Gurasoei esango nieke badaudela seme-alabak saritzeko beste modu batzuk; esaterako, besarkada bat eman, zerbait ondo egin duela esan, liburuxkaren bat opari egin, eta noizbehinka litxarreriak ere erabili ahal ditugu, baina noizbehinka".

Askotan, baina, haurrak geldi eta formal egon daitezen zuzen jotzen dugu litxarrerietara, eta hori da egin behar ez duguna. Horrekin esan gura dut nagusiok konturatu behar dugula litxarreriak ez direla onak".

**PRESOAK**

## Natale Landa libre utzi zuten martitzenean

**X.U.** > ARRASATE
Martitzen iluntzean utzi zuten aske Natale Landa, 2007ko azaroaren 30a ezkero preso zegoen arrasatearra. Landa 18/98 auziaren harira espetxeratu zuten. 2007ko abenduaren 19an, Auzitegi Nazionalak 11 urteko kartzela zigorra ezarri zion.

### LANGRAITZERA
Berria jakiterakoan, lagun eta senitartekoak Arabako Langraitz espetxera gerturatu ziren, eta ondoren ongietorria egin zioten, lehenengo Gatzagan eta ondoren Seber Altuben. Han, Landak gogora ekarri zuen Frantziako eta Espainiako kartzeletan dauden 750 euskal preso politikoen egoera.



X.LLODIO

**PRESOAK** > ELKARTASUNA

## Gorka Azpitarteri elkartasuna adierazteko ekimena

**X.U.** > ARRASATE
Hilaren 18an Frantziako poliziak Ipar Katalunian atxilotu zuen Gorka Azpitarte, eta haren lagun arrasatearrak Monterronen elkartu ziren *Eutsi gogor, Gorka!* lelopean Eskoriatzakoari elkartasuna adierazteko.

Elkartasuna adieraztearekin batera, lagunek Azpitarteren atxiloketaren gainean kezka adierazi zuten; izan ere, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak salatu zuen Azpitarteren eta Jurdan Martitegiren atxiloketan poliziek bortizkeria handia erabili zutela. Atxiloketaren ondorioz Azpitartek medikuen asistentzia behar izan zuen. Aurpegian ubeldura ugari zituen eta puntuak behar izan zituen eskuin bekainean eta ezkerreko masailean.



# SAN ANDRESEKO JAIAK 2009

## ARRASATE

**Apirilak,30, eguena**
19:30 ETXAFLEROAK eta buruhandiak jaiei hasiera emateko.
22:30 DJ ARCE eta IBOK.

**Maiatzak 1, egubakoitza**
10:00 DIANA Arrasateko txistulariekin.
11:00 Gure nagusien omenez MEZA NAGUSIA.
11:00/13:00 Bedoñabe patioan HAUR PARKEA.
12:00/13:00 HARRIJASOTZAILEAK. Fausto Muguerza eta Perurenaren erakustaldia (aita-semeak).
13:30 LUNTXA/BAZKARIA 80 urtetik aurrerakoentzat Corazón de Encina elkartean trikitilariek alaituta.
17:00/18:00 GORRITI ETA BERE ANIMALIAK Cordoba y Oro plazan.
18:00/20:00 Bedoñabe patioan HAUR PARKEA.
18:00 HAURRENTZAKO TXOKOLATADA Kurtze-Txiki plazan.
18:30 Gudarien plazan Txikitxu-Arrostaitz DANTZA TALDEAREN EMANALDIA.
20:00/21:30 DANTZALDIA Lisker taldearekin.
23:30/01:30 DANTZALDIA Lisker taldearekin.

**Maiatzak 2, zapatua**
10:00 DIANA Arrasateko txistulariekin.
11:00/13:00 Bedoñabe patioan HAUR PARKEA.
11:30/13:30 TAILERRAK ETA JOKUAK (12 urte bitarteko umeentzat) .
12:30/14:00 Bilboko gaiteroekin POTEOA.
14:00HERRI BAZKARIA Gudari enparantzan Bilboko gaiteroekin alaituta.
16:00 POKER txapelketa Urmai Tabernan.
16:00/18:00 Balance bike zirkuitoa eta zankoak Hiruki Plazan.
16:30/18:30 IRAJOSI (12 urte arteko umeendako).
16:30/18:30 Bedoñabe patioan HAUR PARKEA.
18:00/19:00 TXISTORRADA Hiruki plazan.
19:30/21:00 Bilboko gaiteroekin POTEOA.
22:00 KONTZERTUA. Gudari plazan La Madriguera eta Zepo Lobero gazteen musika taldeen emanaldia.

**Maiatza 3, domeka**
10:00 DIANA Arrasateko txistulariakin.
11:30/13:30 TAILERRAK (12 urte arteko umeentzat).
16:30/18:30 PLAZALAI (12 urte arteko umeentzat).



**Kapikua** opariak eta osagarriak • **Meher** jantzi denda
**Azpilikueta** harategia • **Raos** sarraila-denda 24 ordu
**Teknoberri** informatika • **Toki-Eder** taberna • **Equs** taberna
**Rita** frutategia • **Oihal** etxerako ehungintza • **Avenida** kafetegia
**Urmai** kafetegia • **Nuevo** taberna • **Urretxu** taberna
**Ibarra** okindegia • **Itxaso** kafetegia • **Basoarte** arraindegia

**ONDO PASAU JAIETAN!**

**ANTZERKIA**

# Heriotza umorez aurkeztuko digun obra

Mamacrea antzerki taldeak 'Sar daiteke?' lana antzeztuko du Amaian domekan

**J.B.** > ARRASATE

*Sar daiteke?* antzezlanaz gozatzeko aukera izango da domekan Amaian, 19:30ean. Proposamen interesgarria da Mamacrea antzerki taldeak taulara ekarriko duena. *Clown* generoko obra horretan, Ana i Punto antzezleak keinu hizkuntzan eta umorez jorratzen ditu heriotza eta hark gure bizitzan duen eragina; gai konplexua, bizi ditugun garai arin hauetan. Hilerrian kokatzen da istorioa, eta senarra galdu berri duen emakume bat da protagonista.

**MAMACREAREN LEHEN OBRA**

Galdakaoko Mamacrea taldearen lehen obra da *Sar daiteke?* Hala ere, antzerki munduan esperientzia handikoak dira obra egin eta zuzendu duten antzerkigileak.



Arrasate Musikaleko banda, emanaldi bat egiten. ARRASATE MUSIKAL

**MUSIKA** > ARRASATE MUSIKAL

# Musika eta mendia uztartuko ditu bandak zubian zehar

Elizondoko parrokian joko dute bihar (19:30) eta gero Jaka aldean mendi ekintzak egingo dituzte

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arrasate Musikaleko bandarentzat Maiatzaren Lehena ez da jaieguna izango; kontzertua egingo dute bihar Elizondoko parrokian, 19:30ean. Arrasate Musikaleko bandaren emanaldia Elizondoko bandarekin egin den elkartruke baten ondorio da; hau da, musikak lagun egin dituen bi bandaren arteko erlazioaren emaitza.

Elizondoko banda martxoan izan zen Arrasaten, eta orain arrasatearren txanda da.

**ERREPERTORIO ZABALA**

Bandak, ohikoa duenez, programa zabala prestatu du bihar eskainiko duen emanaldirako. Denetariko doinuak entzun ahalko dira kontzertuan: Usandizagaren *Mendi-mendian* obra eta Nowak-en *Sinatra in concert* pieza, besteak beste.

**MUSIKA... ETA MENDIA**

Kontzertua ez da bandak zubirako gertatu duen plan bakarra. Ez dute kontzertu gehiagorik eskainiko, ez; irteera antolatu dute. Izan ere, musika banda batean musika ez da dena. Talde giroa oso garrantzitsua da, eta zerikusi zuzena du azken emaitzan, gainera. Hala, lagun giroa mantentzeko asmoz, irteera egingo dute Jaka aldera, han mendian ibili eta paisaiez gozatzeko.

> EMAKUME TXOKOA

### Sexualitate tailerrean izena emateko azken eguna, maiatzaren 8a

Emakume Txokoak emakumeei zuzendutako sexualitate ikastaroa antolatu du; maiatzaren 22an (16:00etatik 20:00etara) eta 23an (10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era) egingo dituzte. Izena emateko, Emakume Txokoaren egoitzara jo edo 943 79 41 39 telefonora deitu, maiatzaren 8a baino lehen. Arrasatekoek 10 euro ordaindu behar dituzte eta kanpokoek, 15 euro. Helburua norberaren gorputza hobeto ezagutzea da.

> ZINEMA

### Oscar sari gehien jaso dituen filma ikusgai Amaian, bihar eta etzi

Goi mailako zinema izango da aste bukaeran Amaia antzokian. Izan ere, aurten Oscar sari gehien jaso dituen *Slumdog millionaire* pelikula izango da ikusgai bihar (22:00) eta etzi (19:30). Danny Boylek zuzendutako filmean izen bereko –hemen, *¿Quiere ser millonario?*– telebistako lehiaketa ospetsu batean Indiako Jamal Malik izeneko gazte txiro batek egiten dituen lorpenak narratzen dira.

Gazte ikastaroak



FLAMENKOA EUSKARAZ

Askoa Etxebarrietaren eskutik
Maiatzaren 14tik ekainaren 18ra arte
Eguenetan, 18:00-20:00
Kulturaten



MUNDUKO SUKALDARITZA
(Marokoarra, Pakistandarra, Afrikarra...)

Meritxell Estanyren eskutik
Maiatzaren 13tik ekainaren 17ra arte
Eguaztenetan, 18:00-20:00
Mankomunitatean



ARGAZKIGINTZA DIGITALA

Ibai Bengoaren eskutik
Maiatzaren 11tik ekainaren 15era arte
Astelehenetan, 18:00-20:00
Kulturaten

Matrikula: 20 € / 12 € ikasle edo langabeentzat
Izena emateko: Gazte Bulegoan 943 25 20 65
www.gaztebulegoa.com

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila




Murua, Amaikak Bat taldearen kontrako partiduan; Zumaian irabazi eta gero, Mondrak Hernani hartuko du zapatuan Mojategin. GOIENKARIA

**FUTBOLA** > MONDRAKO HAUTESKUNDEAK

# Hautagairik aurkeztu ez, eta gurasoekin batzarra egingo du zuzendaritzak

Apirilaren 14a zen hauteskundeetara aurkezteko hautagaiek zuten azken eguna; oraingoz, zuzendaritzak ez du erreleburik

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Mondrako zuzendaritzan lau urte lanean egin eta gero, joan den hilean dimisioa aurkeztu zuen Jose Luis Azkarateren taldeak. Hauteskundeak deitzeko bete beharreko formalismoa da hori, baina emandako epean inork ez du hauteskundeetara azaltzeko asmorik erakutsi; Mondrak ez du berezko erreleburik.

**HURRENGO PAUSOA**

Egoera horren aurrean, orain arteko zuzendaritzako kide Ramon Azkaratek azaldu du klubak emango dituen pausoak: "Egoera zein den ikusita erabaki dugu datozen asteotan klubaren ardura har dezakeen 12-15 gurasoz osatutako taldearekin batzarra egitea. Izan ere, azken hilabeteotan hainbat zurrumurru entzun ditugu zuzendaritza hartzeko gertu zegoen jendearen gainean. Baina gero inor ez da agertu".

Egoera ez da onena, baina Azkaratek ez du alarmismorik sortu gura: "Guk argi daukagu ez dugula jarraituko, eta atzetik jende berriak etorri behar duela. Hala, gurasoekin talde polita sor daitekeela uste dugu, baina eurekin egin beharko dugu lehenengo berba. Gainera, gu hor egongo gara laguntzeko gertu".

Mondrari komeni zaio erreleboa lehenbailehen aukeratzea, besteak beste, datorren denboraldia prestatzeko: "Eskola kirola abian jartzea lorpen handia izan da guretako. Hortik aurrera, talde berriak erabakiko ditu klubaren lehentasunak".

**ZIKLISMOA**

## Iban Velasco hilabete inguru geldi egongo da

Arrasatekoak hiru saihets hautsi zituen asteburuan Errioxako Itzulian

**X.U.** >ARRASATE

Hiru saihets hautsita eta zuntz haustura batekin itzuli da Iban Velasco Errioxako Itzulitik: "Zelan erori nintzen ikusita, pozik egon naitekeela uste dut".

Eguraldiak ez zuen batere lagundu domekako lasterketan, errepide bazterrak zurituta zeudela korritu zuten-eta etapa: "Elurra ari zuen, eta labainkor zegoen dena. Gurpila zulatu eta atzean geratu nintzen aldatzen. Eta tropela harrapatzeko ahaleginean, bihurgune batean zuzen joan nintzen".

Arrasatekoak Asturiasen korritu behar zuen egunotan, baina orain hilabete egon beharko du geldi: "Espero dut maiatz amaieran berriro ere errepidera itzultzea".



Iban Velasco. GOIENKARIA

## Gipuzkoako 340 atleta lehiatu ziren domekan Mojategin

Gipuzkoako eskola arteko infantil eta alebin mailetako txapelketa egin zuten domeka goizean Mojategin, 340 parte-hartzailerekin. Arrasate eta Aretxabaletako ordezkarien artean Maria Jacak urrea eskuratu zuen 500 metroko lasterketan. Alebinetan Julen Garai eta Alba Etxeandia 4. izan ziren. 150 metroko proban, Malen Azua 8. izan zen, Maddi Garro 12.a, Aitor Beltran 6.a eta Ibai Errasti 15.a. 4 x 80 metroko lasterketan, berriz, Maria Jaca, Malen Azua, Izar Gorroñogoitia eta Maddi Garro bigarren heldu ziren helmugara. Baina kanporatuak izan ziren, lekukoa debekatutako eremuan emateagatik.




M.A.

> ZALDIBAR

### Oraingo asteburuan Zaldibarren ez dute partidurik jokatuko

Zubia dela-eta oraingo asteburuan Zaldibarren ez dute jardunaldirik jokatuko. Hala, hurrengo fasera sailkatu diren zortzi taldeek atsedena hartu eta indarberrituta ekingo diote fase berriari.

Fase berrian, Dribling, Cipris, Lasagabaster eta Abokajarro egongo dira A multzoan eta McAwen Dauen, AT Celaya, HLB 108 eta Dublin Irish Pub sailkatu dira B multzorako. Aipagarria da, esaterako, Iriztu eta Betrayer taldeak kanpoan geratu direla. Iaz, Iriztuk jokatu zituen kopako eta ligako finalak eta Betrayerrek azken urteotan ez du azken fasean hutsik egin. Bestalde, Abokajarrok eta Dublinek eman dute ezustekoa.

**UDALA** > AURREKONTUA

# Udalbatzak, gehiengoz, 30.229.452 euroko aurrekontu bateratua onartu du 2009rako

## Aurtengo aurrekontua pasa den urtekoa baino %3,7 txikiagoa izango da

## Aurtengo zorra %1,62 txikiagoa da; inbertsioetarako 5,9 milioi erabiliko dira


Errege Mintegiko elizan egingo den inbertsioa izango da aipagarriena: 2.125.000 euro. GOIENKARIA

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Astelehenean 2009rako aurrekontuak onartu zituzten osoko bilkuran: denetara, 30.229.452 euro. Aurrekontuok onartu ziren Gobernu taldearen aldeko bederatzi botoekin, EAJ eta PSE-EE alderdien kontrako zazpi botoekin eta EAko zinegotziaren abstentzioarekin.

Aurrekontua 2008koa baino 943.746 euro gutxiagokoa da (%3,7). Kopuru horretatik Udalari dagokio 26.648.411 euro; Udal Euskaltegiari, 515.939 euro; Mizpirualde zaharren egoitzari, 3.789.297 euro; eta Bihargintza SAri, 1.692.000.

Gastu arruntek, bestalde, gora egin dute 2008arekin alderatuz, batez ere pertsonalari dagokion kopuruak ere gora egin duelako, 2008an baino %9,5 gehiago. Azken horren arrazoia da, ohiko bilkuran azaldu zuten moduan, Udalerako langile gehiago kontratatu direla; besteak beste, Zabalotegiko aretorako eta zazpi udaltzain gehiago. Zorrari dagokionez, aurtengoa %10,78 da, joan den urtean baino %1,62 gutxiago.

**INBERTSIOAK**

Inbertsioetarako 5.960.470 euro erabiliko dira, 2008an baino %18,9 gutxiago. Zati handiena Errege Mintegiko elizako obra zibilarendako izango da: "Seminarioko elizan indusketa arkeologikoa egingo da eta ondoren obra zibila; hau da, teilatua, lurra eta paretak konponduko dira", adierazi digu Aitor Goitik, Ogasun batzordeburuak. Bestalde, lursailen hirigintza garapenean San Antonioko San Miguel etxe zaharrak bota egingo dira. Burdiñate, Boni Laskurain eta Matxiategiko garajeak ere konpondu egingo dituztela esan digu Goitik; hirigintzako proiektuetan Amillagako eta Martokoko proiektuak daude. Eta Zubiaurre kaleari dagokionez, aparkaleku berriak sortzeko hainbat lan egingo direla esan du.

**EAJ-REN ZEHAZTAPENAK**

Aurrekontuen bozketa egin aurretik, EAJko German Muruamendiarazek hartu zuen hitza eta adierazi zuen urteko laugarren hilabetean gaudela dagoeneko eta aurrekontuak berandu aurkeztu direla, eta saiatu behar dela urte hasieran onartzen. Gehitu zuen 2009ko aurrekontuak 2008koen "fotokopia" direla, baina ahultasunak areagotuta; hau da, gastuek gora egin dutela eta diru sarrera eta inbertsioek, berriz, behera: "8,4 milioi zeuden inbertsioetarako eta horietatik 3,5 milioi onartu dira bakarrik eta horietatik erabili dira 2,1 milioi; bestalde, hirigintzako aprobetxamendurako 0,6 milioi bildu dira, 4,6 milioi biltzea espero zenean". Horregatik guztiagatik, Muruamendiarazek aurrekontu berriak egitea eskatu zuen eta hori bozkatu zen, baina ez zen onartu: PSE-EEk eta EAJk aldeko botoa eman zuten (7 boto), Gobernu taldeak aurkakoa (bederatzi boto) eta EA, berriz, abstenitu egin zen.

Horren harira, Barruso alkateak erantzun zuen esanez 2009ko aurrekontuak konplikatuak izan direla eta lantzea kostatu egin dela, eta hortik etorri dela aurrekontuok aurkezteko atzerapena; baita ere adierazi zuen 2008ko aurrekontuetan diru irteera eta sarreren arteko oreka izan dela nagusi.

ESANAK

**"2009ko aurrekontuak 2008koen fotokopia bat dira, baina ahultasunak gehituta"**

**German Muruamendiaraz**
> EAJ-ko zinegotzia

**"2009ko aurrekontuak konplikatuak izan dira; horregatik atzerapena"**

**Agurne Barruso** > Alkatea

### Inbertsio aipagarrienak

| | |
|---|---|
| Errege Mintegiko eliza | 2.125.000 € |
| Hirigintzako lursailak | 1.000.000 € |
| Burdiñateko garajeak | 324.600 € |
| Boni Laskuraineko garajeak | 215.000 € |
| Hirigintza proiektuak | 200.000 € |
| Matxiategiko garajeak | 200.000 € |
| Baserri aldeko urak | 200.000 € |
| Ur zerbitzuko ibilgailuak | 190.000 € |
| Zubiaurreko aparkalekuak | 125.000 € |
| Mugertzako urbanizazioa | 80.000 € |

ITURRIA: BERGARAKO UDALA

---

**bere ustez**


Andres Osa 'Sakona'

## Gabilondo ministroa eta euskara

Bada Espainiako gobernuan ministro bat, Angel Gabilondo deitzen dena, euskaraz *Gabilondo Aingeru* itzultzen du. Berau Hezkuntza ministroa da eta kargu handia izanik webgunea derrepentean martxan jarri du euskaraz ere berari dagozkion albisteak plazaratzeko. Begira, jaun agurgarri honek zein tratu serioa eta zuzena ematen dion euskararen erabilerari: "Hezkuntzaren Ministroa ha inaugurado en la apirilaren 21eko, astearteko, bihar, Cristalen Pabiloian de gertatzen den la Lanbide Heziketarena Madrileko Casa del Campo ere datorren larunbatean". Eta idazki guztian zehar antzerako astakeriak ikusten dira. Ministro jauna, egon lasai!

**"Baina zer espero liteke euskara sentitzen ez duen jendearengandik? Ezer gutxi"**

Bere kideak, Gasteizen izango ditugu aurki. Patxi Lopez *Lopez patxideuna* izango da. Euskarak laguntza guztiak behar ditu salbatu nahi bada. Baina zer espero liteke euskara sentitzen ez duen jendearengandik? Ezer gutxi. Eta sentitu ordez mesprezua dionak zer egin dezake? Egurtu.

Eta beste kontutxo bat, autobusez Oñatitik San Prudentziora –Elorregi– joateko zergatik derrigorrez Arrasatetik zehar egin behar da itzulia? Noren ardura da?

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
Bergaran ere badago
Lurreko Telebista Digitala!
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

DRAGON ORIENTAL Jatetxea
Etxera
eramaten dugu
Edaria, postrea eta tabakoa eramaten dugu
Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Inguruetara + 2 €
943 25 06 77
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

**GAZTEAK** > TOPAKETAK

# Gazte Topaketan parte hartzeko dei egiten diete gazteei

Maiatzaren 16an izango da eta 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udaleko Gazteria Sailak Gazte Topaketa antolatu du maiatzaren 16rako. 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago eta egun osoko jardunaldia izango da.

Udalak egitarau zabala prestatu du eta gazteek 6-8 laguneko taldeetan hartuko dute parte egun horretarako prestatutako joko, jolas eta probetan.

Lehiaketetan moduan, puntuazioa egongo da, eta, eguna bukatzean, puntu gehien dituen taldeak saria jasoko du. Hain justu, eguneko proba guztiek, bazkariak barne, izango dute puntuazioa eta gehien jasotzen dituen taldeak multiabentura parke batera irteera irabaziko du. Irteera hori uztailaren 22an izango da.

**EGITARAU ZABALA**

Askotariko ekintzak egingo dituzte gazteek egun horretan. 11:00etatik 13:00etara herri kirolak egingo dituzte eta gero, bazkaria izango da. Udalak jarriko ditu mahaiak, aulkiak eta sua eta gazteek paella prestatu beharko dute bazkaltzeko. 17:00etatik 19:00etara, jolasak egongo dira.

Izenematea da maiatzaren 8ra arte, kultura etxean (943 77 91 59) eta *ekorta@bergara.net* helbidean.

Iaz ere egin ziren topaketak, apirileko egubakoitzetan baina gazteek hala eskatuta egun bakar batean egingo da aurten.

DATUA

**13-17**

**URTE ARTEKO GAZTEAK**

Adin tarte horretako gazteei zuzenduta dago Gazte Topaketa. Hain justu, gaztetxo horien aisialdia bultzatzeko Udalaren ekimena da eta iaz antolatu zuen lehenengoz.

**HIRIGINTZA**

# PSE-EEk dio kaleko lanak ez direla kontrolatzen

**M.B.** > BERGARA

Kaleetako birgaitze lanen udal kudeaketa "nahasteborrastetzat" jo eta salatu egin du PSE-EE alderdiak. Alderdi horrek uste du lan ziurtagirien gaineko kontrola eta lanen gaineko bermeak mantentzeko interes "txikia" duela Udal Gobernuak.

Horren oinarri hainbat adibide eman dituzte, Artekale eta San Pedro kaleetan galtzada-harriak jartzeko egindako lanak, esaterako: "Artekaleko lanak amaitu eta hiru hilabetera hainbat lekutan apurtu zen kalea". San Pedro kaleko lanen gainean zera esan dute: "Lanak bukatu bezain laster, kalea hondoratu egiten zela ikusi zuten udal arduradunek. Ondorioz, itxi egin zuten kalea, konpontzeko. Dena den, Udalak jakinarazi ez zuena da enpresa eraikitzaileak ez zuela material nahikorik konponketarako, eta horregatik, Komenio kaleko galtzada-harrietako batzuk kendu zituztela San Pedron jartzeko".

## oharrak

HITZALDIA

**> Euskararen jatorriaren gaineko hitzaldia, Josu Naberanekin**

*Euskararen jatorria eta sustraiak* delako hitzaldia egingo du maiatzaren 7an, 19:30ean, kultura etxean. Jardun elkarteak antolatu du.

OLINPIADAK

**> Gazteendako olinpiadetarako izenematea zabaldu dute**

LHko ikasleendako dira olinpiadok eta Jardunek antolatu ditu. Izenematea gaur, eguena, bukatuko da.

KINTADA

**> 1949an jaiotakoek kinto-bazkaria egingo dute**

Maiatzaren 23an izango da, Lasan. Izena emateko azken eguna da maiatzaren 19a. Horretarako, deitu: 650 85 38 57 (Iñaki) eta 605 72 11 35 (Izaskun).

HITZALDIA

**> Erretiroaren gaineko hitzaldia Miguel Altunan**

*Jubilatzea bizitzea da, ez hiltzea* delako hitzaldia egingo du maiatzaren 6an Aitziber Gine Muxikak. Miguel Altunan izango da, 18:30ean. Bizikasi eta Nagusilanek antolatu dute.

DEIALDIA

**> Bergara Igeri Elkarteak igeriketa entrenatzailea behar du**

2009-10 denboraldirako eta hurrengoetarako behar du. Interesatuok bidali curriculuma *bergara@igeri.net* helbidera edo Bergarako 224 posta-kutxara.

> JAIAK

### Auzoko jaiak ospatuko dituzte Labegaraietan bihar, maiatzak 1

10:00etan hasiko dira, Udal Txistulari Bandaren dianarekin. 11:00etan, meza nagusia izango da, San Joxepeko abesbatzak abestuta. Gero, txorizoa eta salda banatuko dute eta 16:30ean, 47. txirrindulari lasterketa jokatuko da. 18:00etan, txokolatea banatuko dute kiroldegian.

> OSPAKIZUNA

### Irukurutzeta Eguna ospatuko dute domekan, maiatzak 3

Irukurutzeta Eguna izango da domekan, maiatzak 3. Hori horrela, ospakizuna izango da mendi horretan, azken urteetan moduan. 11:00etan salda eta txorizoa banatuko dute Irukurutzeta gainean. Eguraldi txarra egiten badu, Atseden Txaboletan banatuko dute.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Paper pintatuak
Moketa eta sintasola
Harea zorrotada
Iztuku esponjatua
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

**ANTZERKIA** > MAIATZAREN 1EAN

# Glu-Glu taldearen 'Marika de playa' antzezlana egubakoitzean Zabalotegin

## Patxi Perez ('Mi querido Klikowski') eta Mila Espiga dira antzezlaneko protagonistak

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Bihar, egubakoitza, *Marika de playa* antzezlana ikusteko aukera izango da Zabalotegi aretoan, 22:30ean. Patxi Perez aktore ezaguna (Legaleon antzerki taldean ibilitakoa edo Euskal Telebistako *Mi querido Klikowski* telesaileko protagonistetako bat) dugu Glu-Glu talderen produkzio berri honen egilea eta protagonista. Ondoen komedian moldatzen da Patxi Perez eta oraingoan ere ikusleen barrea eragitea du helburu: berrogei urteak beteta izanda, krisiak jota dagoen Victor izeneko pertsonaiaren (Perez bera) estualdiak aurkeztuko dizkigute. Adinak eragindako krisian, bikotearen krisia, nortasun krisian murgilduko da Victor; horrenbeste zalantza artean, bakardadetik ihes egin eta bere desioak lortzeko irtenbidearen bila ibiliko da hondartzan. Eta Marta (Mila Espiga aktorea) aurkituko du hantxe, ihesean dabilen eta eguzkia lasai hartzen utz diezaioten besterik nahi ez duen emakumea.

Ana Perez da laneko zuzendaria eta, besteak beste, Edu Muruamendiaraz koreografo bergararraren laguntza izan dute. Joan den martxoaren 12an estreinatu zuen Glu-Gluk lan berria, Barakaldon. Biharko emanaldirako sarrerak 5 eurotan jarriko dituzte salgai.


Patxi Lopez eta Mila Espiga. GLU-GLU

> JAIAK

### Erraldoiei izena jartzeko lehiaketa deitu dute

Udaleko Kultura Zerbitzuak erraldoiei izena jartzeko lehiaketa deitu du. Izenak proposatzerako orduan kontuan hartu beharko da erraldoi bakoitzaren izaera.Bergaran erroldatutako edonork hartu ahal izango du parte lehiaketan. Izenik egokienak proposatzen dituenak, erraldoien bikote bakoitzeko, 150 euroko saria jasoko du. Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 18ra arte izango da zabalik.

Argibide gehiago kultura etxean, 943 77 91 58 telefono zenbakianjaso ditzakete interesatuek.


Erretiratuen abesbatza Laberagaraietan izango da bihar. SAN JOXEPE

**JAIAK** > LABEGARAIETA

# Maiatzaren 1a ospatzeko ekitaldiak Labegaraietan

**E.M.** > BERGARA

Bihar, egubakoitza, hainbat ekitaldi izango dira Labegaraietan maiatzaren 1a ospatzeko. Garai baten hainbat egunez antolatzen zituzten ekitaldiak Labegaraietan, baina egun bakar batera mugatzen dira ospakizunak gaur. Egubakoitzean, txapliguen jaurtiketa egingo dute 10:00etan eta jarraian Udal Txistulari Bandarekin diana izango da. Ondoren, 11:00etan meza nagusia izango da Labegaraietako elizan, eta bertan hartuko du parte San Joxepeko abesbatzak. Mezan abestu ondoren, hainbat kantu herrikoi eskainiko dituzte erretiratuek. Orain gutxi Brionesera, Errioxara, egin zuten irteera abesbatzako kideek eta bihar Bergaran entzuteko aukera izango dugu.

Kontzertuaren ostean, salda eta txorizoa banatuko dituzte Labegaraietan. Arratsalderako, 16:30erako, Txirrindulari lasterketa iragarri dago. Lasterketaren 47. ekitaldia izango da. Bukatzeko. 18:00etan txokolate jana izango da kiroldegian.

# Gazte literatura lehiaketako saridunak

Liburuaren Egunaren harira, gazte literatura lehiaketa deitu zuen Udal Liburutegiak eta zozketan hauek izan genituen saridunak, ikasle bana ikastetxe bakoitzeko: Asier Lakuntza (Aranzadi), Itxaso Alberdi (Mariaren Lagundia) eta Mariñe Jauregi (San Martin). 80 ikasle inguruk hartu zuten parte eta saridunek astelehenean jaso zituzten beraien sariak. 60 euroko bonoa Elkarren gastatzeko.


MONIKA BELASTEGI

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro,9-Telefono,761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

**SASKIBALOIA** > IGOERA FASEA

# Igoera lortuta, lehen tokian bukatu nahi dute saskibaloikoek

Zapatuan, hilaren 2an, sailkapenean bigarren den Beasainen aurka jokatuko dute Labegaraietan


Bergarako saskibaloi taldeko jokalaria jaurtiketa egiten defentsaren aurrean. ARTXIBOA

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA
Bergarako senior mailako saskibaloi taldekoek lehen mailarako igoera lortu dute matematikoki. Igoera fasea bukatzeko hiru jardunaldi falta zaizkie, eta hurrengo helburua txapeldun izatea da. "Hiru talde igotzen dira lehen mailara, eta laugarrenak ez dauka aukerarik. Denboraldi ona egin dugu, baina borobiltzeko lehen tokian bukatu nahi dugu. Horixe da hurrengo helburua", esan digu taldeko entrenatzaile Unai Iñarrak.

**SAILKAPENEKO BIGARRENAREKIN**
Txapeldun izateko helburua betetzeko sailkapeneko bigarren tokian dagoen Beasainen kontra jokatuko dute zapatuan. "Partidu guztien antzera, oso gogorra izango da, eurek ere lehen tokian sailkatzeko aukerak dituztelako. Baina nahiko lasai gaude, euren kontra jokatutako partidu guztiak irabazi ditugu-eta". Partidua Labegaraietan izango da, 19:00etan.

Zapatuan huts egiten badute, beste bi lehia izango dituzte lehen tokian bukatzeko: maiatzaren 9an Legazpin eta maiatzaren 16an Atco. San Sebastianen kontra.

**TALDE GAZTEA**
Bergarako saskibaloi taldearen helburuak aldatzen joan dira denboraldiak aurrera egin ahala. "Denboraldi hasieran taldearen maila nolako zen ikusi nahi nuen. Joko ona eginez partidu asko irabazi genituen eta igoera faserako sailkatu ginen. Azken fasean sartu ondoren lehen mailara igotzeko aukerak genituela ikusi genuen, eta helburua lortu dugu", esan digu Iñarrak.

Talde gaztea dute bergararrek (guztiak 27 urtetik beherakoak dira). Defentsan eta errebotean lan ona egin dute. Denboraldi hasieran fitxatutako hiru jokalariekin indartu egin dute barruko jokoa.

> ARETO FUTBOLA

### Jardunaldi barik Labegaraietako txapelketan

Labegaraietako areto futbol txapelketak atseden hartuko du maiatzeko zubian: ez dute jardunaldirik egingo. Hurrengoa, beraz, maiatzaren 9an eta 10ean egingo dute. Gainera, denboraldiko azken jardunaldia izango da. Ezer gutxi egongo da jokoan azken partiduetan. Izan ere, Akabaoak taldea txapeldun da dagoeneko. Dena den, areto futbol txapelketan parte hartutakoek *lunch*-a egingo dute azken jardunaldiaren ondoren.

> ESKUBALOIA

### Kopako partidu guztiak irabazi ditu eskubaloi taldeak

Soraluze BKE eskubaloi taldeak kopa txapelketan jokatutako hiru partiduak irabazi ditu. Lehia guztietan erakutsi dute mahoneroek eraso azkarra dutela, batez beste 40 gol egin dituzte-eta. Josetxo Muniategiren taldea sailkapeneko lehen tokian dago, sei punturekin. Maiatzeko zubian ez dute jardunaldirik jokatuko. Liga maiatzaren 10ean hasiko da berriro ere, baina Bergarako taldeak atseden hartuko du.

## Bergarako futbol taldeko kideak GOITBn

Zapatuko ospakizunen ondoren, Bergara futbol taldeko ordezkariak egon ziren astelehenean Goiena Telebistako *Harmailatik* saioan. Hain zuzen ere, taldeko entrenatzaile Manu Diaz eta jokalari Joseba Agirrezabal egon ziren. Ospakizunez eta liga bukatzeko geratzen diren partiduetarako dituzten helburuez egin zuten berba. "Txapelketako azken hiru partiduak eta finala irabazi nahi ditugu", esan zuen Diazek.


XABI URTZELAI

**TXIRRINDULARITZA** > LABEGARAIETA SARIA

## Kadete mailakoendako txirrindulari proba bihar

Labegaraietan hasita 70 kilometroko ibilbidea egingo dute ibarreko errepideetan

**M.B.** > BERGARA
Lokatzak antolatutako lehenengo eta bigarren mailetako kadeteendako lasterketa egingo dute bihar, egubakoitza, 16:30ean. Labegaraietan hartuko dute irteera eta Osintxurantz egingo dute. Elorregin Oñati aldera hartuko dute, eta handik Bergarara itzuliko dira. Osintxutik Antzuolara igoko dira Labegaraietako helmugara heldu aurretik.

**LOKATZAKO ZIKLISTAK**
Guztira, 70 kilometro egingo dituzte. Antolatzaileek 70 bat ziklista espero dituzte, tartean Lokatzako txirrindulariak: Mikel Aristi, Eneko Lizarralde, Odei Orobengoa, Jokin Etxabe, Beñat Etxabe, Andoni Lasa, Asier Taboada, Xabier Gallastegi eta Andoni Rico.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA
Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918


Ipintza
Institutua
Boni Laskurain 17-19
Tel./Faxa: 943 76 31 42
e-posta: 012981aa@hezkuntza.net
www.goieskola.net/ipintza
Ipintza Institutua
"EZ galdu gure Trena!!!"
TXARTEL BAKARRA
0, EURO
San Martin Agirre
Ipintza
Helduen Eskola
Haurreskola
San Martin Agirre
Miguel Altuna
Matrikulazioa epea: maiatzaren 4tik 8ra
Bilera informatiboa: maiatzaren 5ean 18:30ean.
euskera
kalitatea
konpromisoa
etorkizuna
Matrikulazioa epea maiatzaren 4tik 8ra
Bilera informatiboa:
maiatzaren 5ean 18:30ean.
IPINTZA
Bigarren Hezkuntzako Institutua
URKAN S.L.

## Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida



**KULTURA** > ARKUPEKO MAIATZEKO EGITARAUA

# Erretiratuendako hitzaldiak eta umeendako ikuskizunak Arkupen

Bihartik maiatzaren 16ra bitartean Mauro Calvoren erakusketa izango da: 'Toda una vida siendo niños', gerra sasoiko argazkiak eta dokumentuak


*Toda una vida siendo niños* erakusketaren berri ematen duen irudia. KULTURA SAILA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Astean banatu du Kultura Sailak maiatzean Arkupe kultura etxean izango diren hitzorduen berri. Erretiratuei eskainitako berbaldiak eta haurrendako ikuskizunak izango dira nagusi. Film emanaldirik, ostera, ez da izango datozen hilabeteotan, urrira arte bukatutzat eman dutelako film komertzialei dagokien denboraldia. Hala ere, zinema izango dela aurreratu dute Kultura Saileko arduradunek.

**ERRETIRATUAK ETA UMEAK**
Bihar, maiatzak 1, hasi eta hilaren 16ra bitartean Espainiako gerran ume izan zirenak omentzea helburu duen erakusketa egongo da ikusgai. Mauro Calvok antolatutako *Toda una vida siendo niños* izeneko erakusketa jarriko dute gerra sasoiko argazkiekin eta dokumentuekin. Frantzia, Ingalaterra, Errusia eta beste hainbat herrialdetara itsasontzietan joan behar izan zuten euskal umeak gogoan izan gura dituzte.

Erretiratuak izango dira protagonista maiatzean eta lehen zinema izaten zuten egun eta orduan, hau da, astelehenetan (16:00) berbaldiak izango dituzte orain. Erretiratuendako benetan interesgarriak diren gaiak landuko dituzte lau astelehenetan: hilaren 4an, *Parkinson y sociedad,* Aspargi taldearen eskutik; hilaren 11n, *Salud a partir de los 55 años,* El Taller taldearekin; hilaren 18an, *Prevención de riesgos en el hogar,* Spril elkarteak gidatuta; eta 25ean, *En qué ocupo mi tiempo libre después de jubilarme*, El Taller-ekin.

Umeei dagokienean hiru ikuskizun izango dituzte: domekan, maiatzak 3, Pro-Ismo Zero talde arabarrak *Ti-3* txotxongilo ikuskizuna eskainiko die (17:00); 9an, Begira taldeak *Liburu batean* eskainiko du liburutegian (11:30) eta 30ean, Ixabel Milletek *Kamishibai* ipuin kontaketa saioa egingo du liburutegian (11:30).

Leizarra musika eskolakoek ere hainbat emanaldi egingo dituzte: martitzenean, hilak 5, trikitia eta panderoa (18:00); hilaren 26an, perkusioa eta gitarra (18:30); eta 31n, Donostiako Ereski abesbatzaren saioa (19:30).

**LIBURUAREN AURKEZPENA**
Ikus-entzunezkoak ere izango dira maiatzean: 7an, Eneko eta Miyuki gasteiztarrek *Bertakoaren munduaren topaketak Hego Ameriketan* izango dute berbagai (19:30); eta 14an, Endika Uriondok *Descensos de barrancos, Sierra de Guara* (19:30). Bestalde, maiatzaren 19an eskola kirolaren gaineko hitzaldia egingo dute: *Eskola kirola-Kirol hastapena* (18:00). Eta maiatzaren 28an, Txalo antzerki taldeak *Ate joka* antzezlana ekarriko du Zaraia aretora, debalde.

Maiatzaren 16an, zapatua, liburu bat aurkeztuko dute: Jose Maria del Palacio Alonso eta Candido Ruiz Gonzalezen *Matando sueños, sembrando miedos. Morales de Toro, 1936…*

**HIRIGINTZA** > LEHIAKETA DEIA

# Kirol etxe berria egiteko lehiaketa deia egin du Udalak

Maiatzaren 28a bitartean aurkeztu behar dituzte eskaintzak enpresa eraikitzaileek; langabeak hartzen dituztenek puntuak irabaziko dituzte


Kirol etxe berria egiten hasteko gertu dago orubea. M.A.

**M.A.** > ARETXABALETA
Martxoaren 30ean egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak kirol etxearen proiektua eta lehiaketa oinarriak. Joan zen eguenean, apirilaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hain zuzen, argitaratu zuen lehiaketa deialdia, enpresa eraikitzaileek eskaintzak aurkez ditzaten.

Hilabeteko epea izango dute enpresek eskaintzak aurkezteko udaletxeko idazkaritzan, maiatzaren 28a arte. Zein dokumentu aurkeztu behar dituzten pleguetan daukate zehaztuta eta horiek lortzeko Basabe poligonoan dagoen Atai kopistegira jo behar dute interesatuek. Udalaren webgunean –*www.aretxabaleta.com*– ere jarri dituzte argibideak: oinarri teknikoak, kirol etxearen planoak eta administrazioko oinarriak.

Udalak egin duen eskaintza ia 14 milioi eurokoa da eta hori hobetu beharko dute enpresek. Gainera, kirol etxea eraikitzeko langabeak hartzen dituztenek puntu gehiago izango dute, 5 puntu langabe bakoitzeko, gehienez ere 20 puntu eskuratzeko aukerarekin. Lanok ekain inguruan esleituko dituzte, uztail hasieran hasteko eraikitzen. Behin hasita, 24 hilabeteko epea ezarri du Udalak bukatzeko.

DATUA

**14**

**MILIOI EURO**

Ia 14 milioi euroko aurrekontua du kirol etxeak, 13.877.845 eurokoa hain zuzen. Prezio hori hobetu beharko dute lehiaketara aurkeztutako enpresa eraikitzaileek.

**MITARTEKO LANAK, ASTELEHENEAN**
Kirol etxeko lanak ez, baina Mitarte kalekoak hastear daude. Astelehenean, maiatzak 4, hain zuzen, hasiko dituzte Eroski denda parean. Saneamendu hodiak, hau da, urez hornitzen duten hodiak eta ur zikinak jasotzen dituztenak aldatuko dituzte kale guztian. Lan horiek aprobetxatuta itxura berria emango diote kaleari, hala, bertako komertzioa biziberritzeko. Lanon aurrekontua 793.916 eurokoa da eta Espainiako Gobernuak hitzemandako dirulaguntzaren bitartez ordainduko dute. Zazpi hilabetean egin beharko dituzte lanok, hortaz, urtea bukatu baino lehen amaituta egon beharko dute.

Lanok egin bitartean Mitarte kaleko autoen zirkulazioa desbideratu egingo dute. Geltoki plazatik bideratzeko asmoa dute udaltzainek eta horretarako norabidea aldatuko diote Basabe bideari; Geltoki plazatik Durana kalera egingo dute autoek.

## oharrak

IKASTAROA
**> Cous-cous ikastarorako izena eman daiteke Iesbaan**
Iesbaa elkarteak Saharareen aldeko cous-cous ikastaroa egingo du maiatzaren 9an Izena eman behar da 626 63 91 64 zenbakira deituta –mezua utzi erantzungailuan– edo mezu bat bidalita: *iesbaa@gmail.com*. Ez badu inork aurrez izena ematen ez dute egingo.

IKASTAROA
**> Bitxigintza ikastarorako izenemate epea zabalik**
Gazteria Sailak bitxigintza ikastaroa antolatu du maiatzeko eguaztenetan egiteko (18:00-20:00): feltroa, fimoa, artile kardatua eta swaroski kristalak erabilita bitxiak zelan egin. Izenemate epea zabalik dago eta Arkupeko harreran (943 08 10 01) edo Gazteria Zerbitzuan egin behar da: *gazteria@aretxabaleta.net*. Azken eguna maiatzaren 4a da eta 10 euro ordaindu behar dira.

DANTZA
**> Dantza libre saioa**
Jaiki elkarteak hilabetean behin egiten duen dantza libre saioa maiatzaren 14an izango da, eguena, kuartel zaharrean (18:00-20:30). Izena emateko deitu 669 05 80 33 zenbakira edo mezu bat bidali: *jaikielkartea@yahoo.es*. 8 euro da saio bakoitza.

**ZIRKULAZIOA** > SEINALEAK

# Seinaleak jarri dituzte kaleetan eta auzoetan

Batzuek auzo eta leku esanguratsuetara nondik jo esaten dute; beste batzuek eraikina zein den zehazten dute



Urkulura eta beste leku esanguratsu batzuetara nondik jo dioen seinalea. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Herriko kaleetan seinaleak jartzen ibili dira azken asteotan. Bi eratako seinaleak jarri dituzte: batzuek Urkulu urtegira, auzoetara eta beste hainbat tokitara nondik jo bideratzen dute; eta besteek tokia zehazten dute: hau da, Arratabe jauregia edo Andre Mariaren Jasokundeko parrokia dela aurrean dagoen eraikina.

**URKULURA, GALDU BARIK**
Eusko Jaurlaritzak gomendatutakoak dira turismo alorreko seinale horiek eta 27.152 euroko aurrekontua izan dute –jartzea barne–. Martin Garai udaltzainburuaren esanetan, hemendik aurrera Urkulu ezagutzera datozenak galdu barik joan ahal izango dira bertaraino. Gainera, non aparka daitezkeen autoak ere zehaztu dute –Bainuetxeko industrialdean–, gero bidegorritik gora oinez joateko.

Iazko martxoa eta uztaila bitartean herriko baserri guztiei jarri zizkieten izenak eta orain herri barruan eta auzoetan jarri dituzte seinaleok. Horrekin bukatutzat eman du Udalak seinaleztapen prozesua.

**INTERNET**

# Ikastaroa KZgunean, erakundeekin lan egiteko

**M.A.** > ARETXABALETA
Astelehenean hasi eta maiatza bukatu bitartean goizez egongo da zabalik KZgunea (09:00-13:00). Hainbat ikastaro egingo dituzte eta IT txartela eskuratzeko azterketak ere bai: hilaren 14an, 15ean, 18an, 20an eta 26an.

**ERAKUNDEEKIN LANEAN**
Administrazio elektronikoaren gaineko ikastaro bi egingo dituzte. Eusko Jaurlaritzarekin, Aldundiarekin, administrazio zentralarekin eta Udalarekin Internet erabilita harremanetan jartzen irakatsiko dute ikastaro horietan: errolda papera eskatzen, enplegu eskaintzetara sartzen, zirkulazioaren inguruko informazioa lortzen, Osakidetzan hitzordua eskatzen, jaiotza ziurtagiria lortzen, liburutegien Euskadiko sarean liburua topatzen, errenta aitorpena egiten eta lan-bizitza aurkitzen. 16 orduko ikastaroak dira eta aurrez eman behar da izena KZgunean, 943 79 94 44. Debalde da.

> ELKARTASUNA

## Luceroren aldeko zozketaren saria, Pedro Juan Salgadori

Luis Lucero eskoriatzarra Aita Menni ospitalean dago eta egonaldiaren gastuarekin laguntzeko Fagorreko lankideek, UDAko lagunek eta Arizmendi ikastolako kideek errifak saldu dituzte. Domekan egin zuten zozketa eta 3.972 zenbakia izan zen saritua. Pedro Juan Salgado bergararra izan da irabazlea.

Luceroren senideek –Rita eta Jon– eta zozketaren antolatzaileek eskerrak eman gura dizkiete lagundutako guztiei.


Herrasti eta Lopez, Logroñon, ibilaldia hasi aurretik. JESUS MARI HERRASTI

**IBILALDIA** > VALVANERADA 2009

# Aretxabaletako bi 'martxosok' Valvanerada proba egin dute

**M.A.** > ARETXABALETA
Apirilaren 25etik 26ra bitartean egin zuten Errioxan 30. Valvanerada. Bertan izan ziren Jesus Mari Herrasti eta Fortunato Lopez aretxabaletarrak, Logroñotik Valvanera santutegiraino dauden 63,2 kilometroak egiten.

1.300 lagunek zuten izena emanda, baina eguraldi txarraren erruz gutxiago izan ziren. Aretxabaletarrek pozik hasi zuten proba; argazkian gogotsu ageri dira Ama Birjinarendako loreak eskuan dituztela. Baina eguraldiak asko gogortu zuen proba: "Hotz egiten zuen, eta bukaeran elurra ere izan genuen", jakinarazi digu Herrastik. Bukaerako azken kilometroak oso gogorrak egin zitzaizkien, baina Triciotik Baños de Rio Tobia herrira bitarteko 11 kilometroak ere ez ziren samurrak izan: "Bidea zuzen-zuzena da, baina ez da sekula bukatzen. Eraikin txiki bat ikusten da urrunean, eta gerturatutakoan izugarrizko lantegia da". Nekatuta baina gustura bukatu zuten proba bi *martxosoek*. Datorren urtean ere joan gura dute, eta ea taldetxoa osatzeko beste lagun animatzen diren.

**UDALA** > DIRULAGUNTZAK

# Kultura proiektuak garatzeko laguntzak

Kultura egitasmoak eta grabazioak egiteko dirulaguntzak arautu ditu Udalak, eta eskaerak aurkezteko deialdia egin du

**M.A.** > ARETXABALETA
Kultura proiektuak eta egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak zehaztu eta argitaratu ditu Udalak egunotan. Irabazi asmo bako Aretxabaletako kultura erakundeei laguntzea du helburu eta aurtengo egitasmoak garatzeko da deialdia. Horretarako, Udalak edo gainerako erakundeek antolatutakoen osagarri izan beharko dute proiektuek.

**30.000 EUROKO AURREKONTUA**
Dirulaguntza horretarako 29.898 euroko aurrekontua dauka Udalak eta deialdira aurkeztutakoen artean banatuko du –baldintzak betez gero–. Elkarteek edo norbanakoek eska dezakete laguntza, proiektuaren jarduna Aretxabaletan baldin badute. Eskaerak Kultura Departamentuan aurkeztu behar dira eskari orriak beteta, eta dokumentazioa azaroaren 15erako bideratuko dute. Ordainketa hiru zatitan egingo du Udalak: erdia, erabakia hartu eta handik 15 egunera; %25, urrian; eta gainerakoa, memoria aurkeztutakoan.

**GEHIENEZ, 800 EURO**
Bestalde, arte produkzioa sustatzeko dirulaguntzak arautu ditu Udalak. Helburua da 2009an ekoiztutako masterrak grabatzearen kostuen zati bat eta beste ekoizpen kultural batzuk diruz laguntzea. Taldeek eta partikularrek egin dezakete eskaera; taldeen kasuan, gutxienez kideen erdiek aretxabaletarrak izan beharko dute.

Dirulaguntza horretarako 3.000 euroko aurrekontua du Udalak eta grabazioaren kostuaren erdia finantzatuko du; gehienez ere, 800 euro grabazioko. Eskaerak Kultura Departamentuan aurkeztu behar dituzte, eta ez dago eperik, urte osoan egin daiteke.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Guardia Zibilaren garitaren ondoko sarrera-irteera eta postetxeko sarrera moztuko dituzte astelehenetik aurrera. MIREIA BIKUÑA

**ZIRKULAZIOA** > MOZKETA

# Zirkulaziorako itxita egongo da astelehenetik aurrera postetxe ingurua

Bi hilabetez moztu egingo dute unibertsitatetik postetxerainoko bidea eta Guardia Zibilaren garitaren ondoan dagoen sarrera-irteera

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Estatuko Foru Fondoetatik jasotako diruarekin postetxe inguruan egin behar dituzten bi biribilguneak egiteko, zirkulazioa moztuko dute astelehenean. Lanok bi hilabete iraungo dute.

Bitartean, Guardia Zibilaren garitaren ondoan dagoen sarrera-irteera moztu egingo dute. Hortaz, saihesbidetik datozen autoek ezin izango dute parrokia aldera hartu. Dena den, Bidebarrieta alderako bidea zabalik egongo da. Era berean, herritik, unibertsitate aurretik irteteko ohitura dutenek ordezko bideak erabili beharko dituzte; izan ere, kanposanturako bidea eta Ibarratik saihesbidera dagoen irteera itxita egongo dira.

**POSTETXERA JOATEKO HIRU BIDE**

Postetxera autoz joan gura duten herritarrek ere aldaketak nabarituko dituzte zirkulazioan. Unibertsitate etorbideko sarrera moztuta egongo da. Hortaz, hiru aukera dituzte postetxera heltzeko: alde batetik, saihesbidetik, Ibarrako sarreratik sar daitezke. Beste alde batetik, Otadui zuhaiztitik sartu eta Lizaur kaletik irits daitezke postetxera. Azkenik, Aita Madina kaletik sar daitezke. Hiru sarrera dauden arren, Udaltzaingotik esan digute postetxera doazen auto guztiek Ibarra aldetik irten beharko dutela saihesbidera, ezinbestean.

**AUTOBUS GELTOKIAK**

Postetxe atzeko autobus geltokia toki berean mantenduko dute; baina Euskadi etorbideko autobus geltokia lekuz aldatuko dute: etorkizunean, autobusak Bidaurretako biribilgunean geratuko dira.

Zirkulazio aldaketa horiek eragingo duten nahaspila kontuan hartuta, pazientziaz eta kontu handiz gidatzeko eskatu du Udaltzaingoak.

## Autobus geltoki berria eta bi biribilgune

Astelehenean hasiko dituzten lanekin postetxe inguruko urbanizazioari hasiera emango diote. Autobus geltokia postetxe aurrealdean jarriko dute, eta aldamenean komunak jarriko dituzte. Postetxea eta Guardia Zibilaren kuartelaren artean libre geratuko den gunean jolaslekua eta parkea egokituko dute. Era berean, bidegorria pasatuko da bertatik Ibarra aldera. Gune horretako zirkulazioa hobetzeko bi biribilgune egingo dituzte: bat, Cegasa enpresaren sarreran; eta bestea, kanposanturako igoera hasten den tokian. Lanok Construcciones Ugarte enpresak egingo ditu, 623.500 euroren truke.

**ELIZA** > LEHEN JAUNARTZEA

# 84 umek egingo dute jaunartzea hiru taldetan

Maiatzaren 3an, 9an eta 10ean egingo dituzte elizkizunak parrokian: domekan 13:00etan eta zapatuan 18:00etan

**M.B.** > OÑATI

Urtero moduan, maiatzarekin batera egingo dute lehen jaunartzea Oñatiko neska-mutikoek. Guztira, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako 84 neska-mutiko izango dira jaunartzea hartuko dutenak. Hiru egunetan egingo dute: 41 umek domekan, maiatzaren 3an egingo dute; zortzi neska-mutikok maiatzaren 9an; eta gainerako 35ak maiatzaren 10ean.

Domeketan egingo dituzten elizkizunak 13:00etan hasiko dira, eta umeek 12:30erako parrokiako klaustroan egon beharko dute. Elizkizuna hasiko dute neska-mutikoak elizara sartzen direnean. Eta bukaeran, taldeko argazkia egiteko aukera izango dute.

Bestalde, maiatzaren 9ko taldeak 18:00etan egingo du elizkizuna, parrokian.

**ENTSEGUAK**

Asteon egin dituzte jaunartzeko elizkizuneko entseguak. Astelehenean, domekan jaunartzea egingo duten neska-mutikoak bildu ziren parrokian. Ondoren, guraso guztiek bilera egin zuten katekesiko arduradunekin eta parrokoarekin. Besteak beste, elizkizunetan argazkiak ez egiteko eskatu zuen parrokoak. Atzo, talde aitortza egin zuten gurasoek.

Maiatzaren 10ean jaunartzea egingo dutenek astelehenean egingo dute entsegua, 17:00etan.




ALOÑA MENDI

## Aloñako ziklistak, azkarrenak

Aloñako ziklistek sari mordoa eskuratu zituzten aste bukaeran Bergaran jokatutako proban. Infantil mailan Maider Usandizaga eta Iker Alberdi lehen postuan sailkatu ziren. Alebin mailan, nesketan Irati Barrena hirugarrena izan zen eta mutiletan, berriz, Xabier Aiastui lehena izan zen eta Ekaitz Txintxurreta hirugarrena.

**oharrak**

MENDI IRTEERA

**> GR-11ko lehen bi etapak egiteko irteera Aloñarekin**

Bihar eta etzi egingo dituzte 30 kilometroko bi etapak: Hondarribia-Bera eta Bera-Elizondo. Autobusa 07:00etan irtengo da parrokia aurrealdetik.

HITZALDIA

**> Interneten arriskuaren gaineko hitzaldia**

*Internetek dituen arriskuak ezagutu eta saihestu* delako hitzaldia egingo dute Txantxiku ikastolan maiatzaren 5ean, 18:30ean. Pantallas Amigas taldeko koordinatzaile Jorge Floresek egingo du hitzaldia ikastolako aretoan, guraso guztiendako.

ERAKUSKETA

**> Baketik-ek gidatutako ikastaroa**

Elkar Hezi ikastetxeko guraso elkarteak antolatuta, *Oinarrizko lau ikaskuntza zurekin eta besteekin hobeto bizitzeko* delako ikastaroa egingo dute maiatzeko hiru eguaztenetan; hain justu ere, 6an, 13an eta 20an. Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikineko liburutegian bilduko dira eguaztenetan, 18:30ean.

ERAKUSKETA

**> Ateen gaineko erakusketa ikusteko azken eguna**

Gaur da Ilunpetan taldeak egindako erakusketa ikusteko azken eguna. Arrano, Guria, Boga eta Aker tabernetan jarri dituzte ateen argazkiak.

**Marian Eugenia Ramos** > Gizagune fundazioko kidea

# "Gurasoen eta seme-alaben arteko gatazkendako ez dago adin konkreturik"

JASONE ZABALA > ESKORIATZA

**Maria Eugenia Ramos Gizagune fundazioko kidea da eta apirila eta maiatza bitartean gurasoei zuzendutako gatazkak konpontzeko ikastaroa ematen ari da Kultura Etxean. *Ez didazu entzuten ezta ulertzen ere. Agian ez dut argi hitz egiten? Nola gainditu gatazkak* izena du ikastaroak; harekin egon gara gai horren gainean hitz egiten.**



Ikastaroko azken saioa maiatzaren 7an emango du Ramosek. GOIENKARIA

**Zein da gatazkak konpontzeko ikastaroaren helburua?**

Gurasoek seme-alabekin dituzten gatazkak ulertzeko eta egoera horiek aldatzeko trebetasunak lortzea. Azken finean, sor daitezkeen gatazka egoerak ulertzen eta aurrera eramaten laguntzea da helburu nagusia.

Ikastaroak gogoetarako ere balio du; hau da, seme -alabekin ditugun arazoen aurrean nola portatzen garen ulertzea; askotan ez daukalako zerikusirik guk dugun hautematearekin; portaera bakoitza aztertzen dugu eta kasu bakoitzean nola moldatu behar duten aztertzen dugu; baita ere egoera bat konpondu nahian nola eta zergatik bihurtzen dugun are eta okerragoa.

**Lau ikastaro izango dira guztira; orain arte hiru eman dira eta maiatzaren 7an izango da azkena. Nolakoa izan da jendearen erantzuna?**

Erantzuna oso ona izan da orain arte; guraso askok parte hartu dute; gainera, bertara datozen gurasoak oso kontzientziaturik datoz, ez bakarrik seme-alaben hezkuntzagatik, baizik eta orokorrean guraso eta seme-alaben arteko gatazken konponbidea lortzeko asmoarekin. Ikasteko gogo handiarekin datozela esan genezake; gainera, ikastaroak oso dibertigarriak dira, zeren gurasoek seme-alabekin izandako gatazken adibideak ere kontatzen baitituzte, eta guztienak entzunda errazagoa da kontzientzia hori lortzea.

**Zer eta nola lantzen duzue?**

Ikastaroan praktikak egiten ditugu. Batez ere, lehenik eta behin bakoitzak duen egoera aztertu egiten dugu, bakoitza ezberdina da-eta; ondoren, bi aldeen arteko negoziazioak, komunikazioak nolakoa izan behar duen lantzen saiatzen gara; ez da ahaztu behar bi alderen artekoa dela beti gatazka.

**Gazteen artean noiz hasten dira gatazkak sortzen, zein adinetan? Zein motatakoak dira?**

Gurasoen eta seme-alaben arteko gatazkendako ez dago adin konkreturik. Txikitatik hasten dira, eta adinaren arabera eta seme-alabek ematen duten erantzunaren arabera ezaugarriak ere ezberdinak dira. Adinaren arabera seme-alabari erakutsi egin behar zaio egoera bakoitzaren aurrean zer-nolako erantzuna eman behar duen. Gure lana ez da gatazkak ezabatzea, baizik eta elementuak ematea bi aldeei egoera ahalik eta ondoen konpontzen saiatzeko.

**ZERGAK**

## Ondasun higiezinen kobrantza, maiatzean

Maiatzaren 15ean hasiko dira eta ekainaren 30era bitartean egingo da

J.Z. > BERGARA

2009ko ondasun higiezinen gaineko zergaren borondatezko epealdiko kobrantza kanpaina 2009ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era egingo da, biak barne.

Aurtengo apirilaren 18a baino lehen helbideratutako ordainagiriak bankuaren edo aurrezki kutxaren kontu korrontetik kobratuko dira zuzenean, ordaintzeko borondatezko epea amaitzen den egunean.

**ORDAINAGIRIA AURKEZTU**

Helbideratu gabe ordainagiriak zergadunak adierazitako zerga helbidera bidaliko dira maiatzean zehar. Ordainketa egiteko ordainagiria aurkeztu beharko da. Zorrak ordaintzen ez badira, prozedura exekutibotik eskatuko dira, eta sor daitezkeen kostuak gehituko zaizkie.

**UDALA** > DEIALDIA

## Bake epailerako probek aurrera jarraitzen dute

Guztira bost pertsonak eman dute izena; euskarazko probak astelehenean egin zituzten

J.Z. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udala datozen lau urteetarako bake epaile titularra eta ordezkoa aukeratzeko probak egiten hasi da; guztira lau pertsona aurkeztu dira bi posturako: hiru neska eta mutil bat. Joan den astelehenean egin zuten euskarazko proba eta hori gainditzen dutenek elkarrizketa pertsonalaren proba egin beharko dute, bake epailearen karguaren funtzio eta betebeharren gainekoa. Azken horretan, lanpostua betetzeko egokitasuna neurtuko da eta gehienez bost puntu lortu ahal izango dira.

**BESTE PUNTU BATZUK**

Ikasketak edo tituluak, bestalde, hiru punturaino neurtuko dira. Puntuaziorik handiena Zuzenbidean lizentziadunak direnei emango zaie.

Azkenik, interesatuak langabezian daraman denborari ere garrantzia emango dio Udalak; gehienez bi punturekin.

**UDALA** > ZERGAK

## Zabor eta ibilgailuen zergak ordaindu daitezke oraindik

J. Z. > ESKORIATZA

2009ko lehenengo seihilekoari dagokion zabor bilketa tasa ordaintzeko epea iritsi da. Tasa ordainketa helbideratuta daukaten herritarrei 2009ko ekainaren 5ean egingo zaie kobrantza.

Ordainketa helbideratu gabe dutenek ekainaren 5era arteko epea izango dute borondatezko ordainketa egiteko. Zorra ordaindu ezean, prozedura exekutiboa aplikatu da; haiei, sor daitezkeen kostuak gehituko zaizkie.

**IBILGAILUEN ZERGA**

Ibilgailuen zergari dagokionez, berriz, helbideratu gabe dutenek maiatzaren 8ra arte dute banketxearen bitartez ordainketa egiteko; eta zalantzaren bat izanez gero, udaletxera hurbil daitezke, bertan argitzeko.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

Betiko moduan, 09:30ean hasiko dira Atxorrotzera igotzen

Narbaiza eta Jainaga trikitilariek joko dute aurten

Tabernarik ez da faltako goian, kafe eta ogitartekoekin

**JAIA** > ATXORROTZ EGUNA

# Eskoriatzarrek Atxorrotzera igoera egingo dute domekan



Sorkunde eta Jon trikitilarien ordez, Narbaizak eta Jainagak osatutako bikotea egongo da aurten. GOIENKARIA

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Atxorrotz Eguna ospatuko dute domekan. Horretarako, egitarau xume baina berezia antolatu dute Atxorrotx GKEa, Arizmendi eta kultura etxeak. Ospakizunak ohikoak izango dira. Hala, 09:00etan, txistulariek herriko kaleak girotuko dituzte eta ordu erdi geroago, 09:30ean, Atxorrotzera igotzen hasiko dira eskoriatzarrak.

Behin goian daudela, meza entzuteko aukera izango dute gura dutenek; 11:00etan emango diote hasiera horri. Jarraian, Jainaga eta Narbaiza trikitilariek Sorkunde eta Jon bikoteak utzitako lekua hartuko dute, azken urteotan esandako bikotea arduratu da-eta ingurunea alaitzeaz. Dantzaldiak irauten duen bitartean, Atxorrotzeko tabernan ogitartekoak eta kafea egongo dira salgai bazkaltzen geratu gura dutenendako.

**HERRIKO PLAZAN**

Bazkaldu ostean, herrira bueltatzeko ordua iritsiko da, hurrengo hitzorduak Herriko Plazan egitea dago-eta aurreikusita. Betiko moduan, 18:30ean, herritarrek egindako tortilla goxoak salduko dira han. Ordu berean, gainera, Eskoriatzako txistulariekin erromeria hasiko da.

Jakina denez, Atxorrotz Egunean batzen den diru kopurua Eskoriatzako Atzeratuen Taldeari eta Atxorrotx GKEak dituen proiektuei laguntzeko bideratuko da. Antolatzaileek parte hartzeko gonbita egingo dute. Huts egiteko aitzakiarik ez dago, eguraldia ere portatuko dela iragarri dute-eta.

## oharrak

IKASTAROA

**> Bertso ikastaroan izena emateko azken eguna da gaur**

Gaur, eguena, amaitzen da bertso ikastaroan izena emateko epea. Zenbait bide daude apuntatzeko: kultura etxean, 943 71 46 88 telefono zenbakian eta *euskara@eskoriatza.net* helbidean. Ikastaroak hamar euro balio du. Eskolak datorren martitzenean hasiko dira eta ekainaren 16ra arte iraungo dute. Hamar ordu izango dira guztira.

IKASTAROA

**> Gurasoendako ikastaroaren hirugarren saioa dago gaur**

Gaur, eguena, gurasoei zuzenduta, gatazkak konpontzeko ikastaroa egingo da. Hirugarren eskola horren izenburua *Portaerak ulertzen: norberarenak eta inorenak* da. Saioa kultura etxean izango da, 18:00etatik 19:30era.

KIROLAK

**> Saskibaloian etxekoek Errobide Irun hartuko dute bihar**

Senior mailako saskibaloi partidua dago bihar, barikua, Intxaurtxueta kiroldegian, 11:00etan. Eskoriatzarrek Errobide Irun taldeko neskak izango dituzte aurrean.

**UMEAK** > UDALEKU IREKIAK

## Maiatzaren 15ean amaitzen da aurtengo udaleku irekietan izena emateko aukera

Udal Gazteria Zerbitzuak jakinarazi du, gainera, horietan begirale lanetan aritzeko lagunak behar dituela



Irudian, orain dela bi urte egindako udaleku irekiak. GOIENKARIA

**M.B.** > ESKORIATZA

Urtero bezala, udaleku irekiak egingo dira. Gazteria Zerbitzutik jakinarazi digutenez, aurten uztailaren 6tik 24ra izango dira, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara. Azaldu dute 1997. urtetik 2005. urtera bitartean jaiotakoei zuzenduta daudela.

Udaleku horietan izena emateko epea dagoeneko zabalik dagoela gaineratu dute. Maiatzaren 15a baino lehen eman beharko da Tortolis ludotekan, astelehenetik barikura, 16:00etatik 20:00etara. Kultura etxeko Gazteria Zerbitzuan ere apuntatzeko aukera dago, martitzenetan eta eguenetan, 09:00etatik 13:30era eta 14:00etatik 16:30era.

Bi agiri aurkeztu beharko dira: izenemate orria beteta eta ordainketaren ziurtagiria. Azken horren harira, prezioa 43 euro izango da. Bi anai-arreba izanez gero 72 euro eta hirugatik 85 euro ordaindu beharko dituzte gurasoek. Gazteria Zerbitzuak ohartarazi du epez kanpoko izenematerik ez dela onartuko.

**BEGIRALEAK BEHAR DIRA**

Bestalde, aipatu du udaleku irekietarako begiraleak behar dituztela. Horretarako izenematea ere dagoeneko zabalik dago. Maiatzaren 16ra arte egongo da curriculuma aurkezteko epea. Interesatuek umeen izenematea egin behar den toki eta ordutegi berean aurkeztu behar dute.

**NAGUSIAK**

## Udako egonaldiak gertu daude

Izena eman behar da uztail, abuztu eta irraileko egonaldietarako

**M.B.** > ESKORIATZA

Gipuzkoako Foru Aldundiak udako aldi baterako egonaldiak antolatu ditu nagusiendako. Aurtengo denboraldiak hiru hilabete izango ditu eta Diputazioak hil bakoitzean izena emateko epe zehatza jarri du.

**EPE ZEHATZAK**

Barikuetan eman ahal izango da izena. Uztailerako, maiatzaren 15a zehaztu du epea; abuzturako, maiatzaren 29a; eta irailerako, ekainaren 12a.

Nagusiendako egonaldietan interesa duten eskoriatzarrek Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo edo 943 71 31 36 telefono zenbakira deitu behar dute.

**Jabi Etxaniz** > Debagoieneko Trikiti Eguneko antolatzailea

# "Trikitia indartsu dago gurean eta jendeak jarraitzeko gogoa du"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

**Zapatuan ospatu zuten Antzuolan Debagoieneko Trikiti Eguna. Euripean ibili ziren trikitilariak lehenengo eta gero Zurrategin egin zuten emanaldia eta baita Balentin Aperribairen omenaldia ere. Bazkaritan 500 lagun elkartu ziren eta trikiti giroak goizaldera arte iraun zuen. Antolatzaileak pozik daudela esan digu Jabi Etxanizek.**



Jabi Etxaniz, Trikiti Eguneko irudiarekin. IRATI AGIRREAZALDEGI

**Gustura zaudete Trikiti Egunak izandako erantzunarekin?**

Kontuan hartuta eguraldiak ez zigula batere lagundu, gainontzean oso ondo joan zen dena. Kanpotik ume asko etorri ziren eta aterkiekin, aterpeetan hala-hola baina moldatu ziren guztiak. Ekitaldi nagusiko soinuak huts egin zuen eta ez zen oso ondo entzuten; hori pena handia izan zen. Abestiak ahalik eta ondoen irten zitezen saiatu ostean, ez zen behar besteko dotore gelditu. Hortaz, barkamena eskatu behar dugu.

**Huts egiteak ahaztu eta une onak gogoan hartzea hobe. Balentin Aperribaik hala izango du omenaldia, ezta?**

Ez zuen espero, eta polita izan zen. Bertsoak, oparia, bere lehen ikaslearekin jo zuen pieza bat eta gero, bere ilusioa zen jende gaztearekin jotzea, ikusteko oraindik soinua eta panderoa bizirik daudela, eta hala egin zuen.

**Antzuolan badago oraindik trikiti girorik?**

Bai, dudarik gabe. Trikiti Egunaren ondoren, gainera, indartu egingo dela uste dut, jendeak gogoa badauka. Orain, ikusi beharko da zenbat denboran mantentzeko gai garen. Guk ere aprobetxatu behar dugu giro hori ikasleendako beste ekintza batzuk antolatzeko. Gaur egun, ia 20 ikasle daude eta urtean-urtean gehiagok ematen dute izena.

> **"Aprobetxatu behar dugu sortu den giroa ikasleendako ekintzak antolatzeko"**

**Ikasleek ez ezik nagusiek ere hartu zuten parte jaian.**

Hain zuzen ere, azpimarratu nahi duguna da parte-hartzea. Antolakuntza taldean 12 lagunek jardun dugun arren, egunean bertan laguntza eskatu eta 50 lagunetik gora elkartu ginen batean eta bestean jarduteko. Hortaz, laguntza eskaini zuten guztiei eskerrak eman behar dizkiegu.

> **"Eskerrak eman behar dizkiegu trikitilariei, laguntzaileei eta irakasleei"**

**Goizeko ekitaldiak aipatu dituzue, baina arratsaldean eta gauean ere izan zen trikiti doinurik Antzuolan, ezta?**

Bazkalostean eta iluntzean ere kalean sekulako giroa egon zen. Goizean, umeen sasoia izan zen eta gero besteek hartu zuten tokia. Antzuolan, garai batean trikitia jotzen ibilitakoak eta beste herrietatik etorritakoak elkartu ziren eta tabernetan-eta jardun zuten jotzen eta oso ondo pasa zuen jendeak.

**Hortaz, osasuntsu dago trikitia gure ibarrean?**

Ikusi genuen indartsu dagoela. Jende gazte asko dago trikitixa munduan eta musika eskoletako irakasleen lanak zeresan handia du horretan eta hori ere eskertu behar dugu. Egunean ez ezik aurretik ere lan asko egin da eta gerora ere badago egitekorik, bestela arriskua baitago jendea egin dugunarekin ahazteko eta trikitia bizirik mantentzeko.

**Lekukoa Soraluzek hartu du.**

Bai, eta hasi dira galdezka antolaketaren gainean. Pena dugu azken bi urteotan Debagoieneko Trikiti Eguna eta Dantzari Nagusiena egun berean baina herri ezberdinetan izan direlako. Hurrengorako eskatuko genuke saiakera egin dadin gauza bera ez gertatzeko. Dantzak eta trikitiak lotura dute eta ez da komeni bakoitza alde batean ibiltzerik.

**PILOTA**

## Olalde elkarteko pilota saila, ordezko bila

Gaur egun dihardutenak, urte mordoa egin ostean, nekatuta daude

**I. A.** > ANTZUOLA

Olalde elkarteko pilota saileko ardura postuetan lekukoa hartzeko jendea behar dela-eta, zuzendaritzako kideek laguntza eskatu dute. "Nik 30 urtetik gora daramatzat elkartean eta beste batzuek ere antzera. Hainbeste urtez jardun ostean, nekatu egin gara, eta jendea laguntzeko-gertu egon ezean Olaldeko pilota saila desagertzeko arriskua dago", esan digu Felix Agirrek presidenteak.

**PILOTA ESKOLARIK EZ**

Besteak beste, umeekin lan egiteko behar da jendea. Agirreren esanetan, "nagusiagoekin jarraitzen dugu, baina umeekin nekatu egin gara". Umeak orain gurasoekin-eta ibiltzen dira, baina pilota eskolarik ez dago. Nagusietan, lau lagunek jarduten dute eskuz eta palan beste lauk.

Norbait laguntzeko gertu balego, frontoiko bulegoan pozik hartuko dute; astelehenero elkartzen dira, 19:00etan.

**GIPUZKOAKO IREKIA**

Olaldekoak laguntza bila herrian eta kanpokoak Antzuolara pilotan jokatzera. Eskuz binakako Gipuzkoako Irekiko finala izan zen domekan, eta Antxia eta Larramendi nagusitu ziren.

**HEZKUNTZA** > MATRIKULAZIOA

## Haurreskolan izena emateko epea maiatzaren 4tik zabalik

**I. A.** > ANTZUOLA

Datorren ikasturte hasieran umeak Antzuolako haurreskolara eraman nahi dituzten gurasoendako maiatzaren 4an zabalduko da matrikulazio epea, eta 15era arte izango da izena emateko aukera. Aurretik informazioa jaso nahi duenak haurreskolara jo dezake 13:30etik 14:30era bitartean edo telefonoz deitu honako zenbakira: 943 78 60 15.


Gaur egun 20 ume eta lau hezitzaile daude haurreskolan. I.A.

**GAUR EGUN 20 UME**

Gaur egun 0 eta 2 urte bitarteko 20 ume daude, bi gelatan banatuta, txandaka dihardunten lau irakaslerekin. Haurreskolan, umeak zaintzeaz gain, eurekin psikomotrizitate ariketak, jolasak... egiten dituzte, betiere heziketa oinarri hartuta. Umeak gehienez zortzi orduz egon daitezke eta ordutegia beharretara egokitzen dute. Ordaindu beharreko kuotak ere denboraren araberakoak dira: bost ordutik behera 151 euro hilean eta hortik zortzi ordura artekoek 198 euro.

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

**oharrak**

MENDIA
**> Txindokira irteera**

Arrola mendizale elkarteak antolatuta, Txindokira egun erdirako irteera izango da maiatzaren 10ean. Irteeran parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena, martitzenean, maiatzaren 5ean, 19:00etatik 20:00etara bitartean Olaran etxeko hirugarren gelan.

INFORMATIKA
**> KZgunea**

Maiatzeko martitzen arratsaldeetan KZgune zerbitzua egongo da Torresoroko liburutegian. 16:00etatik 20:00etara bitartean begiralea izango da han laguntzeko. Interneten eta ordenagailuko kontuen gainean erabiltzaileek dituzten zalantzak argituko ditu.

**bere ustez**



Geaxi Ezpeleta

## Pentsatzen dudanez, banaiz

Liburuaren eguna pasa berri da. Bai egun bitxia, edo?

Oroimenean azterka hasi eta konturatzen naiz nire bizitzan zein leku izan duen liburuak beti. Zurean ere bai ziurrenik.

Gurasoek txiki-txikitatik kontatzen zizkidaten ipuinek, irakurtzen jakin gabe testuan zioena asmatzen saiatzen nintzen liburuek, lehenengoz letrak elkartuz irakurri nituenak eta harrez gero ikasteko, informatzeko nahiz gozatzeko balio izan didatenek, denek dute lekua nigan, gaur ni naizen honetan.

**"Pertsona bezala osatzen laguntzen digute liburuek nahiz bestelako informazio iturriek"**

Pertsona bezala osatzen laguntzen digute liburuek nahiz bestelako informazio iturriek. Nire kabuz pentsatu eta hausnartzera bideratu naute.

Horregatik ulertezina zait nolatan "demokrazia eta eskubideen" garaian bizi garen honetan eman daitekeen zentsura. Duela urte batzuk bizi izan genuen "epaile demokratikoek" bultzatuta eta orain Nafarroa aldean berriz dugu joko horren isla, *Berria* eta *Gara* egunkariak liburutegi publikoetatik kentzeko aginduan. Beren burua "demokratikotzat" daukatenek ukatzen digute informazio eskubidea, pertsona bezala osatzeko aukera.



Udaletxean aldamioak ipini dituzte eta asteon ekin diete teilatuko lanak egiteari. IRATI AGIRREAZALDEGI

**OBRAK** > BERRITZE LANAK

# Hasi dira udaletxeko teilatua konpontzen

Uztailerako, herriko jaietarako, obrak amaituta egongo dira, aurreikuspenen arabera

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

Asteon aldamioak ipiniz udaletxeko teilatua konpontzeko lanak hasi ditu Amaral eraikuntza enpresak. Estatu Fondoko dirulaguntzarekin finantzatuko ditu Udalak berritze lanak.

**KIROLDEGIKOAK, GERO**

Teila zaharrak kendu, isolamendu termikoa ipini eta teila berriak jarriko dituzte, baina lanek ez dute udaletxeko funtzionamenduan eraginik izango eta ohiko sarbidea erabili ahal izango da.

Uztailerako, herriko jaietarako, udaletxeko teilatuko lanak amaitzea aurreikusi dute.

Lanok amaitutakoan kiroldegiko, hau da, Bolatoki tabernako eta sauna eta gimnasio aldeko teilatuen konponketak egingo dituzte, baina lehentasuna udaletxeko lanek dutela esan digu alkateak. Lan guztiek 186.015 euroko kostua izango dute.

**APARKALEKUAK**

Bestalde, Udalak badu esku artean Domingo Iturben hamar aparkaleku berri egokitzeko asmoa. Baina oraingoz asmoa da. Izan ere, teilatuetako obrak amaitzen dituztenean eutsiko diete lan horiei.

## 'Kantari' saioko entsegua Espaloian

Maialen Zubiaurrek, Goizaldi Arozenak, Naren Muñozek eta Jone Elkorok GOITBko *Kantari* saioan hartuko dute parte. Sugan taldearen *Zarena zarelako* abestia kantatu eta dantzatuko dute. Horretarako, apirilaren 23an entsegua egin zuten Espaloian, saioko aurkezle Amaia Txintxurretarekin. Barre mordoa eginez, oso ondo pasatu zuten ,baita dantzako pausoak erraz ikasi ere. Ikuskizuna Bergaran izango dute ekainaren 14an, 19:00etan.



AMAIA TXINTXURRETA

**oharrak**

JAIAK

**> Jai batzordeak maiatzaren 7an du hurrengo hitzordua**

Uztailaren 2a eta 5a bitartean izango dira Elgetako jaiak. Ordurako gauza guztiak gertu egon daitezen Jai batzordea hasi da lanean. Bi batzar egin dituzte jadanik, eta hurrengo hitzordua datorren egunean dute, maiatzaren 7an. 19:00etan izango da bilera, udaletxean.

**frontenis txapelketa**

## Datorren zapatuan finalerdiak jokoan

Frontenis txapelketa azken txanpara iristen ari da. Aste bukaera honetan atseden hartuko dute jokalariek eta indarberrituta azalduko dira maiatzaren 9an, finalerdietan. 18:30ean hasita, lau partidu jokatuko dira. Finalak eta hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partiduak maiatzaren 16an izango dira.

**PARTIDUAK (Maiatzaren 9an, 18:30ean hasita)**

Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Asier Morales-Asier Osoro
Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera/Nagore Morales-Janire Lazkano
Idoia Serna-Nagore Ojanguren/Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa
Eñaut Arantzeta-Aritz Gallastegi/Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Asier Morales-Asier Osoro/Oskar Sarasua-Roberto Mora | 25-14 |
| Mari Carmen Salas-Izaskun Ojanguren/Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasa | 14-25 |
| Amaia Iribar-Alicia Gartzia/Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera | 5-25 |
| Nagore Morales-Janire Lazkano/Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa | 25-23 |
| Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas/Josu Arantzabal-Fernando Zenitagoia | 24-25 |
| O. Zenitagoia-M. Beretxinaga/A. Gorosabel-I. Untzetabarrenetxea | 25-19 |

**KULTURA**

# Magia mostra maiatzean Espaloian

Ikastaro, kontzertu, erakusketa eta film emanaldiak ere izango dira

**I.A.** > ELGETA

Maiatzean Espaloia Kafe Antzokian izango den kultura eskaintza gertu dago. Aurreko urteetan moduan, magiak hartuko du egun batzuetan Elgeta; maiatzaren 8tik 10era bitartean, hain zuzen ere. V. Magia Mostra izango da, honako ikuskizunekin: bariku gauean, Frantziako Gaetan Bloom; zapatuan, magia gala Leongo Juan Mayoral, Txinako Jane, Bartzelonako Xabi Tapias, Frantziako Sebastien Dethise eta Madrilgo Karimekin; eta horren ostean, *Magia golfoa* Espaloiko tabernan; domekan, berriz, Espaloitik herriko kaleetara aterako dute magia.

**FILMAK EGUAZTENETAN**

Magiaz gain, izango da beste aukerarik ere. Maiatzaren 14ko arratsalderako kafe ikastaroa eta dastatzea antolatu dute. 15ean ipiniko dute ikusgai Jon Holguinen puzzle erakusketa. 23an, berriz, Ama Say eta Deabruak Teilatuetan taldeen kontzertua izango da.

Bestalde, eguaztenetako 21:30eko zinema emanaldietan honako filmak ikusi ahal izango dira maiatzean: *Factorum*, *Los limoneros*, *Quemar despues de leer* eta *Historias de Philadelphia*.

> LANA

## Sei lagun aurkeztu dira teknikari postuko azterketara

Elgetako Udalak teknikari bat izendatzeko deialdi publikoa egin zuen. Kultura, hezkuntza, turismo eta kirolaren ardura izango duen teknikaria aukeratzeko azterketara sei lagun aurkeztu ziren joan zen astean. Asteon azterketaren emaitzak jaso eta tribunalak aztertu ostean, bigarren proba egingo dute, euskara neurtzeko baliagarria izango dena; hau da, elkarrizketa eta idatzizko ariketaren azalpena. Azkenik, eguna oraindik zehaztu gabe badago ere, azterketa informatikoa egin beharko dute. Aurreikuspenen arabera, maiatzaren 15erako jakingo da zeini dagokion lanpostua.

**AZPIEGITURAK** > ERREPIDEAK

# Untzillara doan errepidea itxita egongo da ekainaren 15era arte

Untzillarako errepidearen ertzean Abiadura Handiko Trena igaroko den biaduktuaren zutabeak izango dira; hori dela eta, errepidea zabaldu egin behar dute



Kataiako bidegurutzetik Untzillara doan bidea moztuta dago. ARRITXU BARRUSO

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Abiadura Handiko Trenaren lanak direla-eta Kataiako bidegurutzetik Untzillara bitarteko errepidea itxita dago, eta horrela jarraituko du ekainaren 15era arte. Izan ere, errepide horren ertzean ipiniko dituzte Abiadura Handiko Trena igaroko den biaduktuaren zutabeak, eta, hori horrela, errepidea zabaldu egin beharko dute. Kataiako bidegurutzetik 300 metro aurrerago hasiko dira errepidea zabaltzen; esan bezala, Untzillaraino. Udalaren asmoa da, baina, errepidea bidegurutzetik bertatik zabaltzen hastea. "Errepide horretan zirkulazio handia dago, eta ez dirudi logikoa lehenengo 300 metroak estu mantentzea eta goiko aldea bakarrik zabaltzea. ADIFi eta Diputazioari eskatu diogu lanak bidegurutzetik bertatik hasteko", azaldu du Asier Agirre alkateak. Arabako Diputazioak onartu egin du Udalaren eskaera, eta orain, lanen ardura zeinena den zehazten ari dira, ADIFena edo Diputazioarena.

Errepidea moztearen ondorioz, Untzillatik Arrasatera joan nahi izanez gero Aretxabaletaraino joan behar da eta Aramaiora joateko, bestetik, Zabolatik itzulia egin behar da.

nire bidaia hura

**Aitor Arana**
Marokora > 2009ko Aste Santuan

# "Marokora zoazenean tratuak egiten jarduten duzu egun guztian"

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

**Aitor Arana aramaioarra da, 33 urte ditu eta oso gustuko du mendia. Marokon izan da Aste Santuko oporretan. Mendizalea izanda, Atlas inguruan ibili da eta han hiru tontor egin ditu: Toubkal (4.167 m), Ras (4.083m) eta Timesgida (4.089m). Dena dela, Marrakex hiria ezagutzeko aukera ere izan du.**


Aitor Arana.

Arreba Goizanerekin eta Xabier Iribecampos lagunarekin batera egin du Marokora bidaia Aitor Aranak. Afrikako herrialdea bisitatzen zuen lehenengo aldia izan da, eta aho zabalik itzuli da: "Hura beste mundu bat da. Iristen zaren momentutik tratuak egiten hasten zara eta bidaia guztia horretan ematen duzu. Marrakexetik taxiz Imlil herrira joan ginen, Atlas ingurura. Han ere, porteatzaileekin tratua egin behar izan genuen gure gauzak mandoetan aterpetxeraino eroan zitzaten. Hiru tontorrak egin ostean, Imlilera itzuli ginen eta handik, berriz, Marrakexera taxian". Aramaioarrak azaldu digu txirotasun handia dagoela, baina anekdotak ere kontatu dizkigu: "Pobrezia handia dago, baina gizon pobreenak ere bi sakelako ditu eta antena parabolikoa etxean. Benetan kuriosoa da".

Marrakexen Jamaa el Fna izeneko plaza gustatu zitzaion gehien: "Benetan ikusgarria da. Denetarik saltzen duten postuak ikus ditzakezu plaza horretan. Suge-sorgintzaile pila bat ere ikusi genituen. Baina benetan atentzioa eman zidan hortzak ateratzen zituen gizon batek. Usteldutako hortz pila bat zituen mahai gainean, eta horixe zen haren lana, hortzak ateratzea". Janariari dagokionez, Marokoko gozoak gustatu zaizkio gehien.


Marrakexen, arreba Goizanerekin.


Toubkal mendiaren gailurrean, Xabier lagunarekin batera.

> DIRULAGUNTZAK

### Mendekotasuna duten pertsonentzako dirulaguntzak

Dirulaguntza hori publikoak ez diren egoitza eta etxebizitza komunitarioetara sartu ahal izateko da. Dirulaguntza emateko orduan pertsonaren mendekotasun maila hartuko da kontuan. Egonaldi laburren aurretik eta atzetik etxean zainduta egon ohi dela baieztatu beharko da. Ezinbestekoa da, bestetik, Arabako lurralde historikoko edozein udalerritan, gutxienez, hiru urtez erroldaturik egotea. Ez da dirulaguntzarik emango egonaldi edo gau kopurua 30 baino gehiagokoa bada urtean.



*Gomorra* filmeko kartela. GOIENKARIA

**ZINEMA**

## Maiatzeko filmen egitaraua

Maiatzean ere barikuetako film emanaldiek aurrera jarraitzen dute eta oraingoan ere programa polita antolatu dute. Sarrera euro bat ordaindu beharko da.

### Emanaldiak

**Maiatzak 1, barikua**
*Gomorra*
Zuzendaria: Matteo Garrone
13 urtetik gorakoendako

**Maiatzak 8, barikua**
*El intercambio*
Zuzendaria: Clint Eastwood
18 urtetik gorakoendako

**Maiatzak 15, barikua**
*Camino*
Zuzendaria: Javier Fesser
18 urtetik gorakoendako

**Maiatzak 22, barikua**
*Australia*
Zuzendaria: Baz Luhrmann
18 urtetik gorakoendako

**Maiatzak 29, barikua**
*My Blueberry Nights*
Zuzendaria: Wong Kar-Wai
13 urtetik gorakoendako

Emanaldi guztiak 22:15ean izango dira, kultura etxean.




Gatzagainen egiten dabiltzan egokitzapen lanak, ikuspena handitu eta arriskua murrizteko. M.A.

**ERREPIDEAK** > LANAK

# Konponketa lanak errepidean: Arlabanen eta herriko bidean

Arlabango errepidean dauden zuloak konpontzeko lanak egunotan hasiko dituzte

Iragarri dute maiatzaren 6a eta 15a bitartean bide bakarra egongo dela zabalik GI-3310 errepidean

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Gatzagatik pasatzen diren bi errepideetan konponketa lanak egiten dabiltza azken asteotan. AP-1 autobidea zabaltzearekin batera Gatzagako errepideetan zirkulazioa txikitu egingo zela aurreikusten zuen Foru Aldundiak, eta hori aprobetxatuta erabaki dute konponketa lanekin hastea bai Arlabanen, bai Gatzagatik pasatzen den errepidean.

**GI-3310 ERREPIDEA, MAIATZEAN**

Egiten dabiltzan lan guztiak, baina, ez dira zaku berekoak, nahiz eta Aldundiko Errepide Saila egon guztien atzean. Artapen Zerbitzuak bideratuta, Arlabanen, GI-627 errepideko 19 eta 27. kilometro puntuen artean, zorua konpontzen hasiko dira asteotan. Negu gogorraren ondorioz –izotza, elurra eta gatza– zorua egoera eskasean geratu da, eta asfaltoa hondatuta eta higatuta dagoen lekuetan egingo dituzte konponketak. Berotan estaliko dituzte zuloak eta betun nahasketa beroko 1.300 tona zabalduko dute. 200.000 euro inguruko aurrekontua dute lan horiek. Aste Santu ondoren hasiko zirela iragarri zuen Aldundiak, baina martitzenean oraindik hasi barik zeuden. Hori bai, errepideko zulo guztiak dituzte seinaleztatuta eta laster izango dira langileak bertan.

Bestalde, GI-3310 errepideko 4 eta 6,5. kilometro puntuen arteko zatia ere konponduko dute, Gatzaga eta Eskoriatza artean. Errepideetako obra kontuen berri ematen duen webgunean iragarri du Aldundiak maiatzaren 6a eta 15a bitartean txandaka pasatu beharko dutela autoek zati horretatik –08:00etatik 18:00etara–, bide bakarra egongo da-eta zabalik.

**BIDE SARRERAK ZABALTZEN**

Bestalde, Landagipuzkoa egitasmoak emandako dirulaguntzari esker, hainbat baserritara doazen bide sarrerak zabaltzen hasi dira. Horretarako 80.000 euro inguru jarriko ditu Errepide Sailak. Bost dira zabalduko dituztenak, eta Gatzagainen hasi dira lanean egunotan. Ikuspenik eza da Gatzagaingo arazoa, eta hori hobetzeko lur zati bat kenduko dute. Gainera, zirkulazio seinale bertikalak jarriko dituzte, nondik sartu eta nondik irten adierazteko automobilei. Horrekin guztiarekin segurtasun handiagoa izango dela Gatzagaingo bidegurutzean uste dute agintariek.

Ondoren Burdinkurtzeko bide sarrera zabalduko dute –Gasteizera bidean ur depositua pasatu eta hurrengo dagoen bide sarrera– eta gero Arratekoa –herria pasatu eta hurrengo dagoena–. Azken hori da lanik korapilatsuena eta luzeena, eta lehenengo egin gura bazuten ere, lurrean egindako seinaleak ezabatuta zeudenez azkeneko egiteko utzi dute.

**UDALAK ORDAINDUKO DITUENAK**

Beste bi lan ere egingo dituzte Gatzagako errepideetan, baina horiek Udalak ordainduko ditu: Olaun Goikoa baserrirako sarrera konponduko dute Arlabango errepidean. Lanak Aldundiak esleitu arren, gastua Udalaren eskuetan geratuko da. Apirilaren 6an egindako osoko bilkuran kreditu aldaketa egiteko asmoa zuen Udalak, lanok ordaintzeko, baina azkenean mahai gainean utzi zuten gaia erabakirik hartu barik. Hala ere, lanok laster hasiko dituzte.

Eta azken egokitzapenak Goierri auzorako bide sarreran egingo dituzte. Bidegurutzeak segurtasun handiagoa izan dezan ispilu batzuk eta hainbat seinale jarriko dituzte. Gastu horien kargu ere Udala egingo da.

**ZERGA** > ONDASUN HIGIEZINAK

# Ondasun higiezinen ordainagiria etxera bidaliko dute maiatzean

Maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartean ordaindu beharko dute zerga ordainagiriak helbideratu barik dituzten herritarrek

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak jakinarazi du ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko epea maiatzaren 15etik ekainaren 30era egongo dela zabalik. Apirilaren 18a baino lehen helbideratutako ordainagiriak bankuaren edo aurrezki kutxaren kontutik kobratuko dituzte zuzenean; gainerakoek ordaintzera joan beharko dute banku edo aurrezki kutxara, ordainagiria etxean jaso ondoren.

Norberak zenbat ordaindu behar duen zehazten duten ordainagiri horiek maiatzean jasoko dituzte gatzagarrek etxean. Ekainaren 9rako baten batek jasoko ez balu, Bergarako zerga bulegoan eskatu ahal izango du –Toki Eder kalea, 5. zenbakia.

**ELIZA** > MEZA

# Domekan hasita, Dorletako santutegian izango da meza

Azaroaren 1a bitartean esango dute Dorletan, ohiko ordutegian (12:30)

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Neguko denboraldiari agur esaten diote Gatzagako parrokiako arduradunek maiatzaren 1ean, eta domeketako mezak San Milixan parrokiatik Dorletako santutegira eroaten dituzte. Hala, domekan, maiatzak 3, hasi eta azaroaren 1a bitartean esango ditu mezak Dorletan Arantzazutik datorren Martin Mendizabal frantziskotar fraideak.

Maiatza, gainera, Ama Birjinari eskainitako hilabetea da kristauen artean, eta, herrikoez gain, bisitari asko joaten dira Dorletako santutegira.


Joan den urtean lokatzak dezente baldintzatu zuen proba; aurten ibilbidea aldatu dute. GOIENKARIA

**MENDIKO BIZIKLETA** > ARAMAIOKO 2. SARI NAGUSIA

# Euskadiko Txapelketako hirugarren proba egingo dute domekan Aramaion

Iazko probarekin alderatuta, domekako (10:30) lasterketak hainbat berritasun izango ditu. Hasteko, antolatzaileek ibilbidea aldatu dute

**XABIER URTZELAI** > ARAMAIO

Iazko esperientziatik gauza asko ikasita, aurten ere Aramaioko mendiko bizikletako bigarren saria antolatzera animatu dira, Euskadiko Txapelketako hirugarren lasterketa: "Iaz eguraldiarekin ez genuen zorte handirik izan, eta zirkuituan zegoen lokatzak dezente baldintzatu zuen proba. Baina, hori ez zitzaigun guri bakarrik gertatu, lasterketa gehienetan lokatza mordoa egon zen-eta", adierazi du aurten ere antolaketa lanetan buru-belarri dabilen Martin Arriolabengoak. Hain zuzen ere, lokatzak komeni dena baino protagonismo handiagoa har ez dezan, antolatzaileek iazko ibilbidea aldatu dute: "Ibilbide berrian lokatz gutxiago egoten da, eta ez da iaz bezain aldapatsua. Bertan ibili direnek esan digute polita dela; badago aldapa gogorren bat edo beste, baina motzak dira".

Zirkuituak 5.200 metro ditu, eta 140 metroko desnibela: "Izenematea Ibarran bertan egingo dute, pilotalekuan. Baina, lasterketa Arriolako auzoan hasiko da, hortaz, ziklistek 1,5 km inguru egin beharko dituzte bizikletan. Gorputza berotzen joateko ondo etorriko zaie".

**HAINBAT KATEGORIA**

Lasterketa 10:30ean hasiko dute, eta lehenengo tandan elite mailakoak, master 30ekoak eta 23 urtez azpikoak irtengo dira. Lau minutu geroago, berriz, master 40 kategoriakoak, emakumezkoak, gazteak eta kadeteak.

Parte-hartzaileei dagokienez, iazko irabazle Lejarreta ez da lasterketan izango, eta, Joseba Leon da faboritoa. Debagoiendarren artean Dorletako Amako Bicicletas CDR eta Lizarralde Kirolak taldeko ziklistak lehiatuko dira.

> TXIRRINDULARITZA

## Markel Irizarrek begiz jota du gaur, eguena, Asturiasko Itzulian egingo duten erlojupekoa

Euskaltel-Euskadiko ziklista Asturiasen da astelehenaz geroztik (56.a lehen etapan) lurralde horretan egiten dabiltzan itzulian esku hartzen. Iban Velasco arrasatearrak ere hor behar zuen, baina joan den astean erorikoa izan zuen Errioxan, eta hiru saihets hautsi zituen. Oñatikoak, berriz, begiz jota du gaur, eguena, egingo duten erlojupeko proba, Castrillonen.

Gaur goizean 88 kilometroko etapa egingo dute, hirugarrena, Gijon eta Aviles artean, eta goizeko etapan indarrak gorde eta aparteko arazorik ez badu, arratsaldeko erlojupekoan (Castrillon-Castrillon, 14,2 km) Oñatiko ziklista aurreko postuengatik lehiatzeko gauza da.

> SASKIBALOIA

## Zapatuan MUk Goierriren kantxan eman beharko du mailari eusteko hurrengo pausoa

Joan den astean Getxoren kontra justu-justu irabazi eta gero (65-64), Mondragon Unibertsitateak Goierriren kantxan, Urretxun, jokatuko du zapatuan (18:00).

Hain zuzen ere, joan den asteko emaitzekin Getxok eta biharko kontrario Goierrik dagoeneko galdu dute kategoria. Datorren urtean lurraldeko txapelketan jokatuko dute, eta biharko partidura begira horrek on egin diezaioke MUri. Izan ere, kantxan igarri egin beharko litzateke nor dagoen oraindik bizirik, eta nor ez.

Kategoriari eusteko kontrario zuzen UPNAk ere ez du amore emateko asmorik. Hala, MU derrigortuta dago bihar kalerik egin ez, eta datorren astean UPNAren kontrako partidua irabaztera. Gogoratu, gainera, MUk bost puntuko aldea beharko duela.

> PILOTA

## Elgetako Lau t'erdiko txapelketako jardunaldia jokatuko dute bihartik hasita

Elgetako Lau t'erdiko txapelketako partiduak egubakoitzera aurreratu dituzte, asteburuan zubia dela aprobetxatuta. Hala, 21:00etan hasita 23 urtez azpikoetako norgehiagokak jokatuko dituzte. Lehenengo partiduan Saez de Asterasuk eta Narbartek jokatuko dute, eta ondoren Aranburu eta Pikabea, Pebet eta Linzoain eta Ojuel eta Perosan lehiatuko dira.

Elgetako txapelketa ez da izango, baina, asteburuan izango dugun pilota eskaintza bakarra. Gaur, eguena, 19:00etan hasita Eskoriatzako pilotariek Bergarakoak izango dituzte aurrean, eta Arrasaten ere norgehiagokak jokatuko dituzte, 19:30ean, hor ere Bergarako pilotarien kontra. Zapatuan, berriz, Arrasate eta Ataun izango dira aurrez aurre (12:00). Eta zapatuan, Elgetan, Ozkarbiko Elortzak eta Bergarako Perezek jokatuko dute (16:00).


Egubakoitzaz gain, zapatuan eta domekan ere partiduak izango dira. GOIENKARIA


SVMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

RENOVE PLANA
Plan Renove Electrodomésticos Etxeko Tresna Elektrikoen Renove Plana
Etxetresna elektrikoak aldatzeko aukera aparta!


Vallejo, Iñurrategi eta Zabaltza, Makalura bidean. BAT

**MENDIA** > MAKALU NATURGAS ESPEDIZIOA

## Baruntse igota, Makalurako bidea hartu du espedizioak

Makalula-La igota, espedizioak aklimatazio saioan beste urrats bat egin du

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Martitzenean 06:30 aldera (hango ordua) abiatu ziren gorantz Makalu Naturgas espedizioko kide Iñurrategi, Vallego eta Zabaltza, eguraldi iragarpena lagun: "Martitzena eta eguaztena egonkor, ostegunean elurra eta eguraldiak okertzera egingo du". Martitzenean bertan lehenengo kanpalekura iritsi ziren (6.700m), eta atzo Makalu-La lepora iristekoak ziren. Aurreikuspenak betetzen badituzte, gaur, eguena, beheko kanpalekura itzuliko dira.

Albertok 1991n igotako maldak ditu berriro aurrez aurre. Orduan, Felix anaia eta Felipe Uriarterekin batera gailurra egin zuten bide arruntetik. Eurekin batera Iñaki Garijo (Irun), Jesus Arregi (Aretxabaleta), Joseba Arregi (Aretxabaleta), eta Iñaki Otxoa Olza izan zituzten espedizioko kide.

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Behingoz, UDAko zaleak Mondrako jarraitzaile

Mondrak bigarren postuan dagoen Hernaniren kontra jokatuko du asteburuan Mojategin; Aloñak Zumaiakoren bisita izango du


Eriko, Hernaniren kontrako lehian; UDAk Idiazabalen jokatuko du. GOIENKARIA

**X.U.** > BERGARA

Mondrak eta Aloña Mendik jokatuko dute asteburuan etxean, UDAk ezer jokoan ez duen Idiazabalen zelaira egingo du-eta bidaia. Ligako 29. jardunaldiak, baina, izango du berezitasunik, sailkapenak baldintzatuta Mondrak inoiz baino zale gehiago izango ditu-eta: Arrasatekoak, eta baita Aretxabaletakoak ere.

Zapatuan, UDAk (61) baino bost puntu gutxiago dituen Hernanik (56) jokatuko du Mojategin. Seguruenik, arrasatearrek ez dute ondoko bizilagunari mesede egiteko aparteko motibaziorik, baina bai ligako oilarretako bat mendean hartzeko gogoa. Eta gogoa bakarrik ez, baita beharra ere, erabateko lasaitasuna hartzeko Arrasateko taldeak oraindik pare bat garaipen behar ditu-eta.

**ALOÑAK ZUZENDU EGIN DU BIDEA**

UDAk duen helburu beragatik borroka egiteko berandu, baina Aloñak (50) ondo zuzendu du bidea, dagoeneko hiru partidu irabazi ditu-eta jarraian. Eta helburua garbi dute: ahal bada, bigarren dagoen Hernani harrapatu –datorren astean elkarren kontra jokatuko dute–.

Hirugarren mailara bidean, UDAk abantaila hori dauka, hernaniarrek kontrario gogorrak izango dituztela: Aloña, Pasaia, Trintxerpe... Ikusteko dagoena da ligako azken bi derbietan UDAk zer-nolako Mondra eta Aloña izango dituen aurrean. Badago horren gainean berba egiteko denbora.



**ESPELEOLOGIA** > IKASTAROA

# Haitzuloetako salbamendu ikastaroa egingo dute Oñatin

Bihar eta etzi izango da ikastaroa Arantzazuko Gesaltza koban Euskal Herriko espeleologia taldeak antolatuta



Espeleologia taldeko kideak esku-ohea kobatik ateratzen. AMET

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Oñatiko Gesaltza koban haitzuloetako salbamendu ikastaroa egingo dute bihar eta etzi. Apirilaren 19an Aloña Mendiko espeleologia taldeko eta Euskal Herriko espeleologia taldeko teknikoek behar bezala egokitu zuten koba ikastaroa bertan egin ahal izateko.

Euskal Espeleo Socorro taldeak Gesaltzako koba aukeratu du ikastaro honetarako, batetik aukera tekniko onak eskaintzen dituelako, eta bestetik geografikoki ondo kokatuta dagoelako.

**ESKU-OHEAK MUGITU**

Besteak beste, ikastaroan ikasiko dute esku-oheak kobetatik ateratzen. Horretarako hainbat oztopo gainditu behar izaten dira, eta tirolinak, kontrapisuak eta sokak erabili beharra egoten da. Guztira 30 lagun joango dira ikastarora, ibarrekoak sei izango dira.

"Asmoa da Gesaltzan espeleologia eskola finkoa sortzea; aste bukaerakoa lehenengo pausoa izango da", dio Andoni Olalde Aloña Mendi espeleologia taldeko presidenteak. Gaineratu du, baina, Oñatik aterpe baten beharra duela horrelako ekintzak antolatu eta mendizaleak hartzeko.

ESANAK

**"Asmoa da Gesaltzan espeleologia eskola finko bat sortzea; aste bukaerakoa lehenengo pausoa izango da"**

**Andoni Olalde** > AMET

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Murtzia-Eibar
Zapatua. 17:30. La Condomina.
Reala-Celta
Zapatua. 18:30. Anoeta.

**Gazte mailako Euskal Kopa**
Aretxabaleta-Durango
Zapatua. 17:45. Ibarra.

**Preferente maila**
Aloña Mendi-Zumaiako
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Idiazabal-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Arizkorreta.
Mondra-Hernani
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Lehen erregionala**
Aretxabaleta-Elgoibar
Egubakoitza. 15:30. Ibarra.
BTLS-Tolosa
Domeka. 18:00. Ipintza.
Orioko-Mondra
Egubakoitza. 16:30. Orio.
Antzuola-Ilintxa
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Urola-Bergara
Egubakoitza. 12:00. Argixao.

**Bigarren erregion. Igoera**
Bergara-Amara Berri
Zapatua. 17:00. Ipintza.

**Ohorezko mailako gazteak, Kopa eta jaitsiera**
Orioko-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Mendibeltz.

**Lehen mailako gazteak, igoera fasea**
Urola-Mondra
Egubakoitza. 16:30. Argixao.

**Gazteak, kopa**
Aretxa. Ariz.-Eibartarrak B
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Kostkas-Bergara
Domeka. 13:00. Matigoxote.
Aretxabaleta Arizm.-Beasain
Domeka. 15:30. Ibarra.

**Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsi.**
Allerru-Aloña Mendi
Zapatua. 11:45. Plazeta.
Elgoibar-Arrasate
Egubakoitza. 10:30. Mintxet.

**Lehenengo kadeteak, igoera**
Sporting-Aretxabaleta B-
Egubakoitza. 11:30. Herrera.

**Lehen. kadeteak, kopa**
Aloña Mendi B-Arizmendi
Zapatua. 10:00. Azkoagain.
Bergara-Zestoa
Egubakoitza. 11:30. Ipintza.

**Infantilen ohorezko maila, kopa eta jaitsiera**
Bergara-Lengokoak
Domeka. 11:30. Ipintza.
Aretxaba.Arizm.-Anaitasuna
Egubakoitza. 12:00. Ibarra.

**Infantil maila, igoera**
Aloña Mendi-Orioko
Egubakoitza. 16:30. Azkoagai.

**Infantil mailako kopa**
Arrasate-Eibartarrak
Zapatua. 12:00. Mojategi.

**Emakumezkoak, igoera fasea**
Soraluze-Arizmendi B
Domeka. 17:00. Ezozia.
Lazkao-Mondra
Domeka. 12:00. Arizti Handi.

**Emakumezkoen kopa**
Arizmendi-Aloña Mendi
Egubakoitza. 11:00. Almen.

**Emakumezko kadeteak F11, txapeldunen fasea**
Lazkao-Bergara
Zapatua. 10:30. Lazkao.

**Emakumezko kadet. F11. Kopa**
Mondra-Arizmendi
Domeka. 11:00. Mojategi.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila. Jaitsiera**
Goierri Verkol-MU
Zapatua. 18:00. Aldiri.

**Gipuzkoako seniorrak**
MU-Aloña mendi
Eguena. 20:00. Musakola.
Soraluce BKE-Goierri BKE
Zapatua. 19:00. Labegaraie.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-Erroibide
Egubakoitza. 11:00. Intxaurutxeta.

**ESKUBALOIA**

**Gipuzkoako Kopa. Senior mutilak**
Eibarko-Aloña Mendi
Egubakoitza. 12:00. Eibar.

**Gipuzkoako Kopa. Gazte neskak**
Usurbil-Aloña Mendi
Egubakoitza. 11:00. Oiardo.

**MENDI BIZIKLETA**

**Aramaioko 2. saria. Euskadiko Opena**
Domeka. 10:30. Aramaio.

aurtengo UDAN goza ezazu ingelesa ikasten

come and play
udaleku irekiak
Haurrek jolasean eta ondo pasatzen duten bitartean ingelesa ikasteko aukera daukate.
Ordutegia:
Goizetan 9:30etatik 13:00etara.
**Abegi-zerbitzua** ikasleentzat goizeko **8:30 etatik aurrera.**

| Iraupena: | 2 - 4 aste |
|---|---|
| Datak: | ekainaren 29tik - uztailaren 27ra |
| Adinak: | 5-14 urte |

igelesezko
udalekuak Nafarroan
Beire eta Lekaroz
Gure zentroek gela eta baliabide ugari dituzte. Gainera, ordenagailu-gela ere badute, eta horri esker, **metodorik berrienak** erabil ditzakegu ingelesa ikasteko. Instalazioetan, **kirol jardueren** programa zabala Eskain dezakegu.

| Tokia: | Datak: |
|---|---|
| Lekaroz | uztailaren 3tik 14ra |
| Beire | uztailaren 20tik 31era |

ikastaroak
atzerrian
Inglaterran, Irlandan, Kanadan, Estatu Batuetan, Australian, Txinan, Hegoafrikan, Suitzan.





www. mondragonlingua.com

ARRASATE
Araba Etorbidea 4
Tel. 943 71 20 55
mlarrasate@mondragonlingua.com

MONDRAGON LINGUA
**llingua** ingelesa ikasiko duzu.
palabrahitzaword



**> DEVOTCHKA**
Gaztemaniak!-eko kontzertua domeka iluntzean Oñatin **> 39**



**> MAHASTER RIVER**
*Nahasterrekan* diskoa aurkeztuko dute Bergaran, lagunartean **> 39**

**> ENEKO MUGURUTZA**
*El conquistador del fin del mundo* ETB-2ko realityan parte hartu du bergarararrak eta Patagonian bizi izandako esperientzia kontatu digu bergarararrak **> 42**











# 200 zorion, 'Ilunpean'!









Oraingo astean 'Ilunpean' saioaren 200.atala eskaini du Goiena Telebistak

Gaur egun Euskal Herri osoan ikus daiteke saioa, Tokiko telebista lokalen elkarteari esker

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Ibarratik Iribarrera 200 urrats. Martitzenean bete zuen GOITB-ko *Ilunpean* saioak 200. atala. Julio Ibarra, orduko *Teleberri*-ko aurkezlea izan zen lehen gonbidatua eta Jose Angel Iribar, Athleticeko atezain handia izandakoa, azken solaskidea izan dugu.

*Iluntzean* (hasierako izena hori zen) 2003ko otsailean jarri zuen abian GOITBk. Oihane Agirre programazio zuzendariak gogoratzen duenez, "ATBko *Bakarka* saioaren formulari eutsi genion, platoan egin ahal izateko programa nahi genuelako eta elkarrizketek joko handia eman dezaketelako, ikusi denez".

Saio arrakastatsua gertatu da eta horren lekuko dugu GOITBko *parrillan* duen tarteari eutsi izana. Gainera, Tokiko telebista lokalen elkartearen bidez Euskal Herri osoan ikusten da gaur. Izen aldaketa Tokikora jauzia egitean izan zen, "iluntzean hitza ez dutelako toki guztietan ezagutzen eta saioari tonu intimoagoa emate aldera. Dekoratuari baino garrantzi handiagoa eman nahi izan diogu pertsonaiari, haren bestelako alderdiak azaleratzeko ahaleginetan", dio Agirrek.

Aintzane Gardoki izan zen saioko lehenbiziko aurkezlea. Lehendik ere bazuen eskarmentua kameren aurrean, Arrasate Telebistan eta Euskal Telebistan hain zuzen. Gardokik gogoratzen duenez, "aurretik ATBko *Bakarka* saioan ibili arren, berriro hutsetik hastea bezala izan zen eta lehen saioan oso urduri nengoen. Gainera, Julio Ibarra etortzekoa zen, eta egun horretan Lakua hotelaren inauguraziora joan beharra zeukan. Langostinoekin ziharduela eta berehala etorriko zela esan zigun telefonoz, eta gu urduriago oraindik... Azkenean heldu zen eta ondo atera zen grabazioa. Gasteizera bueltan, Ibarrak zain eduki zuen Lehendakaria, Lakua hoteleko arratsaldeko inaugurazio ekitaldian".

**DOKUMENTAZIOA, EZINBESTEKOA**

Elkarrizketa ondo gertatzeak dokumentazio lan ikaragarria eskatzen duela dio Aintzane Gardokik: "Hasiera hartan, ez genuen Internetik, eta nahikoa lan izaten genuen gonbidatuaren inguruko informazioa batzen. Haren lagunengana, lankideengana edo familiartekoengana jotzen genuen eta behin baino gehiagotan gonbidatua zur eta lur uzten genuen: *Nola demontre dakizue hori ba?* esaten ziguten. Hor dago, neurri handi batean, saioaren arrakasta. Azken baten figura publiko direnen beste alderdi batzuk ere, ezkutukoak kasu

(38. orrialdean jarraitzen du)

# 200 zorion, 'Ilunpean'!

(37. orrialdetik dator)

askotan, ezagutzeko aukera ematen duela".

Zaila egiten zaio Aintzane Gardokiri aurrez aurre izandako gonbidatuetatik bat nabarmentzea: "Akordatzen naiz Miarritzeko Baleteko zuzendari Filgy Clabery-rekin oso gustura egon nintzela baina baita beste askorekin ere: Martxelo Otamendi, Fermin Muguruza, Estitxu Fernandez, Arnaldo Otegi, Julio Ibarra bera...". Gonbidatu guztietatik bakarrak eskatu zion aurretik galderak bidaltzea: "Setien gotzainaren prentsa arduraduna izan zen. Aspalditik geneukan Setien ekartzeko gogoa eta azkenean etorri zen. Pisu handiko pertsona dela segituan nabaritzen duzu, normalean baino tonu serioagoa izan baitzuen elkarrizketa hark, interesgarria oso".

Edozein modutan, Gardokik azpimarratzen duenez, inolako maliziarik gabeko saioa da *Ilunpean* eta elkarrizketatuak gustura etortzen dira, ahoz aho zabaldu izan den saioa delako eta askok eta askok dagoneko aurretik ezagutzen dutelako. Bide luzea egin du jadanik. Egindako galderaren batekin damutu izan den galdetuta, zera dio Gardokik: "Ez. Baina Arzallusi puentinga egingo zukeen galdetu nion eta harrituta geratu zen...".

**OIHANA ELORTZARI LEKUKOA**

Aintzane Gardokik Oihana Elortzari utzi zion saioaren lekukoa. Oraindik ere barre egiten du Oihanak Porrotx pailazoari Gabon batzuetan egindako elkarrizketa gogoratzean. "Primeran pasa genuen eta telebistako denok dantzan bukatu genuen saioaren ostean, *Maite zaitut* kantarekin, gero Gabonak zoriontzeko aprobetxatu genuena". Ez bakarrik hori: denbora luzean izan zuen Oihanak Porrotxen argazkia ordenagailuko pantailan. *Ilunpean*-en ibilbide luzean GOITBko platotik kanpo grabatutako elkarrizketa bakarra Mikel Laboarena izan zen: "Bilboko Carlton hotelean egin genuen, Laboaren azken diskoaren aurkezpena aprobetxatuta. Oso elkarrizketa berezia izan zen hura" dio kazetari oñatiarrak. Bi arantza ditu gonbidatuei dagokienean: Juan Mari Arzak eta Jone Goirizelaia ezin saiora ekartzea. Gustura elkarrizketatuko lituzkeen beste hiru izen eman dizkigu: Arritxu Iribar Euskadi Irratiko kirol kazetaria, Kontseiluan ibilitako Pili Kaltzada eta Denis Itxaso Donostiako PSE-EEko zinegotzia.

**BI AURKEZLE ARRASATEAR**

Iker Barandiaran arrasatearra izan genuen saioko hirugarren aurkezlea. Juan Carlos Perez Itoizeko kantari ohiari egindako elkarrizketa dauka gogoan; "lorpen handia izan zen eta berak eskatuta GOITBn eman genuen bakarrik. Elkarrizketa hura ez zen Tokiko bidez zabaldu. Arantxa Gurmendi ere sorpresa atsegina izan zen; Ez dok hamahiru taldearen sorreran ibili zen *Goenkale*-ko aktorea, musika talde *ye-ye*-etan ere bai, minifalda jantzen aurrenekoetakoa... Ez nion *Goenkale*-ri buruz galderarik egin eta eskertu egin zuen. Gonbidatu guztiek daukate berezitasunen bat eta gauza bitxiak sortzen dira askotan". Azkena heltzen orain arteko aurkezlerik gazteena izan da: Jon Berezibar. Haren ustez, "elkarrizketak aurre egin ahala gonbidatuak eroso sentitzen dira eta gu ere bai. Formatu erakargarria da saioarena, ikuslea harrapatzeko modukoa". Hasieran zorte txarra izan zuela dio Jonek; "nahiko *gafe* hasi nintzen; gonbidatu askok kale egin zidaten, istripu bategatik, ebakuntza izateagatik, beste batek amama hil zitzaiolako... Poliki-poliki banabil beldurra kentzen, eta gustura sentitzen. Aitor Uriarte Latzeneko kantaria izango da hurrengo gonbidatua". 201. urratsa izango da martitzenekoa.



Aurkezle ibilitakoak, GOITBn atzo: Aintzane Gardoki eta atzerago Jon Berezibar, Iker Barandiaran eta Oihana Elortza. MONIKA MONTERO

## 'Ilunpean': osagarri gutxirekin egindako plater bikaina

Marino Lejarreta, Setien, Benito Lertxundi, Xabier Arzalluz, Arnaldo Otegi, Iñaki Perurena, Jose Antonio Ardanza, Joan Mari Irigoien, Xabier Amuriza, Naroa Agirre, Bernardo Atxaga, Aintzane Ezenarro, Jose Mari Iriondo, Euskitze... 200. zenbakira iritsi arte. Horiek izan dira saioak izan dituen aurkezleekin aurrez aurre izan diren gonbidatuetako batzuk. GOITBko ikurretako bat bilakatu da dagoeneko Ilunpean. Gaur egun telebistan hain arrotza egiten den tonu lasaian, zaratarik gabe egindako saioa, hitzari garrantzia emanez. Kamerak, mikrofonoak eta bi lagunen arteko berriketaldia, besterik ez. Osagarri gutxi, plater bikaina.

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

### AHOLKULARITZAK

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

### ARKITEKTO TEKNIKOAK

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

### EKONOMISTAK

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA**
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behea
T: 943 533 888
F: 943 533 865
uribe.arrobi@euskalnet.net

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

### PROKURADOREAK

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**MUSIKA** > GAZTEMANIAK!

# Devotchka taldearen kontzertua Oñatin

Denvergo laukoteak eta Pony Bravo taldeak domekan Oñatiko gaztelekuan, 20:00etan, Gaztemaniak! zirkuituaren barruan

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Gaztemaniak! zirkuituaren barruan, AEBetako Devotchka eta Sevillako Pony Bravo taldeek emanaldia egingo dute domekan, Oñatiko gaztelekuan, 20:00etan.

**MUSIKA ESTILO ASKO**

Devotchka taldea *Little Miss Sunshine* filmeko soinu-bandan parte hartu zuelako egin zen ezagun. Gainera, lan harengatik Grammy sarietarako izendapena jaso zuen.

Soinu aparta eta bitxia egiten du laukoteak, eta horri esker arrakasta lortu dute.

Euren eragin musikalak eta erabiltzen dituzten instrumentuak kontuan hartuta, musika garaikidearen kanonetatik erabat aldenduta daudela diote adituek. Musika estiloari dagokionez, etiketa ezberdinak jarri dizkiote kritikariek: folk musika, polka, zirkuko musika, punk folka edo rock-and-rolla egiten dutela esaten dute. Askotariko estiloetako ukituak dituzte.

**DISKO BERRIA**

Devotchka taldeak *A Mad & Faithfull Telling* lan berria aurkeztu du taula gainean.

Nikc Urata, Tom Hagerman, Jeanie Schroeder, eta Shawn King dira taldeko kideak.

**PONY BRAVO**

Estatubatuarren aurretik, 2006an sortutako Pony Bravo taldeak joko du. Sevillako taldeak rock-and-rolla egiten du, baina beste ukitu batzuk ditu; besteak beste, AEBetako rockaren eta blues flamenkoaren, Afrikako eta Andaluziako musikaren, *western*-aren eta koplaren ukituak.

Daniel Alonsok, Dario del Moralek, Pablo Peñak eta Javier Riberak osatzen dute taldea.



Devotchka taldeko kideak zuzeneko emanaldi batean. ETXAGOK AMA BEGIRA



Sanchez, Arkarazo, Azkarate, Laskurain eta Azkargorta. GOIENKARIA

**MUSIKA** > ZUZENEKOA, BERGARAN

# Lagunartean aurkeztuko du diskoa Mahaster Riverrek

'Nahasterrekan' diskoan parte hartu dutenak bilduko dira Zabalotegin, domekan

**M.B.** > BERGARA

Mahaster River bergararrek kontzertu berezia egingo dute domekan, Bergarako Zabalotegi aretoan, 19:00etan. Alegia, *Nahasterrekan* diskoan parte hartu duten kolaboratzaile guztiak igoko dira oholtza gainera; besteak beste, Olaia Ramos, Enrike Txurruka, Txus Alvarez eta Ebert Sanchez. "Kolaboratzaile bakoitzak diskoan egindako lan bera egingo du zuzenekoan. Olaia Ramosek ahotsa jarriko du kantu batean; Enrike Txurrukak teklatua joko du hainbat kantutan; Txus Alvarezek saxofoia joko du eta Ebert Sanchezek trabeseko flauta", esan digu taldeko kide Unai Azkaratek.

**BIGARREN AURKEZPENA**

Hirukote bergarararrak Gabonen aurretik egin zuen diskoaren aurkezpena Bergarako Etxagi tabernan, baina domekako kontzertuarekin bigarren aurkezpena egin gura dute. "Bigarren aurkezpenean diskoko parte-hartzaile guztiak egongo gara, eta guretako ohorea da. Lehen aurkezpena baino askoz indartsuagoa izango da", esan digute.

Kontzertuan lehen eta bigarren diskoetako kantuak eskainiko dituzte. Sarrerak txarteldegian salduko dituzte, hiru eurotan.

**BERTSOLARITZA**

# Helduendako bertso ikastaroa Eskoriatzan

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin batera, 16 urtetik gorakoendako bertso ikastaroa antolatu du. Hain justu ere, gaur da ikastaroan parte hartzeko izena emateko azken eguna. Interesatuek 943 71 46 88 telefonora dei dezakete. Partehartzaile bakoitzak hamar euro ordaindu beharko ditu.

**ESKOLAK, MARTITZENETAN**

Bertsolaritzaren gaineko ikastaroa hamar ordukoa izango da eta martitzenetan egingo dute, 19:00etatik 20:30era, maiatzaren 5etik ekainaren 16ra.

Besteak beste, bertsolaritzaren lehen ezagupenak, neurrien kontzeptua eta doinu ezberdinak landuko dituzte.

ULMA
ULMA Manutención, Koop. E.
Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**D E I A**

**Eguna:** 2009ko maiatzaren 8a.
**Ordua:** 10:30ean lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena.
**Tokia:** Santa Ana antzokia - Oñati.

**GAI ZERRENDA**

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2008ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2009ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2008ko ekitaldiko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. Auditorea izendatzea.
6. Emaitzak banatzea.
7. Bihurketa faktoreari buruzko erabakia berrestea.
8. 2008ko interesak sortzea eta kapitalizatzea.
9. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko eta interes publikoko beste xede batzuetarako ekarpenaren (H.K.S.E.) erabilera.
10. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak.
11. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
12. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
14. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
15. Galderak eta eskaerak.

*Oñati, 2009ko apirila*

OHARRA: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kontabilitate liburuak, emaitzak banatzeko proposamena eta kanpo auditoriak egindako gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusiaren epean aztertu ahal izateko.

FAGOR ARRASATE KOOP. E.
FAGOR

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**
**DEIALDIA**

**DATA:** 2009ko Maiatzaren 8an, ostirala.
**ORDUA:** 09.00etan lehen deian, eta 09:30ean bigarren batez.
**TOKIA:** Gesalibarreko "Aita Menni" Gaixotegiaren Batzar Aretoan, Arrasate.

**EGUNEKO AZTERGAIAK**

1. Aktak onartzeari buruzko informe eta erabakia.
2. Memoriaren irakurketa eta onarpena.
   2.1. 2008 gestioari buruzko akordioa.
   2.2. 2009ko Gestio Plana eta Plan Estrategikoko politika eta estrategia orokorrak onartzea.
3. "Mondragon industriarako automatizazioa" dibisioari eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4. 2008ko kontuen eta balantzeen azterketa.
5. 2008ko emaitzen banaketa.
6. Erregimen ekonomiko ari buruzko xedapen estatutarioak.
7. 2009 ekitaldirako lan aurrerakinen eta salbuespen neurrien inguruko erabakiak.
8. Kooperatibako estatutu sozialen 6, 18, 25, 27, 29, 33, 34, 48, 51, 52, 55, 56, 60 eta 61 artikuluak aldatzea.
9. Kooperatibako barne erregelamenduaren 38, 39 eta 65 artikuluak aldatzea.
10. Heziketa eta kooperatiba sustapeneko fondoa aplikatzeko irizpideak, 2/2005 arauaren indarraldia zabaltzea.
11. Kontseilu Errektorearen jakinarazpenak Fagor Taldearen berregokitze eta indartze proiektua.
12. Kooperatibako kontu aztertzaileen izendapena.
13. Kontseilu Errektorea berritzea.
14. Eskariak eta itaunak.

**Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek dohainik eskuratu edo bidaltzekoa.**

*Arrasate, 2009ko Apirila*
*Fagor Arrasateko lehendakaria*

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

**Aretxabaleta.** Eraikitzen ari den duplexa salgai. Bitartekorik gabe. Bruesa eraikuntzak. *www.bruesa.com*. Prezio negoziagarria. 626 60 11 07.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza Bidebarrietan. Terraza, hiru logela, sukalde-egongela, bi komun, trastelekua eta estudioa komunarekin. Eguzkitsua eta ondo zaindua. 670 26 58 39.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igogailuarekin. 660 02 42 88.

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza ematen da errentan San Andresen. 665 70 75 01.

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza ematen da errentan Zarugalde kalean. 656 75 00 94.

**Eskoriatza.** Berritutako baserria ematen da errentan. Deitu 693 80 40 47 telefonora.

**Oñati.** Hiru logelako etxea errentan. Bi bainugela, sukalde jantzia, egongela, bulego txikia, bi balkoi eta gas naturaleko berogailua. Laugarren solairua, igogailuarekin. Deitu 677 21 21 62 edo 677 61 84 88 telefono zenbakira.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Etxe txiki edo apartamentu bat alokatuko nuke pertsona bakarrarentzat, maiatzetik aurrera. 655 71 33 66.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan. 680 30 24 64.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Neskak bakarrik. 618 00 08 28.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan San Andresen, igogailu eta garajearekin. Pertsona arduratsua behar da, bertan bizi den pertsonarekin arduratu beharko du eta. Presazkoa da. 672 20 36 82.

**Arrasate.** Logela indibiduala. 190 euro. Telefonoa eta wi-fia barne. Mutil edo neska. Erdigunetik hiru minutura. Deitu 653 74 28 83 telefonora.

**Bergara.** Logela alokatzen da erdialdeko etxe batean. Hileko: 170 euro + gastuak. Deitu 15:00etatik 19:00etara. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53.

**Oñati.** Gela bat alokatzen da maiatzetik aurrera. Deitu 655 71 33 66 telefonora.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje irekia ematen da errentan Malvinetan, Olaran kalean. 687 60 51 24.

### 205. BESTELAKOAK

**Karabana gordetzeko** leku bila nabil. Deitu 646 37 76 57 telefono zenbakira.

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 680 61 96 98.

**Aretxabaleta.** 40 urtetik gorako neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 943 79 54 21.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Esperientziadun neska tabernan lan egiteko gertu. 650 59 93 91.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Etxerik etxe ile apaintzaile lanak egingo nituzke. 650 59 93 91.

**Arrasate.** 40 urtetik gorako emakume euskalduna lanerako gertu: umeak zaindu, etxeko lanak egin eta abar. 653 70 79 38.

**Arrasate.** Egun erdiz, osoz edo orduka lan egiteko gertu nago. 666 75 73 21.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita etxeko garbiketak egiteko ere. Mari. 649 30 13 60.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 663 65 78 43.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak orduka zaintzeko edo etxean bertan bizi izateko, nagusiekin arduratzeko. Deitu 680 30 24 64 zenbakira.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. Orduka edo etxean lo egiteko prest. 663 65 78 43.

**Arrasate.** Ile apaintzaile laguntzailea eskaintzen da ilea moztu eta tinteak emateko. 666 20 06 03.

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu dago garbiketa lanak egin edota haurren zein hirugarren adineko pertsonen zaintzarako. 14:00etatik aurrera. Gladis. 618 12 07 44.

**Bergara.** Josteko makinak konpontzeko gertu nago, eguneko edozein ordutan. 650 07 63 50 edo 652 07 63 50.

**Bergara.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabaimenarekin. 696 48 42 50.

**Bergara.** Mutil gaztea eraikuntzan edo autoa behar den beste edozein lanetan lan egiteko gertu. Deitu 696 48 42 50 telefonora.

**Bergara.** Neska lanerako gertu. Garbiketa lanetan edo adinekoak edo umeak zaintzen. Aste bukaeretan eta arratsaldeetan. 618 34 09 35.

**Bergara.** Paperak dituen emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu 686 99 59 41 telefonora.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu nago: garbiketak, nagusiak zaindu... Etxean bertan bizi izateko prest. Ana Luisa de los Santos. 671 27 78 36 edo 635 12 58 48.

**Debagoiena.** 50 urteko emakume esperientziaduna ume zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. Oti. 615 75 30 75.

**Debagoiena.** Arrasateko mutil gazte euskalduna edozein lan egiteko prest. Esperientzia makinen mantentze eta muntatze lanetan. Baita taberna eta jatetxeetako zerbitzari ere. 605 76 05 59.

**Debagoiena.** Arratsaldez nagusiak zaindu edo tabernako sukaldean lan egingo nuke. Deitu 636 11 23 40 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Edozein motako lanak egingo nituzke. Autoa daukat. Deitu 662 26 07 09 telefonora.

**Debagoiena.** Edozein motako lanak egiteko emakumea gertu: pertsona nagusiak zaindu, umeak zaindu, etxeak garbitu.. Eguerdietatik aurrera. Edurne. 605 76 44 31.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziak dauzkat. Deitu 628 40 58 27 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna edozein lanetarako gertu. 659 82 75 18.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. Deitu 671 87 14 06 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak zaindu, etxeak garbitu eta adineko pertsonak zaintzeko, gauez. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. 618 00 08 28.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Egunez zein gauez, etxean lo egiteko prest. 659 57 93 89.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Etxean bertan lo egiteko prest. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izango nintzateke. Deitu 630 88 54 46 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumezkoa Debagoieneko edozein herritan lan egiteko gertu. Pertsona nagusiak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan lo egiten. 659 57 93 89.

**Debagoiena.** Emakumezkoa gertu Debagoieneko edozein herritan lan egiteko. Pertsona nagusiak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan lo egiten. 606 05 07 93.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu garbiketa orokorrak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. Ainhoa. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten edo garbitzen arituko nintzateke. Socorro Mora. Deitu 627 14 63 79 edo 943 25 07 53 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Garbiketak egin edo nagusiak zainduko nituzke, orduka. 679 06 12 99.

**Debagoiena.** Gertu nago sukalde laguntzaile edo harrerako langile lan egiteko, arratsaldez. Paperak ditut, zuzen. Angela. 618 80 21 88.

**Debagoiena.** Metalurgian lan egingo nuke. Baita garbiketak egiten edo nagusiak zaintzen. Alberto. 620 12 78 46.

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu edo artzain lanak egingo nituzke baserrian. 660 84 44 42.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan jardungo nuke. 677 17 43 75.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu tabernak, eskailerak edo elkarteak garbitzeko edota sukaldean lan egiteko. Esperientziaduna. Deitu 943 08 18 13 edo 635 70 07 92 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska euskalduna lan desberdinak egiteko gertu. Zerbitzari moduan esperientzia. 667 94 07 25.

**Debagoiena.** Neska lan bila dabil. Deitu 943 79 75 14 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Etxean lo egiteko prest nago. Deitu 638 23 37 39 zenbakira.

**Debagoiena.** Sukaldaritzan, garbiketan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 630 20 12 03.

**Debagoiena.** Sukaldean edo nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan lo egiteko gertu nago. Deitu 676 73 90 05 zenbakira.

**Debagoiena.** Zerbitzari, sukalde laguntzaile, nagusi zaintzaile edo garbiketan egingo nuke lan. Juan. Deitu 666 75 73 21 telefono zenbakira.

**Etxez etxeko masaje** bioenergetikoak hirugarren adinekoendako eta nerbio-sisteman arazoak dituztenendako, batez ere. Deitu 645 70 34 10 edo 945 44 51 46 telefono zenbakietara.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Irakasle eta psikologoak Lehen Hezkuntzako laguntza eskolak emango lituzke. Deitu 645 73 04 69 telefonora.

**Arrasate.** Irakasle eta psikopedagogoa Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Esperientzia handia. Lantalde txikiak. Deitu 658 70 67 84 telefono zenbakira.

**Bergara.** Ingeles irakasle ezagunak azterketak gainditzeko eskolak ematen ditu. Deitu 616 12 56 29 zenbakira.

**Oñati.** Arkitekturako ikaslea gertu Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko ikasle talde txikiei laguntza eskolak emateko. 665 70 38 33.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astakumea.** Urtebeteko astakumea salgai. Arra da, beltza. Deitu 655 71 39 27 zenbakira.

**Cocker ingelesa** salgai. Beltza. Emea. Txertoak jarrita dauzka. 200 euro. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

### 703. EMAN

**Artzain-txakurra.** Mendiolako artzain-txakurra eskaintzen dut. Urte eta erdi dauka eta jabearen alboan joaten ikasitakoa da. 19:00etatik atzera deitu. 677 78 37 72.

### 704. BESTELAKOAK

**Yorkshire terrier** arrazako txakurra lapurtu digute. Mikrotxipa du. 619 32 62 27.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bitrozeramika** berria salgai. 686 99 59 41.

**Bizikleta.** Errepideko bizikleta salgai. 54 neurrikoa. Prezio onean. 628 00 76 62.

**Jatetxeko tresneria.** Mahaiak, aulkiak, lanparak, aplikeak, ontzi garbigailua... Deitu 649 84 67 09 telefonoa.

**Karroa.** Silver Cross markako karro ia berria bere poltsa originalarekin. Oso egoera onean dago. 350 euro, negoziagarriak. Dendan mila euro baino gehiago balio du. Tamaragatik galdetu. Deitu 679 23 27 93 edo 692 26 27 69 zenbakietara.

**Monty-a.** Kubierta berriak. Freno hidraulikoak, olio berriarekin. Berria dago. 150 euro. 685 78 42 27.

### 802. EROSI

**Borda** edo antzekoa duen lursaila erosiko nuke. Baita alokatzeko aukera ere. 669 17 09 51.

**Kongak.** Bigarren eskuko konga batzuk erosiko nituzke. 610 85 32 04.

**Lanabesak.** Bigarren eskuko motozerra eta orturako rotabatorra erosiko nituzke. Deitu 699 85 49 58 zenbakietara.

**Lursaila** erosiko nuke Bergaran. Ez etxea egiteko. 669 17 09 51.

**Urrezko** bitxiak edo urrea erosiko nituzke. 656 75 76 98.

### 806. GALDU

**Arrasate.** Kazadora laukiduna galdu nuen apirilaren 19an Kajoi tabernatik Iamairako bidean. Eskertuko da. 656 76 78 12.

**Motxila bat** utzi nuen ahaztuta Taupa taberna ondoan Aste Santu aurretik. Aurkitu baduzu, mesedez deitu ondorengo telefonora. Eskertuko da. 699 86 81 21.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Bergara.** Neska bat 37 eta 45 urte bitarteko mutil bergarar bila. Erakargarria eta diru arazorik ez daukana. Lagunak izateko. 666 70 32 86.

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasate-Gasteiz.** Egunero Arrasatetik Gasteizera joan-etorria egiten dugu. 08:00etan sartzen gara lanera eta 17:00etan irten. Norbait interesaturik egonez gero, deitu. *www.compartir.org*. 635 20 33 14.

**Astialdiko monitorea** izateko kurtso intentsiboa maiatzaren 1etik 5era. Autoa partekatuko nuke. 645 72 25 24.


DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 $m^2$, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 $m^2$, 2 terrazekin 60+30 $m^2$, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.



KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 $m^2$. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.


**ALDI BATERAKO LAN ESKAINTZA**

**ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA (AUKEA)**

Izangaiak udaletxean aurkeztu behar dira maiatzaren 7an, goizeko 11:00etan.

**Oinarri-arauak:** BAZen (goiz eta arratsalde) eta webgunean jaso daitezke *www.arrasate-mondragon.org*.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila

**ALDI BATERAKO LAN ESKAINTZA**

**INFORMATIKA LAGUNTZAILEA**

Izangaiak udaletxean aurkeztu behar dira maiatzaren 6an, goizeko 10:30ean.

**Oinarri-arauak:** BAZen (goiz eta arratsalde) eta webgunean jaso daitezke *www.arrasate-mondragon.org*.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal Saila



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 *www.baster-aldejatetxea.com*

**Eskaintza**

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56
*www.etxeaundi.com*

**Eskaintza**

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
*www.larrinetxe.com*

**Eskaintza**

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

**Berezitasunak**

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

**Martitzenetan itxita**






## Santa Ana

Uribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE
Tel.: 943 79 49 39
*www.santaanamondragon.com*

**Eskaintza**

- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak, pintxoak, bokatak eta gozoak enkarguz norberak etxera eramateko.
- Ezkontza, despedida eta kintoen bazkariak

**Igande gauean itxita.**



## Txondorra erretegia

Bizkaia etorbidea 9 / ARRASATE
Tel.: 943 79 42 76

**Eskaintza**

- Asteartetik Ostiralera menu berezia.
- Sagardotegiko menua.
- Menu pertsonalizatuak.
- Karta.
- Atseden eguna: Astelehena

**Haragi eta arraina txingarretan erreta.**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**

Eneko Mugurutza > 'El conquistador del fin del mundo'-ko parte-hartzailea

# "Gogorra izaten zen jan barik probak egitea, ez genuen-eta indarrik"

Jatun ona den arren, "harrituta" gelditu da, janari faltari "oso ondo" egin diolako aurre; 29 egunen ondoren etxera itzuli zen, gaixo, baina adierazi digu Angelek ez zuela errurik izan: "Ahultasuna, sukarra eta deshidratazioa elkartu ziren eta etxera bueltatu behar izan nuen". Gotzon lagun minarekin harreman ona duela esan digu, eta hura ikusten du irabazle.

JASONE ZABALA > BERGARA

**Eneko Mugurutza bergararrak aurtengo *El conquistador del fin del mundo* lehiaketan hartu zuen parte; duela astebete ikusi genuen gaixo jarri zela eta etxerako bidea hartu behar izan zuela; mutil jatuna kontsideratzen den arren, ondo egin dio aurre janari faltari Patagonian egon den 29 egunetan. Errealitatera itzuli ondoren, ikasketekin eta pilotan jokatzen segituko du.**

**Azkenean, gaixotu eta etxera bueltatu behar izan zenuen. Zer gertatu zitzaizun?**

Nire lagun Gotzonen aurka proba galdu ostean *purgatorioa* deitutako txokora joan nintzen. Bertan bi egun egin nituen, baina ordurako 29 egun ziren lehiaketan parte hartzen eta nire gorputzak momentu hartan jo zuen behea.

Hamar kilo galdu nituen; 90 kilorekin joan nintzen bertara eta 80 kilorekin itzuli. Ahultasuna, sukarra eta deshidratazioa elkartu ziren eta etxera bueltatu behar izan nuen.

**Askok pentsatuko dute *purgatorioko* nagusi Angel nahiko gogorra izan zela zuekin eta hori izan zela zure ahultasunaren arrazoietako bat.**

Azkenean, Angelek bere papera bete du; hark ez dauka ni etxera joatearen inongo errurik; *purgatorioan* geunden hiru lehiakideok berdina jaten genuen eta neskei ez zitzaien ezer gertatu, eta nik, berriz, ez nuen zorte bera izan.

**Orokorrean, nola baloratuko zenuke Patagonian egondako 29 egunak?**

Esperientzia oso ona izan da eta gauza asko ikasi ditut bertan: gosea pasatzen, ezagutzen ez dituzun pertsonekin 24 ordu elkarbizitzen... Lagun asko egin ditut, eta hori ere asko baloratzen dut. Niretzat gogorrena gosea izan da; beste batzuendako, berriz, bertan egiten zuen hotza, baina niretzat janari falta izan da gogorrena, jatuna naiz-eta; hala eta guztiz ere, harrituta gelditu naiz, janari faltari oso ondo egin diodalako aurre. Hala eta guztiz ere, gogorra zen jan barik probak egitea, ez genuen-eta indarrik.

**Nolakoa izan da errealitatera bueltatzea?**

Patagoniako esperientzia bizi ondoren eta berriz ere errealitatera itzultzean –ohe batean lo egin, ondo jan...– baloratu egiten duzu ez daukazun hori; baina, egia esan, hori lehenbiziko hilabetean gertatzen da, gero hori baloratzeari uzten diozu, betiko bizimodura ohitu egiten zarelako eta behar duzun dena daukazulako.









JASONE ZABALA

PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak:** Erdi Mailako Mantentze Zikloa. **Zaletasunak:** Mendira joan, lagunekin ibili eta parranda. **Mania bat?** Zerbait jaten dudanean ezin dut ikusi nire ondokoak ahoa zabalik jaten. **Bizio bat?** Jatea. **Musika talde bat?** Kaotiko. **Bidaiatzeko toki bat?** Argentina. **Zer gorrotatzen duzu?** Gezurra. **Pilotari gustukoa?** Juan Martinez de Irujo. **Berriz Patagoniara joanez gero, zer eramango zenuke hara?** Janari asko motxilan. **Amets bat?** Mundua hobeto ezagutzea.

**Orain, ezaguna zarenez, pilota partiduetan aurkariek errespetu handiagoa dizute?**

Errespetua, bera; telebistan agertzeagatik katxondeo pixka bat bai, baina besterik ez.

**Lehiaketa barruan zure anaia kontsideratzen zenuen Gotzonekin baduzu harremanik?**

Ia astero elkartzen baldin bagara ere, azkenean, pixkanaka galtzen zoaz harreman hori, distantziagatik; baina erlazioa ona da, bai harekin eta baita beste kide batzuekin ere. Ahal dugunean bazkaltzeko elkartzen gara lehiaketan parte hartutakook.

**Lehiaketako onena zer izan da zuretzat?**

Bertan bizi izandako esperientzia ikaragarria eta han egindako lagunak. Aukera baldin badut, nahiko nuke berriz ere Argentinara bueltatzea.

**Eta txarrena?**

Pasatutako gosea, zalantza barik; ez horrenbeste probak galtzea, nahiz eta batzuek ez duten kiroltasuna erakutsi galtzeko orduan; nik pilota partiduak jokatzen ditudanean galtzera ohituta nago, eta zentzu horretan ez dut arazorik izan.

**Esan dezakegu hartu diozula eskua zerra erabiltzeari?**

Ainararekin proba egin nuenetik, oraindik ez dut zerrarik ukitu! Enbalajean lanean aritu nintzen Argentinara joan aurretik, baina zerra gutxi erabiltzen genuen bertan!

**Telebistan agertu izanak eta modu baten edo bestean jendeak zu ezagutu izanak ekarri dizu buruhausterik?**

Nahiko lotsatia naiz, eta leku batera joan eta jendeak argazkiak eta autografoak eskatu dizkidanean, ez dut oso ondo pasatu, egia esan.

**Zure ustez, nor izango da aurtengo irabazlea?**

Ba, hori oso argi daukat: momentu honetan Condorren taldeko bakarra gelditzen da lehiaketan, Gotzon, eta hark irabaztea nahiko nuke.

# 'Betizu eta Urrezko Zintzarria' filma Goiena Telebistan

Etxeko gazteei zuzendutako euskarazko filma asteburuan GOITBn

**GOIENKARIA** > ARRASATE
*Betizu eta Urrezko Zintzarria* filma eskainiko du asteburuan Goiena Telebistak. *Betizuak* lagun baten bila abiatuko dira film horretan. Bidaia horrek urrezko zintzarriaren misterioan barneratuko ditu; hain zuzen ere, zintzarri hori ukitzen duenak behi guztiak kontrolpean izateko ahalmena bereganatzen du. Bidaia arriskutsua izango da *Betizuek* egin beharko dutena, eta bide horretan erronka askori egin beharko diote aurre.

*Betizu eta Urrezko Zintzarria* euskarazko filma zapatuan eta domekan eskainiko du Goiena Telebistak; zapatuan 15:30ean eta domekan, berriz, 08:00etan. Goza ezazue euskarazko filmaz!

**GOITB, 'Euskarazko filma'**
> Zapatua, 15:30
> Domeka, 08:00


*Betizu eta Urrezko Zintzarria* filmeko eszena bat. GOITB

## telebegi

**Oihane Agirre**
'oagirre@goiena.com'

### Herriz herri 'Kantari'

Hasi da *Kantari* karaoke ikuskizunaren bira. Asteburuan Oñatiko Gaztelekuan izan zen Goiena Telebista grabatzen. Taula gainean ia 200 haur eta gaztetxo. Saioa grabatzen hasi baino lehen, urduritasuna zen nagusi; batzuk azazkalak jaten, komunerako joan etorriak... Lau, hiru, bi, bat... aurrera! Eta bigarren edizio honetako mailak geu ere harritu egin gaitu. Kantua eta dantza ondo ikasi zituztela igarri zen eszenatokian.

Telebista kate askotan pil-pilean dagoen formatua dugu: *Operación Triunfo*, *Fama*... Eta GOITBn geureganatu egin dugu; *Kantari* ez da lehiaketa bat eta gaztetxoek euskal kantuak bakarrik abesten dituzte.

Lerro hauek aprobetxatu nahiko nituzke Gaztelekuko langileei eskerrak emateko. Eta gogorarazi hurrengo zita Aretxabaletako Arkupen izango dela maiatzaren 9an eta 10ean.

# 3.60 aretorako gonbita

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Musika-opariak izango dituzte datorren astean Arrasate Irratian. Hain zuzen ere, iragarri dute maiatzaren 8an 3.60 aretoan Norman, Foxy Boxxi eta The Shaggin Wagon musika taldeek kontzertua egingo dutela; bada, irratiko entzuleak kontzertura gonbidatzeko sarrerak zozkatuko dituzte. Eta, zelan ez, Jose Luis Abuin masajistarengana joateko bonuak ere zozketatuko dituzte.

**Arrasate Irratia, "Igo Autobusera"**
> Egubakoitza, 11:30etik 11:45era.


GOIENKARIA

# Mahaster River taldekoekin 'Musikantoi'-n

Bergarako Mahaster River taldeak bigarren diskoa kaleratu berri du eta, *Mahasterrekan 09 Tourra* izenburupean, diskoa aurkezten dihardu taldeak Euskal Herrian barrena. Hain justu, aurkezpen bira horren barruan Bergaran eskainiko dute domekan kontzertua, eta hori *Musikantoi* saioak eskainiko du eguenean. Gainera, taldekideekin elkarrizketak egingo ditu Maider Arregik.

**GOITB, 'Musikantoi'**
> Eguena, 22:00
> Egubakoitza, 23:15

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## astea GOITBn

**Eguena, 30**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Euskal herria lau haizetara.
**14:15** Euskal kantu liriko berria.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Ikuskizuna.
**16:15** Zaharrak berri.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Musikantoi.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Erreportajea.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Egubakoitza, 1**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** wasemak.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Zapatua, 2**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Wasemak.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 3**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** wasemak.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 4**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Erlo klip.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Itsasoari begira: Berdelaren arrantza III.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wasemak
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Aztiri bertso saioa.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Martitzena, 5**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa: Yogurteko mousa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Wazemak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Euskal Herria lau Haizeetara: Urola eta Deba Aranak.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 6**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**22:45** Euskal herria lau haizetara.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

## herritarrak galdezka

### GARAGARTZA AUZOKO ELIZONDO AURREAN ZEBRA-BIDEA FALTA DA

**Arrasateko irakurle batek kexa bidali digu aste honetan. "Arrasateko Garagartza auzoan, Santa Agedarako bidean, Elizondo jatetxearen parean autobus geltoki bat dago; kontua da bertan bidea gurutzatzeko ez dagoela zebra-biderik jatetxetik geltokira eta geltokitik jatetxera pasatu nahi duenarendako. Zeinen ardura da bertan zebra-bidea ipintzea?", amaitu du herritarrak.**


Pibote gorria dagoen lekuan zegoen falta den semaforoa. LEIRE KORTABARRIA

Arrasateko Udalarekin hitz egin dugu Elizondo pareko autobus geltokiaren inguruan; bertatik adierazi digute Udalak bere egunean Foru Aldundiarekin hitz egin zuela konponbide bat topatzeko asmoz, eta, errepidea Aldundiarena denez, eskatu zion zebra-bide bat edo Aldundiak deritzon beste segurtasun neurriren bat ipintzea beharrezkoa zela; Arrasateko Udalekoek adierazi digute idatziz ez zietela erantzun, baina telefonoz esan zietela ez zutela ez semaforo ezta zebra-biderik ipiniko eta halako neurriak aurrera eramateko errepidearen bi aldeetan urbanizazio bat edo etxebizitzak egon behar zirela.

### OLAKUAKO SEMAFOROA, ORAINDIK KONPONDU GABE

**Oñatiar batek bidali digu kexa: "Olakua auzoan kamioi batek bertan zegoen semaforoa apurtu zuen duela hiru aste eta oraindik semafororik gabe gaude. Noiz konponduko dute?".**

Oñatiko udaltzainburu Idoia Lazpitarekin egon gara eta hark adierazi digu semaforo berria apurtu zen lehen egunetik dagoela eskatuta berria, baina aurretik bete beharreko izapide batzuk daudela, eta laster ipiniko dutela. "Semaforo bakarra utzi genuen funtzionamenduan, baina ikusi genuen oso arriskutsua zela, eta erabaki genuen haren argindarra ere moztea".

### LABEGARAIETA KIROLDEGIKO ITURRIA ITXITA DAGO

**Bergarar batek posta elektronikoz bidali digun mezuan ondorengo kexa azaldu digu:" Joan den Aste Santuko jaiegunak Bergaran eman nituen. Egun batzuetan eguraldi ona egin zuela aprobetxatuz, Labegaraietako kiroldegira joan nintzen seme-alabekin; kiroldegia itxita zegoen, eta hori uler dezaket, baina nire harridurarako, kanpoko aldean dagoen iturria ere itxita zegoen. Ez da iturri publikoa? Zergatik itxi zuten?", galdetzen du herritarrak.**

Udalarekin jarri gara harremanetan herritar horri erantzun bat eman nahirik. Bertatik adierazi digute Labegaraietako kiroldegian dagoen iturria publikoa dela, baina Udalak ez zuela itxi Aste Santu garaian; adierazi digutenez, matxura bat gertatu zen eta hori dela-eta ura moztu behar izan zuten matxura konpondu bitartean; amaitzeko, esan digute konponduta edota konpontzeko abisua pasatuta dagoela eta Udalaren izenean barkamena eskatzen die erabiltzaileei, sortu ahal izan duten eragozpenengatik; hala eta guztiz, argi utzi nahi dute Udalak ez zuela iturria itxi.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin.
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com



**Julian Garitanok** eta **Jesusa Badiolak** urrezko ezteiak ospatuko dituzte datorren maiatzaren 3an. 50 urte aberats horiek familia giro ezin hobean ospatu eta disfrutatuko dute seme-alaba, errain, suhi, iloba eta anai-arrebekin batera. Zorionak.




**Candi Larrañagak** eta **Karlos Elortzak** maiatzaren 6an beteko dituzte urrezko ezteiak. Hori dela-eta, domekan familia guztia bilduko da haiekin batera ospatzeko. Familiakoek "zorionak eta orain arte bezala segitzea" opa diete biei.



**Nuria Fernandez** eta **Ander Agirreurreta** ezkonduko dira zapatuan Arrasateko udaletxean. Bazkalduko dute Zelai-Zabalen eta ezkon bidaian joango dira Costa Ricara. Zorionak!

## bono fotoa




### Eskualdeko ze herritako azoka da hau eta ze plazatan dago?

**Argazkia eta galdera >**
Miguel Angel Elkoroberezibar

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
Bergarako **Carlos Gallastegi**.
Zorionak!
**Erantzun zuzena: Foruen Enparantzako Lazarragatarren jauregian.**

Garmendia Ardoak
LARCHAGO
Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!
* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008. / Larchago kriantza 2006. / Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

**ERANTZUNA** ..........
IZEN-DEITURAK ..........
HERRIA .......... TELEFONOA..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Ostirala, 1**
Arratsaldean argitze aldera egingo du eguraldiak. Goizean giro goibel eta umela izango dugu.



**Zapatua, 2**
Tenperaturak gora egingo du; hodei gutxiago izango dugu eta tenperatura atsegina izango da.

### EUSKAL HERRIAN

Euria egingo du zubiaren hasieran, baina poliki-poliki tenperaturak gora egingo du eta hodeiek eguzkiari utziko diote lekua asteburuan.

### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Eguena, 23 — **3° C**

**MAXIMOA** Eguena, 23 — **27° C**

**ASTEKO EURIA** ($l/m^2$) — **38,4 L**

| | Max. °C | Min. °C | Euria $l/m^2$ |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 22** | 20 | 6 | - |
| **Eguena, 23** | 27 | 3 | - |
| **Egubakoitza, 24** | 24 | 4 | 2,7 |
| **Zapatua, 25** | 10 | 9 | 9,1 |
| **Domeka, 26** | 11 | 8 | 8,7 |
| **Astelehena, 27** | 16 | 8 | 10,2 |
| **Martitzena, 28** | 15 | 8 | 7,7 |



**Raul Benito** eta **Bittori Romeo** arrasatearrak zapatuan ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Ondoren, Itziarko Salegin ospatuko dute egun berezia familia eta lagunekin. Ezkonbidaian New York eta Punta Canara joango dira. Lagunen partetik, zorionak!



**Lorea Lasagabaster** eta **Ibon Eraña** aretxabaletarrak bihar, maiatzaren 1ean, ezkonduko dira Aretxabaletan. Lerro hauen bitartez zorionak eman nahi dizkiegu, bihotzez, familia eta lagunen partetik.



**Ana Nevado** eskoriatzarra eta **Patxi Orobengoa** arrasatearra ezkondu egingo dira zapatuan, maiatzak 2, Eskoriatzako San Pedro elizan. Ondoren Oñatiko Etxe-Haundi jatetxean egingo dute eztei bazkaria, familia eta lagunekin. Haien partetik, zorionak bikote!



**Natalia Gomez** eta **Aitor Etxebarria** arrasatearrak maiatzaren 2an ezkonduko dira Uribarriko elizan. Ezkontza egun ederra pasa dezatela opa diete etxekoek: "Zorionak eta patxo handi bana, etxekoen partetik!".



**Maite** eta **Jorge** Leintz Gatzagako Dorletan ezkonduko dira etzi, zapatuan. Ondoren, familiakoak eta lagunak Gure Ametsara "sabelak ondo betetzera" joango dira. Koadrilakoen partetik, "ondo-ondo pasatu Costa Rica aldean, bikote".





**Isabel Lintzoain** eta **Andres Gabilondo** bergararrek urrezko ezteiak ospatuko dituzte zapatuan familiakoekin batera. Orain dela 50 urte ezkondu ziren, Bergaran, maiatzaren 2an. Zorionak, familiakoen izenean!





**Fabri** eta **Alberto** aretxabaletarrak 1959ko maiatzaren 2an ezkondu ziren Zamorako Morales de Toron. Orain, urrezko ezteiak ospatuko dituzte familiarekin asteburuan. Seme, iloba eta familiako gainontzeko guztien partetik zorionak eman nahi dizkiote bikoteari.

OROIGARRIA

## Espe
## Elizondo Erbiti

Guria tabernakoa.

Arrasaten hil zen, 2009ko apirilaren 24an, 77 urte zituela.

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.

b+b batu-banatu · Goiena Komunikazio Zerbitzuak



Oñatin, 2009ko apirilaren 30ean.

OROIGARRIA

## Maria Teresa
## De La Torre Rodriguez

Ugutz Tristan De La Torre ikaslearen ama.

2009ko apirilaren 23an hil zen.

*Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.*

Ikasle, guraso eta langileek
bat egiten dugu senideen saminarekin.

Arizmendi ikastola

Arrasaten, 2009ko apirilaren 30ean.

ESKER ONA

## Jose Antonio
## Ayastuy Garai

Donostian hil zen 2009ko apirilaren 25ean, 73 urte zituela.

Haren emaztea: Kontxita Berezibar. Seme-alabak: Danel, Maria eta Iban, eta Lutxia. Iloba: Kerman. Arreba: Pureza eta Juan Bautista Ruiz de Zarate. Eta gainerako sendikoak:

elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko apirilaren 30ean.

ESKER ONA

## Esperanza
## Elizondo Erbiti

'Espe', Eduardo Azpiazuren alarguna

Arrasaten hil zen, 2009ko apirilaren 24an, 77 urte zituela.

Mila esker danoiri
gurekin egoteagatik.

Oñatin, 2009ko apirilaren 30ean.

ESKER ONA

## Jesus
## Moreno Leibar

Arrasaten hil zen 2009ko apirilaren 22an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2009ko apirilaren 30ean.

OROIGARRIA

## Alberto
## Etxabe Lete

Mendiolan hil zen 2008ko maiatzaren 3an, 41 urte zituela.

*Beti gogoan*
*izango zaitugu.*



Biotzez zure koadrilakoek.
Eskoriatzan, 2009ko apirilaren 30ean.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta astelehenko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle (CIES).**



Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

**Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99**
**e-posta: euskalduna@harrespil.net**

# Apirilak 30-Maiatzak 7

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Antzerkia



BERGARA

**> 'Marika de playa' Glu-Glu antzerki taldearen eskutik egubakoitzean**

Glu-Glu taldearen azken lana ikusteko aukera izango da egubakoitzean, maiatzaren 1ean, Bergarako Zabalotegi aretoan, 22:30ean, Patxi Perez eta Mila Espiga aktoreekin. Sarrerak 5 eurotan izango dira salgai.

## Musika



OÑATI

**> Devotchka talde estatubatuarra domekan Oñatiko gaztelekuan**

Gaztemaniak! zirkuituaren barruan, Denverko Devotchka taldearen kontzertua domekan gaztelekuan, 20:00etan. Little Miss Sunhine filmeko soinu-banda egin zuen; eslaviar eta ijito sustraiak, folka eta punk-rocka uztartzen dituzte.

## Antzerkia



ARRASATE

**> '¿Se puede?' umorezko antzezlana domekan Amaia antzokian**

MaMaCrea taldearen antzezlana, umore beltzaren eta zuriaren artean kokatzen dena. Manuel senarra bisitatzera doa haren emaztea... kanposantura. Heriotza, puntu komikotik. Domekan, 19:30ean, Amaia antzokian.

## Musika

BERGARA

**> Mahaster River taldearen emanaldia domekan**

*Nahasterrekan* diskoaren aurkezpena.

Domekan, hilaren 3an, Zabalotegi aretoan, 19:00etan. 3 euro.

ARRASATE

**> Alex 'El Hierro' eta Diego 'crines' domekan Gure Lekun**

Rock-and-roll akustikoa.

Domekan, maiatzaren 3an, Gure Leku tabernan, 20:00etan.

BERGARA

**> Lory Meyers eta Elastic Band maiatzaren 9an**

Lory Meyers andaluziarrak Bergaran. Granadakoek hiru disko eman dituzte argitara.

Maiatzaren 9an Jam aretoan. 12 euro aurrez; 15, leihatilan.

## Antzerkia

BERGARA

**> 'Lur planeta maite zaitut' haurrentzako musika kontaketa**

Zuzeneko musikarekin lagundutako saioa.

Zapatuan, hilaren 2an, Zabalotegin. 3 euro.

BERGARA

**> Helduendako ipuin kontaketa saioa**

Vanessa Gonzalez kontalariaren eskutik.

Eguenean, hilaren 7an, Zabalotegin, 19:00etan.

## Hitzaldiak

BERGARA

**> 'Euskararen jatorria eta sustraiak'**

Josu Naberan izango da hizlaria.

Eguenean, hilak 7, kultura etxean, 19:30ean. Jardun elkarteak antolatuta.

BERGARA

**> 'Jubilatzea ez da hiltzea', Aitziber Gine-ren hitzaldia**

Bizikasik eta Nagusilanek antolatuta.

Eguaztenean, hilaren 6an, Miguel Altunan, 18:30ean.

## Ikastaroak

ESKORIATZA

**> Bertso ikastaroa, helduei zuzenduta**

Eskoriatzako Udalak, Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin batera, helduendako bertso ikastaroa antolatu du. Helburua da bertsozaletasuna sustatzea, euskaraz aritzea, hizkuntzarekin jolas egitea...

Maiatzaren 5ean hasiko da ikastaroa. Izenematea apirilaren 30era arte zabalik. Argibideak 943 71 46 88 zenbakian edo *euskara@eskoriatza.net* helbidean.

ARRASATE

**> Emakumeei zuzendutako sexualitate ikastaroa**

Gure gorputzari buruz dugun irudia hobeto ezagutzeko aukera izango duzu, gorputzaren hizkuntza ikusteko, ematen digun plazer espazioa aurkitzeko, dituen erritmoak lantzeko. Maiatzaren 22an (16:00-20:00) eta 23an (10:00-14:00/15:30-19:30). 10 euro Arrasatekoendako; 15 euro gainerakoendako.

Izena emateko epea maiatzaren 8ra zabalik. Argibide gehiago Emakume Txokoan, 943 79 41 39 telefonoan.

ARRASATE

**> Eskulan ikastaroa eta makillaje ikastaroa**

Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik. Eskulan ikastaroa martitzenero: 15:30-17:30 edo 18:00-20:00 (ekainaren 16ra arte); makillaje ikastaroa maiatzaren 9an 11:00etatik 14:00etara.

Argibideak 943 79 83 70 telefono zenbakian.

ARRASATE

**> Emakume Txokoaren eskutik hainbat ikastaro**

Arrasateko Emakume Txokoak hainbat ikastaro iragarri ditu: *Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa* (apirilaren 29tik ekainaren 17ra); *Euskal dantzak* (apirilaren 28tik ekainaren 16ra); *Antzinako emakumeak: gure amandreengandik ikasten* (maiatzaren 12tik ekainaren 9ra); *Bizikletak konpontzeko ikastaroa* (maiatzaren 11tik 25era arte); eta, azkenik, *Gure erotismoa: gorputzaren hizkuntza* (maiatzaren 22an eta 23an).

Izenematea eta argibideak 943 79 41 39 telefonoan edo *emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net* helbidean.

BERGARA

**> Lotura afektiboak**

Udaleko Gizarte Zerbitzuak emakumeei zuzendutako ikastaroa antolatu du.

Apirilaren 27tik eta ekainaren 22ra, astelehenetan 17:15etik 19:15era. Argibideak: 943 77 91 65.

ARRASATE

**> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez**

PROPOSAMENA



BERGARA

**> Jorge Oteitzari eskainitako erakusketa**

Jorge Oteitza (1908-2003) eskultorearen jaiotzaren 100. urteurrena ospatzeko antolatutako erakusketa ibiltaria Bergaran ikus daiteke, igandera arte. Orioko artista handiaren lanari gainbegiratua egiten dio erakusketak, Oteitzaren etapa ezberdinei erreparatuz. 1959an amaitutzat jo zuen hutsaren estetikaren esperimentazio bidea, eskultura hutsera iritsita.

Aroztegin, maiatzaren 3ra arte. Aste barruan: 18:00-20:30; zapatuan 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domekan eta jaiegunetan: 12:00-14:00.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**PLANETARIUM BERRIA**

**Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.**

**MAIATZEKO ZUBIKO PROGRAMAZIOA**

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa. Maiatzak 1ean, 12tan euskaraz eta maiatzak 2 eta 3an, 18tan gaztelaniaz
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat. Maiatzak 1ean eta 2an, 16:15ean gaztelaniaz
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa. Maiatzak 1ean, 2an eta 3an, 13tan gaztelaniaz.
**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa
Maiatzak 1ean eta 2an, 17:00tan euskaraz eta maiatzak 3an 16:15ean gaztelaniaz.
**Eboluzioa (Berria!)** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.Maiatzak 1ean 18:00tan gaztelaniaz , maiatzak 2an, 12:00tan euskaraz eta maiatzak 3an, 17:00etan euskaraz.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibideak eta informazioa ondoko telefonoetan: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

# Lehiaketak

BERGARA

**> Erraldoiei izena jartzeko lehiaketa**

Erraldoien izena proposatzeko orduan kontuan hartu beharko da erraldoi bakoitzaren izaera. Erraldoietako bi XVIII-XIX. mendeko herriko jauntxoei begira egindako senar-emazteak dira eta beste bikoteak bi baserritar irudikatzen ditu, aurreko sasoi bereko senar-emazteak. Bergaran erroldatutako edonork hartu ahal izango du parte. Izenik egokienak proposatzen dituenak, erraldoien bikote bakoitzeko, 150 euroko saria jasoko du. Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 18ra arte zabalik.

Argibide gehiago kultura etxean, 943 77 91 58 zenbakian.

ARRASATE

**> San Juan jaiak: irudi lehiaketa deitu du Udalak**

Lehiaketa honetan edozein pertsonak har dezake parte. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: 2009 San Juan Jaiak Arrasate. Irabazleak 750 euroko saria jasoko du.

Lanak entregatzeko epea maiatzaren 22ra arte izango da zabalik. Argibide gehiago Biztanleen Arreta Zerbitzuan, 943 25 20 00 telefono zenbakian.

ARRASATE

**> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak**

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte zabalik. Argibideak 943 79 41 39 zenbakian.

BERGARA

**> Jaietako zapirako marrazki lehiaketa**

Edonork har dezake parte. Marrazkia jaiekin lotutakoa izan beharko da. Irabazleak 60 euroko saria jasoko du. Lanak entregatzeko epea maiatzaren 13ra arte dago zabalik.

Argibide gehiago Jardun euskara elkartean, 943 76 08 19 telefonoan.

LEKEITIO

**> Euskal Zine eta Bideo Bilera Lekeition**

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskaraz, irailaren 11rako.

Argibideak 94 624 34 82 zenbakian edo *www.bideobilera.com* webgunean.

# Zinema




## Déjame entrar *****

**Zuzendaria:** Tomas Alfredson.
**Aktoreak:** Kare Hedebrant, Lina Leandersson, Per Ragnar. Suedia, 2008. 114 min.

Gaur egun fantastikoan eta beldurrezko generoan egiten diren ia film guztiak AEBetatik datoz. Gehienak efektu espezialetan oinarritzen dira, eta odol asko eta istorio gutxi izaten dute. Hau dela eta, oso pozgarria izaten da *Déjame entrar* bezalako lanak ikustea. Tomas Alfredsonek 1982. urteko Suedian kokatzen du bere istorioa, banpiroen istorioa hain zuzen. Filma oso originala da, gaur egungo modu nabarmenak alde batera uzten dituelako, filmatzeko modu garbiago bat erabiltzen duelako, ikuslean sentsazio ugari sortarazten dituelako, eta lortzen duen atmosfera benetan liluragarria delako.

Film erromantikoa, lirikoa, tristea, misteriotsua eta, aldi berean, delikatua eta ikaragarria da. Zuzendaria sentiberatasuna eta gordintasuna erabiltzen ditu amodio eta laguntasun istorio paregabe bat sortzeko. Hamabi urteko bi haur bakartien arteko harreman bereziak ikusteko aukera izango dugu. Errealitatea eta fantasia oso ondo elkartzen dira, fantasia errealitatean sartzen da, intimitatea eta fantasia primeran uztartuz. Beldurrezko osagaiak oso ondo filmatuta daude, zuzendariak indarkeriaren eta osagai fantastikoen erabilpen zoragarria egiten du: momentu batzutan modu zuzenean eta sendoan erakutsita, horrela zirrara eta harridura handiagoak izaten dira; beste momentu batzutan gauzak antzematen ditugu edo iruditik kanpo ematen dira, eta gure buruak osatu behar du gertatzen den guztia.

Alde horretatik, *Déjame entrar* ikusterakoan, Jacques Tourneuren *La mujer pantera* filma etortzen zaigu gogora eta ez orain egiten den zinema fantastiko zakarra. Filmak hunkitu eta aztoratu egiten gaitu pertsonaiei gertatzen zaiena inporta zaigulako, eta ematen diren ezsena gordinek istorioan zerikusi handia dute. Ixtura eta edukia elkartuta doaz film zoragarri bat osatzeko.

**Antonio Zabala**

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**Slumdog millionaire**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.

**Animal Channel**
Zapatua: 17:00.

**Vals con Bashir**
Eguena: 20:30.

### ARAMAIO

#### KULTUR ETXEA

**Gomorra**
Egubakoitza: 22:15.

### EIBAR

#### UNZAGA

**X-Men orígenes: lobezno**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

#### GURIDI

**La sombra del poder**
17:30, 20:00, 22:30.

**X-Men orígenes: lobezno**
17:30, 20:00, 22:30.

**Fuga de cerebros**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**La madre de él**
17:30.

**Paraiso travel**
17:30, 20:00, 22:30.

**La montaña embrujada**
16:30, 18:30.

**25 kilates**
20:30, 22:30.

**17 otra vez**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Slumdog millionaire**
20:00, 22:30.

Eguenetik domekara.

#### ¡FLORIDA-GURIDI

**Un buen hombre**
17:30, 20:00, 22:30.

**Rudo y cursi**
20:00, 22:30.

**Munduaren bira, doan!**
17:30.

**La vergüenza**
18:00, 20:15, 22:30.

**La reina Victoria**
17:30, 20:00, 22:30.

**The International**
17:30, 20:00, 22:30.

**Un cuento de verano**
20:15.

**Gran Torino**
18:00, 20:15, 22:30.

**Déjame entrar**
18:00, 22:30.

Eguenetik domekara.

#### YELMO-GORBEIA

**X-Men orígenes: lobezno**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**17 otra vez**
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**La reina Victoria**
16:40 (zapatuan eta domekan), 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

**Mentiras y gordas**
15:50 (zapatuan eta domekan), 17:50, 20:15.

**The International**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

**Fuga de cerebros**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**La madre de él**
22:35, 00:35.

**Fast and furious: aún más rápido**
20:30, 22:40, 00:50.

**Dragonball evolution**
15:40.

**Monstruos contra alienígenas**
15:55 (zapatuan eta domekan), 17:55, 19:55.

**Al final del camino**
19:50, 21:50, 23:50.

**La sombra del poder**
16:30 (zapatuan eta domekan), 19:00, 21:30, 00:00.

**Señales del futuro**
20:05, 22:20, 00:35.

**Los abrazos rotos**
22:05, 00:25.

**Ponyo en el acantilado**
16:05 (zapatuan eta domekan), 18:05.

**La montaña embrujada**
16:35 (zapatuan eta domekan), 18:35, 20:35.

**Gran Torino**
15:45 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**La lista**
15:35 (zapatuan eta domekan), 17:45, 19:55.

**Slumdog millionaire**
17:40, 19:50, 22:00, 00:10.

**El curioso caso de Benjamin Button**
21:55.

**Más allá de los sueños**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15.

Apirilaren 30etik maiatzaren 7ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.

#### ÁBACO BOULEVARD

**Gran Torino**
20:10, 22:30.

**Mentiras y gordas**
16:00, 18:10.

**Slumdog millionaire**
20:15, 22:35.

**Hotel para perros**
16:05, 18:10.

**Al final del camino**
20:20, 22:20.

**The International**
15:45, 18:05, 20:30, 22:45, 01:00.

**X-Men orígenes: lobezno**
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**La montaña embrujada**
16:15, 18:15, 20:20, 22:20.

**Fuga de cerebros**
16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:30.

**Un conejo sin orejas**
16:10, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**17 otra vez**
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**Dragonball evolution**
16:30, 18:25.

**Monstruos contra alienígenas**
16:20, 18:20.

**La sombra del poder**
17:00, 19:30, 22:10, 00:40.

**Señales del futuro**
15:45, 18:00, 20:20, 22:40, 01:00.

**Fast and furious: aún más rápido**
20:20, 22:30, 00:45.

Apirilaren 30etik maiatzaren 7ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.



**Animal Channel** **
Espainia, 2009. Zuzendaria: Maite Ruiz de Austri. Marrazki bizidunak. 75 minutu.
Cathy zikoina eta Nicolas xaguak lantoki duten zinema aretoa ixtera behartuta daude. Baina, sormena eta ausardia soberan dutenez, Aita arratoiak zuzentzen duen telebista kate berrian lanean hasi dira erreportari moduan. Laster ohartuko dira telebistako izar bihurtzeko eurendako saio bat behar dutela.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**El intercambio** ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Los Angelesen, 1928an girotutako filma. Langileak nagusi diren auzo baten ezkongabeko ama batek, Christine Collinsek, 9 urteko semea agurtuko du zapatu goiz argitsu baten, lanera joan aurretik... Hortik aurrera erabat aldatuko da Christine Collinsen bizitza... Benetako gertakarietan oinarrituta.

**La duda** ***
AEB, 2009. Zuzendaria: John Patrick Shanley.
1964. urtea, New Yoreko Bronx auzokon San Nicolas elizan. Flynn apaizak mojek zuzendutako ikastetxearen arau zorrotzak aldatu nahi ditu. Flynnek ikasle beltz batez abusatu duelakoan, Aloysius moja apaiza kaleratzen ahaleginduko da.

**El curioso caso de Benjamin Button** *****
AEB, 2008.
Zuzendaria: David Fincher. .
David Fincher zuzendariaren (*Zodiac*) azken lana Oscarretako galtzaileetako bat izan genuen, bigarren mailako hiru saririekin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaioko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu...

**The reader**
AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry.
Michael Berg 15 urteko gaztea gaixotu egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna. Oscar saria Kate Winslet protagonistarendako.

**Gran Torino** ****
AEB, 2009. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Walt Kowalski Koreako gerrako soldadu ohi bat da. Egun batean deskubrituko du bere altxor preziatuena lapurtu nahi diola Asiako jatorriko bizilagun nerabe batek: 1972ko Gran Torino autoa. Arrazismoaren inguruko drama.

**La sombra del poder**
AEB, 2007. Zuzendaria: Kevin McDonald.
Stephen Collins kongresista bere alderdiko izarra da, eta hurrengo hauteskundeetan presidentetzarako hautagaia izango dela uste dute. Baina haren laguntzailea hiltzen dutenean gauzak nahastuko dira.

**nire aukera**



**Nekane Gabilondo**
Bergarako Musika Eskolako idazkaria

## Oraingo asteburu luzea, Baztanen

Bizitza erdia baino gehiago Udal Musika Bandan eman du Nekane Gabilondok; 20 urte beteko ditu aurten bandan. Flauta eta flautina jotzen ditu, baita Bergarako Orkestran ere. *Miserableak* musikalean ere badabil; Hondarribian emanaldia egingo dute maiatzaren 9an.

Musika Eskolan lanean hasi aurretik Jardun euskara elkarteko dinamizatzailea izan zen, 11 urtez. Ahal duenean, Baztanera, Elizondora, ihes egitea gustatzen zaio Nekaneri. Han igaroko dute oraingo asteburua. Lau urteko Saioa alabak ere laguntzen die mendi ibilaldietan.

**Baztango txoko bat?**
Asko daude... Oso polita da inguru hura, erlaxatzeko primerakoa. *Infernuko errotara* joateko ibilbidea, adibidez, gomendatzeko modukoa da. Garai bateko kontrabandistek eta mugalariek erabiltzen zuten ibilbide hori, eta inguruan dagoen errotak ematen dio izena.

**Eta hemen inguruan, mendi bat?**
Aizkorri gustatzen zait asko; Karakatetik Irukurutzetara doan ibilbidea baita; umeekin joateko Aitzulo, Arantzazu inguruan... *Euskal Herria* aldizkariaren gida bat erabiltzen dugu askotan, Euskal Herriko zein Pirinioetako ibilbideak aukeratzeko.

**Bandako beteranoetako bat zaitugu jadanik. Gustuko piezaren bat?**
*La japonesa* izeneko polka; flautinarendako idatzitako pieza da eta tradizio handia dauka Bergarako Bandan, igaro diren flautin guztiek jo izan dutelako. Teknika handia eskatzen duen pieza da. Domekako kontzertuan jo genuen, Udal Pilotalekuan.

**Musika klasikotik aparte?**
Denetik gustatzen zait. Euskal musikaren barruan Laboa, Benito Lertxundi, eta abar. Eta horrez gain, jazza, bluesa... estilo ezberdinak atsegin ditut.

**Edu Mendibil**

**Goienkaria**
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-04-30

# Denbora, denboraren truke

**SISTEMA** Diruan oinarritu ordez, lanordua aintzat hartzen duen truke sistema da denbora bankua

**DIRURIK EZ** Eguneroko beharrizanak konpontzeko laguntza jaso eta, trukean, norbere denbora besteei eskaintzen zaie

**DIRURIK EZ** Elgetako Ana Mari Sousa eta Bergarako Edurne Carreterorendako interesgarria da, dirua tarteko ez delako

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA
Diruan oinarritu beharrean lan ordua aintzat hartzen duen truke sistema da denbora bankua. Auzopolis da Ermuko denbora bankua eta hango kide dira Elgetako Ana Mari Sousa eta Bergarako Edurne Carretero. "Entzunda neukan egiten zela, baina ez nekien non, eta lagun batek esan zidan Ermuan bazela aukera. Informazioa jaso eta joan nintzen bulegora", esan digu Ana Marik. Edurnek Ermuan lanean ari zela ikusi zuen bulegoa eta bitxia iruditzen zuen izena.

Sistemaren funtzionamendua erraza da: eguneroko beharrizanak konpontzeko laguntza jaso eta, trukean, norbere denbora beste batzuei eskaintzean datza.

**LAGUNTZA EMAN ETA HARTU**
Ana Mari Sousak biodantza eskolak ematen ditu eta, psikologoa denez, jendeari entzun eta aholkuak ere ematen dizkio. Ingeleseko itzulpenak egitea ere eskaini du. "Sekula ez da jakiten zer eskatuko duen jendeak. Egon liteke sendagilearengana joateko edo umeak zaintzeko laguntza behar duenik", dio. Trukean joskintza eta informatika kontuetako laguntza jaso du. "Arotz baten laguntza eskatu nuen, baina ez zegoen. Badut asmoa etxea margotzeko laguntza eskatzeko ere".

Bere lanarekin zerikusia duten gauzak eskaintzen ditu Edurnek: erizain laguntzaile lanak, adinekoei laguntzea, erosketak egitea… "Ikastaro bat eman nien adinekoei sakelako telefonoa erabiltzen erakusteko". Eskatzen duena laguntza da semeari eskolako lanak euskaraz egiten laguntzeko, baita jostun lanak ere.

**HARREMAN TRUKEA**
Interesgarria iruditzen zaie biei egitasmoa, "ez delako diruz neurtzen, denborarekin baizik", dio Edurnek. Ana Marik dio jendea ezagutzeko aukera ere ematen duela: "Denboraren trukea ez ezik harreman trukea ere bada".

Auzopolis ezagutu nahi duenak *www.auzopolis.net* helbidera edo Ermuko bulegora jo dezake.



**IKASTAROAK** Edurne Carreterok sakelakoa erabiltzeko ikastaroak eskaini ditu; eta Ana Mari Sousak, biodantza ikastaroak. I. A.

## ahobero

### "Jokaldia errepikatuta ikusi arren ez dut nire burua ezagutu, hori ez naiz ni, zoratu egin nintzen"

**Pepe** > Real Madrileko futbolaria

Zoratu zela dio, baina ba ote daki zer dioen? Futbola telebistarik ez zenean gogorragoa zela esan zuen; orain, ordea, kontuz ibili behar dela kamerek harrapatuz gero bizitza izorra dezaketelako. Irudiei so, bere burua izorratzea edo zoratzea besterik ez du lortu.

## iturri onetik

### Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalerdi bat Bergaran izango da

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatuko da udazkenean. Txapelketa-horretako bi finalerdietako bat Bergaran izango da, azaroaren 8an, domekan, Udal Pilotalekuan. Bergarako Udalak 4.500 euroko dirulaguntza emango dio Bertsozale Elkarteari bertso saio horren harira, eta jaialdirako baliabideak ere ipiniko ditu: oholtza, aulkiak, mahaiak, soinu eta argi ekipoa…

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Erreleboa

Azkenean egunak iritsi egiten dira, eta datorren astean utziko dio lehendakaritza Ibarretxek Lopezi. Ezina zirudiena gertatuko da astearteaan, itxuraz zalaparta handirik gabe.

Erreleboaren kalteez iragarpen apokaliptikoak entzun dizkiegu doazenei, baina ez dut horrenbestekorik espero. Bisturia sartuko dute esparru enblematikoenetan, baina ez guztietan eta barruraino. Ezin dute eta ez zaie komeni.

Asmo onberez beteta datoz berriak, baina ez lukete ahaztu behar legez kanporatzeari esker iristen direla gora, fronte unionistaren baitan eta krisi latzaren erdian. Oso ondo egin beharko dute lan ez badute hauteskundeetan krisma apurtu nahi.

Datorren erreleboa onerako edo txarrerako izango den, guztion esku dago.

## ai, ene!



### Dirua, pilatzeko a zernolako modua…

Garai zailotan diruarekin direnak eta ez direnak egin behar aurrera edo irudian moduan gora egiteko, ea gure pila nora iristen den.

http://joquecosas.wordpress.com

Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan auto honentzako: Ford Focus Coupe Trend TDCi 90ZP. BEZa, garraioa, sustapeneko deskontua, matrikulazio zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Hilabete bukaera arte baliagarria. Ikusten den modeloa ez da eskaintzen dena. Focus gama, batez besteko kontsumoa: 4,7-9,3 l/100km. $CO_2$ igorpenak: 114-224 g/km.




Ford Focus TDCi: bi aldeko aire-girogailua • abiadura kontrola • CD-irrati 6000 eta aginteak bolantean • egonkortasun-kontrola (ESP) • trakzio-kontrola (TCS) • ABS eta 6 aire-poltsa
**14.900** eurogatik.

Gainera, 10.000 eurotan %0ko interesa, Gobernuaren VIVE Plus planarekin.

**MUGARRI AUTOAK**
Araba Etorbidea, z/g. Arrasate
Tel.: 943 797 564

Feel the difference
Ford